

# **JAKIN**

## **EUSKAL KULTURA IKUSPEGI BIBLIOGRAFIKOA**

**Karlos Santamariaren pentsaera  
JAKINEko idazlanak 1981-1990**

Azaroa  
Abendua

**61**

1990

**aurkibidea**

<i>Zenbaki honetan</i> .....	3
------------------------------	---

**Euskal kultura. Ikuspegī bibliografikoa**

KOLDO ZUAZO: Euskalaritza 1960-1990 .....	7
JESÚS MARI LASAGABASTER: Euskal Literaturaren azterketa 1960-1990 .....	43
PATRI URKIZU: Antzertia 1980-1990 .....	65
JON BAGÜES: Musika 1960-1990 .....	73

**Gaiak**

JOXE AZURMENDI: Karlos Santamariari omenalditxo gisa.....	87
---	----

**Aurkibideak**

Idazleen arabera .....	113
Gaien arabera .....	141

# ZENBAKI HONETAN

*Eskuetan duzun bau bigarren aldiko 61. zenbakia da eta 1990eko seigarrena, hots, aurteno azkena.*

*Duela bi urte programatu genuen irakurleko ez-espezializatuarentzat jakintzaren bainbat alorretan informazioa eskaintzea. Ildo borretatik emanak ditugu iadanik, Zientzia eta Teknologia (Jakin 54), Euskal historiografia (Jakin 55), Gaur eguneko zientziak (Jakin 57). Egitaraua osatzera dator orain aurkezten dugun gai nagusi bau: Euskal kultura. Ikuspegi bibliografikoa. Gure asmoa, orduan agertu bezala, hauxe da: zientziaren eta euskal kulturaren zenbait alorretan gero eta zabalagoa den ikerkuntzaren eta bibliografiaren basoan bide nagusi batzuk markatzea. Azken hamarkadetan izan ditugun ikerlan eta argitalpen haliozkoenak azpimarratu nabi izan ditugu, oraingoan adibidez, Hizkuntzalaritzan, Literaturan, Antzerkian eta Musikan. (Artikulu soltetarako utzi ditugu beste alor batzuk, baina, arte plastikoak, zinema, eta beste).*

*Aipatu alor horien berri emateko eskatuz, gaia ongi menderatzen dutenengana jo dugu. Eta borrela, Koldo Zuazok artiku-*

*lu luze eta mamitsuau Hizkuntzalaritzan egin diren lan baliozkoen berri ematen du zebatz eta mebatz, lan-sail bat aukeratu eta balioztatuz, eta gainerakoen zerrenda eskainiz. Txuma Lasagabasterrek euskal literatur azterketan egin diren saio nagusien edukina eta ekarria azaltzen ditu. Antzerkiaren azken bamarkadako ikerlanak eta gorabeherak aztertzen ditu Patri Urkizuk. Eta, azkenik, Jon Bagües-ek euskal musikologiaren liburuak sailkatzen ditu, sarreratxo baten ondoren.*

*Kulturaz —gure kulturaz— arduratzen den irakurleko eta euskaltzalegoak estimatzen jakingo duela espero dugu bere eskuetan jartzen dugun haliabide berri bau.*

**Gaiak** sailean Karlos Santamariak Jakin-en idatzi dituen pentsamendu-lanen azterketa egiten du Joxe Azurmendik. Azterketaren beraren balioaz gain badu lan bonek balio eransia: Jakin taldeak K.Santamariari omenaldi gisa eskaini nabi bait dio azterketa bau, lankidetzaren zilarrezko ezteietan.

*Eta zenbakia, urtea eta fase bau isteko, **Aurkibideak 1981-1990**. Jakin 21.ean argitara eman genuen aurkibidea osatzen dator oraingo bau. Aurkibide bartan Jakin-en basieratik orduarte artikulu guztien erreferentzia bila dezake irakurleak. Oraingo aurkibide boni esker, 21. zenbakitik 61. zenbakirainoko egileak eta gaiak bila ditzake. Bien artean, beraz, Jakin-en historia osoko produkzioaren berri du irakurleak; egileen arabera eta gaien arabera emana bietan.*

*Arestian aipatu bezala, zenbaki bonekin bigarren aldiko lehen fasea burutzen dugu. Hurrengo zenbakitik aurrera aldizkariak beste itxura bat hartuko du: tamainaz bandiagoa, testuz irakurterrazagoa eta edukinez aberatsagoa.*



---

Koldo Zuazo  
Jesus Mari Lasagabaster  
Patri Urkizu  
Jon Bagües

## EUSKAL KULTURA IKUSPEGI BIBLIOGRAFIKOA

### **Euskalaritzia 1960-1990**

Euskararen historia eta Filologia, Dialektologia, Gramatikagintza eta Sintaxia, Hiztegigintza, Fonetika eta Fonología, Soziolinguística eta Hizkuntzaren soziología, Koldo Mitxelenaren eragina, Aldizkari eta lan bildumak, Argibide bibliografikoak.

### **Euskal literaturaren azterketa 1960-1990**

Euskal literaturaren historiak, Azterketa orokorrak, Euskal literatura jeneroka, Ahozko literatura.

### **Antzertia 1980-1990**

Sorketa lanak, Itzulpen lanak, Saio eta artikuluak.

### **Musika 1960-1990**

Orokortasunak eta zenbait alderdi, Musikaren historia, Biografíak, Folklorea, Kantutegiak, Kanta herrikoiak, Musikatresnak, Dantzak, Bertsolaritza, Aldizkariak, Partiturak, Musika argitarapenak, Diska argitaletxeak, Liburutegiak.

## Euskalaritza 1960-1990

Koldo Zuazo

### 0. Sarrera

Besteri ekin baino lehen, epe honetako zenbait ezaugarri azpimarratu nahi nuke.

Eten nabarmena gertatu zen Euskal Herriaren bilakabidean 1950 aldera. Gerrateetako (1936-39 eta 1939-45) eta gerraosteko urte antzuak atzean utzi eta Herri berri bat eraikitzeko lehen ahaleginak azaldu ziren sasoi hartan. Herriaren nortasun galduarenaganantz —ukatuarenaganantz, hobe— zuzendu ziren ahaleginok, nortasun horren osagaietarik adierazgarrienetakotzat euskarra bera joz.

Ardura honek eraginda edo, nonbait, hizkuntz kontuekin lotura duen (iker)lan franko plazaratu da aztergai dugun epcan.

Ez da, cz, halabehar hutsa, guziz emankor suertatu diren hainbat aldizkari garai hartantxe sortu izana: *Eusko-Jakintza*

(1947-57), *Gernika* (1948-53), *Egan* (1. aroa, elebiduna, 1948-54; 2. aroa, euskara hutsean, 1954-87), *Euzko-Gogoa* (1950-59)...

Egonean zegoen Euskaltzaindia ere, orduantxe hasi zen nagiak ateratzen eta alor berriak jorratzen. 1950 ingurukoak dira Altubek, Krutwigek zein Villasantek euskara bateratu eta bal-dintza berrietara egokitutako proposamenak.

60ko hamarkadan azaleratu ziren abiadura berri honen lehen emaitzak. Azkarragoa izango zen abiada, eta ugariagoak eta umatuagoak fruituak, ondorengo urteetan. Berebiziko eragina izan dute, noski, 1977az geroztik Deustuan, Donostian eta Gasteizen —Bordele eta Baionakoak ahantzi gabe— ireki diren Euskal Filologiako Fakultateek.

Guzti honen ondorioz, zeharo aldatu dira Euskalaritzaren izaera eta ezaugarriak. 50 eta 60ko hamarkadetan "zaletuak" (euskaltzaleak) baldin baziren nagusiki euskara-gaietan zihardutentak —alde batera utziko ditugu oraingoz hizkuntzalari atzerri-tarrak—, behin 80ko hamarkadara iritsiz gero, "ofiziodunak" (euskalariak) —euskaltzale ere izanik edo izan gabe— ditugu lehentasuna berenganatuz joan direnak. "Euskaltzale / Euskalari (+ euskaltzale)" bereizketa hori geroz eta gardenago bilakatu da azken urteotan eta, ondorengotan, urak beren bidetik badoaz behinik behin, are gardenagoa izango dela espero behar.

Osterantzko ondioriorik ere etorri zaigu ordea. Atzerritarrok genituen iragan garaietan Euskalaritzaren zutabe eta ardatz: XVIII. mende-hondarretan Humboldt-ek urratutako bideari, Lécluse-k, Bonaparte-k, Dogson-ek, van Eys-ek, Vinson-ek... Gavel-ek, Lacombe-k, Saroňhandy-k, Schuchardt-ek, Uhlenbeck-ek... eman zioten jarraipena. Aztergai dugun epean, K. Bouda, N. Holmer, R. Lafon, A. Martinet, A. Tovar... nabarmendu dira. 1960 inguru horretan iritsitakoak dira J. Allières, W. H. Jacobsen Jr., R. de Rijk, T.H. Wilbur... Plazaratu berrien artean, azkenik, G. Rebuschi, R.L. Trask... aipa genitzake.

Baina, garbi dago, hizkuntzalari atzerritarrok Euskal Herrian bertan jaiotakoien aldean zeukaten nagusitasun hura ttipituz joan

dela emeki-emeki. Batzuen eta bestcon arteko tarte hori, XX. mende honetan oreaktua da eta, gerraosteaz gero, bigarren multzoaren alde egin du nabarmen.

Bizpahiru ohar metodologiko ere egin nahi nituzke Sarrera luze samar hau amaitu aurretik.

Alde batetik, "euskalari" deitu ditudan horien lanei lehentasuna ematen saiatu naiz. Baino, gorago aurreratu bezala, "zaletu" izendatu ditudanen eragina ere bete-betekoa izan da —eta beharrik!— 1960-90eko epe honetan. Ezin, beraz, erabat baztertu eta aipatzeke utzi.

Bigarrenik, eta Euskalaritzaren hau oso esparru zabala eta nabarra dela kontutan izanik, atal ezberdinak antolatzea erabaki dut: 1. Euskararen historia eta Filología, 2. Dialektología, 3. Gramatikagintza eta Sintaxis, 4. Hiztegigintza, 5. Fonetika eta Fonología eta 6. Soziolinguística eta Hizkuntzaren soziología.

Txostenean zehar, hirugarrenik eta azkenik, lanen izenburuak eta egileen izen-deiturak baizik ez ditut eskuarki adierazi. Gainerako xehetasunak (non, noiz, zein argitaltxe edo aldizkarian argitaratu diren, etab.) amaiaran dagoen "Argibide bibliografikoak" eranskinean aurki daitezke. Eranskin honetan bada, gainera, txostenean azaltzen ez den zenbait lan. Maila handiko lanak denak ere; baina *Jakin*-eko arduradunek ezarri didaten orrialde-kopurutik sobera ez urruntzcarren, aipatu ezinik gelditu direnak.

## 1. Euskararen historia eta Filología

1.1. Hizkuntza baten izaera eta nolakotasunaz jabetuko bagara, beraren mendez mendeko bilakaeraren berri zehatza izan beharko dugu nahitaez.

Oraintsu samarrekoa da gurean kezka hori. Artean, eta geure nortasun juridiko-politikoa aldarrikatze aldera edo, euskara garbi, aratz eta erdarek kutsatu gabea eraikitzeari lotu gintzaizkion.

Gaitzetsi egin ziren behin XVI. mendeaz gero genituuen euskarazko izkribuak, haietan ere erdaren eragina nabari zelakoan non bait.

Eragin hori jasan aurreko euskara berreraikitzea bihurtu zen helburu nagusi. Baino horretarako bitarteko ziurrik, ez ziur antzekorik, ez geneukanez, asmatzeari ekitea izan zen irtenbide bakarra. Fantasiekin, egiaztatu gabeko (eta are egiaztatu ezinezko) uste eta hipotesiekin, izkribu apokrifockin... bete zen usu hutsune hori.

Izkribu zaharrak ziren, ostera, arakatu eta miatu beharrekoak. Euskaldunok alegiazko cuskara bat itxuratzen ari ginelarik, atzerrian eta atzerritarrek urratu zuten bide hori. Berlingo *Euskara aldizkariak* (1886-96) eta 1867-1916 bitartean Parisen argitatu zen *RIPbC-k (Revue de Linguistique et de Philologie comparée)* izan zuten aitzindaritza. Geroago iritsi zen RIEV (1907-36).

Aztergai dugun epean, ordea, sail honetantxe egin dira aurrerapenik handienak. Guztiz erabakiorra gertatu da Koldo Mitxelenaren iharduera. Euskara zaharreko hainbat izkriburen argitaratzaile eta aztertzaile izan genuen, baina, hemen, haren lan bi azpimarratu nahi nituzke bereziki:

- *Dictionarium Linguae Cantabricae*

Landuchio italiarrak 1562an bildutako hiztegia dugu. Mitxelenena, berau aztertu ostean, ordurarte ezezaguna genuen euskalki bati zegokiola ohartu zen. Gasteiz inguruetan aspaldi mintzo zi-tekeenari hain zuzen.

Ezin interesgarriagoa da Mitxelenak hiztegi honi jarri zion Hitzaurrea. Bertan, XVI eta XVII. mendeetako bizkaierazko izkribuckin erkatu zuen hiztegi honetako hizkera, elkarren arteko kideatasunak eta ezbeldintasunak azpimarratuz. Horrela, bada, Arabako euskararen ezaugarriak eta, zeharka, baita bizkaiera zaharrarenak ere zehaztu zituen.

- *Textos arcaicos vascos*

1700 arteko euskarazko hitz, esaldi eta izkribuak biltzen ahalgindu zen liburu honetan. Biltzeaz gainera, aztertu ere egin zi-

tuen. Izkribuok ulertzeko izan zitezkeen korapiloak, korapilo hauek askatzeko bera baino lehenagokoek proposatutako irtenbideak, irtenbide hauetaz zeuzkan eritzia eta Mitxelenak berak egindako ohar eta iruzkin anitz aurki ditzakegu bertan.

- Ibon Sarasola, *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*

Aurrekoaren osagarri. Egitura ere guztiz antzekoa du, Mitxelenaren zuzendaritzapean burutu zuen Doktorego Tesiaren eranskina bait da Sarasolaren lan hau. Zinez aberatsa eta mamitsua da edukinaren aldetik ere.

Bi lan nagusi hauetaz landa, makinatxo bat testu eta izkribu zahar eman da argitara Euskalaritzaz diharduten aldizkarietan, *ASJU*, *Euskera* eta *FLV*-en batipat.

Eskertzekoa, orobat, argitaletxe zenbait, antzinako idazleen lanak gure eskuetan jartzearen, egiten ari den ahalegina. Diodanaren sendogarri dira Hordagok 1978-80 bitartean plazaratuak 29 liburukiak, Euskaltzaindiak 1979az geroztik sortutako "Euskararen Lekukoak" sailekoak (15 liburuki argitaratu dira dagoeneko) eta Euskal Editoreen Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta zabalkunde helburuarekin, eratutako "Klasikoak" izeneko bilduma (36 dira dagoceneko plazaratuak, XIX eta XX. mendetako idazleen lanak denak ere).

Ezin hemen guztiak banan-banan aipatu, honako hau izan ezik:

- Jose M<sup>a</sup> Satrustegi, *Euskal testu zabarrak* (I)

Ez du Satrustegik, Mitxelenak edo Sarasolak egin bezala, bere lana hizkuntzazko ohar eta argibideekin hornitu. Testuak ditu huts-hutsean argitaratu. Liburuaren balio nagusia, hortaz, bertan bildu den izkribu-kopuru larrian eta izkribuotarik gehienak hizkuntzaren aldetik bain ezezaguna dugun Nafarroa Garaikoak izatean datza.

1.2. Badira, bestalde, idazle edo izkribu jakin bat ardaztat harturik ondutako lanak. René Lafon izan dugu aitzindarietako

bat honetan, 1949-60 bitartean, *BAP* aldizkarian, Oihenart eta Etxeparerri buruz argitaratutako lan ugariak lekuko.

Aztergai dugun epearri nagokiola, hauexei deritzet azpimarragarri:

- Jean Haritschelhar, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchabun* eta batez ere egile beronen *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchabun*.

XIX. mendeko koblikari zuberotarraren ikerketa sakona burru zuen Haritschelharrek. Lehen liburuan, Etchahunen bizimodu gorabeheratsuaren berri emateaz gain, literatur alderdia joarratzen da. Hizkuntzari lotuagoa dago bigarrena. Etchahunen lanen edizio kritikoa eta aldaera ezberdinak konparaketa, beti ere ohar aberatsez hornitua, eskaintzen zaigu bertan.

- Patxi Altuna, *Versificación de Dechebare*

Gogotik ekin dio P. Altunak izkribu zaharren edizio kritikoak atontzeari. Berari zor diogu Etxeberri Ziburukoaren, Mendiburu, Tartas, Frai Bartolome eta Ubillosen zenbait lanen argitalpena. Nolanahi ere, Etxeparerri eskalinitakoak dira goren mailara iristen direnak. *Linguae Vasconum primitiae*-ren edizio kritikoaz gain, Etxeparerren hizkera eta bertsogintzaren berri izateko ezinbestekoa dugun liburu bikain hau plazaratu zuen Altunak.

- Luis Villasante, *Gero. Egile beronena, Axular: Mendea, git-zona, liburua*

Arreta bizi aztertu du Villasantek Axularren *Gero* handia. Beronen argitalpen bi ere paratu zituen, 1964ean lehena, gaztelaniazko itzulpenarekin, eta 1976ari, oharrez osatutakoa hau, bigarrena.

Beraren gramatika-lanetan ere (ikus 3.1 atala) erruz erabili zituen *Gero*-tik jasotako esaldi eta adibideak. Dena dela, oraindik ere ezin esan erabat agortua dagoenik Axularren hizkera oparoaren ikerketa.

- Beñat Oyarzabal, *La Pastoreale Souletine. Edition critique de "Charlemagne"*

G. Hérelle-k mende honen lehen erdialdean burututako ikerlanez kanpo, ezer gutxi sakondu da Pastoralgintza-alorrean. Oyharçabalen Doktorego Tesi honek egin zuen etena (1982). Sarrera aberats batekin batera, zubereraren berri izateko hainbat argibide dugu bertan.

1.3. Izkribu zaharren argitaratze etengabeak, bestalde, iharduera horretan egiten ziren akats ugariak ekarri ditu agerira. Hortik, hain zuzen, Testu-kritikak aspaldi honetan izan duen gorakada. Kezka hau ASJU aldzikariaren inguruari murgiltzen diren lankideen baitan somatzen da gardenenik.

Bertan argitaratu dira, esate baterako, egileasun-auziez diharduten "Larramendiren Azkoitiko Sermoia" (1985) nola "XVI. mendeko bizkaiertzko errefrauuez" (1986), Joseba A. Lakarra-renak biak ere. Argitalpen batetik besterako aldaerez, egilearen beraren eta ondorengoen zuzenketez ari da, Lakarra bera, "Bur-gosko 1747ko Dotrina" (1987) lanean.

Iturriekiko zorrak izan ditu Iñigo Ruiz de Arzalluzek bere "Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento" (1987) delakoan aztergai eta, orobat, Leizarraga eta grekerazko testuari buruzkoan (ASJU Gehigarriak, 14).

Izkribu berberaren berridazketa desberdinez ihardun du Blanka Urgellek bere "Añibarroren *Esku-liburu*"-n (1985).

M. José Kerejeta, B. Urgell eta J.A. Lakarra-ren lanak aurki daitezke, halaber, azken honen ardurapean argitaratutako *Hitztegiak eta testuak* liburuan.

1.4. Aro edo garai jakin bat dagozkion ikerlan teorikoak ere azaldu dira. Hona hemen oinarrizkoentzat jotzen ditudanak:

— René Lafon, *Le système du verbe basque au XVIIe siècle*

Aztergai dugun epekoa baino lehenagokoa da, izan, Lafonen lan galant hau. Bertoko nahiz kanpokoak lliburatu (eta itsutu) dituen euskal aditza du ikergai, XVI. mendeko izkribuetan ageri

dena hain zuzen. Ezinbesteko lana, baldin eta euskal aditzaren egitura zuzen ulertuko bada.

— Joaquín Gorrochategui, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*

Mitxelenak erakutsi legez, euskararen historiaren berri izateko ez da nahitaez XVI. menderarte itxaron beharrik. Erdi Aroko agiri eta dokumentuetan dautzan lekukoez at, laguntza ederra eman diezagukete iberikoan zein akitanieran idoro ditzakegunek. Akitanieraz den bezainbatean, hor dira Mitxelenak berak egindako lanak, Luchaire-ren aitzindaritasuna ahantzi gabe jakina.

Gorrochateguiren hauxe da, ostera, denetan osoena. Sarrera ezin interesgarriago baten ondoren, izkribu akitaniarretan ageri diren jainko- eta pertsona-izenen bilketa zehatza egiten du, baikoitzari buruzko ohar eta iruzkinak erantsiz.

- Joseba A. Lakarra, "Bizkaiera zabarra euskalkien artean"

Honexeri deritzot ikertzaile honek dagoeneko plazaratu dituen lan ugarietarik osoen eta biribilen.

Eginahalak egin dira XX. mende honetan bizkaiera gainontzeko euskalkietatik banatzearen. Izan da "aparteko hizkuntza" dela aldarrikatu duenik ere. Behin eta berriz ekin zion Mitxelenak uste hauen ustelkeria salatzeari. J.A. Lakarrak bizkaiera zabarra eta gainerako euskalkien artean atzeman daitezkeen kide-tasunez dihardu ikerlan mamitsu honetan.

- Itziar Laka, "Hiperbizkaieraren bistoriaz"

Bizkaiera beste euskalkietatik banatze-nahi horrek egundoko eragina izan du euskalki honen bilakabidean. Arestian aipatu diren alegiazko euskara berreraikitze nahiak ere erantsi behar zaizkio joera horri eta guzti honen ondorio da "hiperbizkaiera" deitu denaren sorrera eta garapena. Azkuek eta aranatarrek bereziki bultzatutako joerok argi eta xehekiro azaltzen dizkigu I. Lakak lan honetan.

1.5. Ez da izango, ziurrenera, euskararen jatorriak eta gai-nontzeko hizkuntzekiko dauzkan ahaidetasunen auziak adina buruhauste eman duen besterik. Hamaika liburu eta txosten idatzi da honetaz eta oinarrizkoenak baino ezin, horrenbestez, hemen aipatu:

- Koldo Mitxelena, *Lenguas y Protolenguas*

Hizkuntz kontuetan jantziegi ez daudenak murgildu dira maiz honekako eztabaidean. Ondorioz, jakina, gauzak argitu beharrean, nahasi eta lorrindu baizik ez dira egin. Ikusten ari gare-narekin zeharkako zerikusia baino ez badu ere, baitezpadako-tzat daukat Mitxelenaren lan hau, baldin eta arrisku horiek saihestu nahi baditugu behin behin.

Hizkuntz konparaketan eta berreraiketan erabili beharreko azterbide eta erizpideak azaltzen dizkigu bertan, "jokoaren" oinarrizko arauak nolabait esateko.

- M<sup>a</sup> Teresa Echenique, *Historia lingüística vasco-románica*

Euskara eta beronen (balizko) ahaideen arteko harremanak zehaztearren egin denaren berri izateko sarrera egokia dugu Echeniquerentzako liburu hau. Eztabaidearen nondik-norakoa eta lortu diren emaitzarik nagusienak aurkezten zaizkigu. Aldi berean, euskara eta beronen inguruan, bereziki Erdi Arora bitartean, izan diren erromantzeen arteko zenbait eragin eta kidetasun ere laburbiltzen dira.

- Antonio Tovar, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*

Ahaidetasunak bilatze horren oinarrian mito eta ideología jakinen eragina somatzen dugu maiz. Ezin hobeto erakusten zaigu guzti hori lan eder honetan. Nik, horregatik, bi akats ikusten dizkiot Tovarren liburuari. Alde batetik, ez du behar bezain argi isladatzen ideología hauen eta baldintza sozioekonomikoen arteko lotura estua eta, zeharka egiten duenetan, lar alderdikari azaltzen du bere burua.

## 2. Dialektologia

Baina mendez mende ezezik, herriz herri ere miatu beharra dago hizkuntza. Nahitaezkoak dira, alegia, Dialektologi alorreko ikerketak. Ez da hau landuegi duguri arloa, eta hori aski gaitz ez balitz, euskaltzaleak, eta ez euskalariak, izan dira maiz honetan ihardun dutenak.

2.1. Izan da —eta oraindik ere bada—, deklinabide-taula eta aditz-zerrenda amaigabeak nola edo hala bilduz, Dialektologiarri itzelezko onura egiten ziolakoan egon denik.

Besterik egin zuten 1953an Mitxelenak, Beloquik, Elóseguiak eta Sansineneak Izaba eta Uztarrozeko gaiak bildu zituztenean. Elkarrizketa zatiak, hiztunek esan bezalaxe, jasotzen dira euren lanean. Hitz eta adizki zenbait ere bada, baina, ondoren, berauk azaldu ziren esaldi osoa ere —erabili ziren testuinguru zehatzaz jabe gaitezen— datorrela.

Mitxelenaren aholkueli men eginez, bide beretik abiatu zen Kandido Izagirre, Erronkarin, Ultzaman, Altsasun eta Oñatin bildu zituen hizkera-zatiak, ezin baliagarriagoak dira aipatu hizkeron berri izango badugu.

Ildo beretik jo zuen urte batzuk beranduago Koldo Artolak ere Erronkariko hizkera biltzeari ekin zionean.

2.2. Inkesta egokiak atontzea ere ezinbestekoa da Dialektologian. Ana M<sup>a</sup> Echaideren bi lan hauek dira hemen aipagarri:

- *Erizkizundi irukoitza. Iker 3*

1922 aldera ekin zion Euskaltzaindiak E.H. osoan zehar burutu zen inkesta zabal honi. Emaitzak, erizpide argiegirik gabe, *Euskera* aldizkarian joan ziren argitaratuz 1925-28 bitartean. Zuberoari zegozkionak, aldiz, ez ziren 1960 arte plazaratu.

Ana M<sup>a</sup> Echaidek emaitza horiek bildu eta sailkatu egin ditu lehen liburukian. Bigarrenean, berriz, galdera bakotzak izan zituen erantzunen eremuak kartografiaturik aurkezten dizkigu.

- *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*

Echaidek berak Nafarroa Garaian barrena burututako inkesta dugu honako hau. 301 galderaz dago osatua. Jasotako erantzunek berez daukaten interesagatik ezezik, era honetako inkestak nola antolatu eta, batipat, nola aurkeztu behar ditugun jakiteko ere eredu ona izan daiteke Echaideren lan hau.

Ezin aipatzeko utzi, jakina, Euskaltzaindia burutzen ari den *Hizkuntz Atlassa*. 2.785 galderaz dago osatua eta F.H. osoko 145 herritan da egitekoa. Lan zabala bezain sakona eta, beraz, patxada eta adore handiz heldu beharrekoia.

2.3. Badira hizkera-zatiak biltze hutsa baino urrunago iritsi direnak. Hots, hizkera jakin bat aztertu eta bere ezaugarriak aditzera eman dituztenak. Erronkari eta Zaraitzuko hizkeren egitura fonologikoaz aritu zen Mitxelena. Bi Doktorego Tesik izan dute Bartzango hizkera aztergai. Amaiurkoak arakatu zuen Geneviève N'Diaye-k eta harana bere osotasunean, eta aurrekoak baino sakontasun handiagoz, Pello Salaburuk.

Ezinbestekoa Ondarroako hizkeraren berri izateko Karmele Rotaetxeren Doktorego Tesia: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*.

Ez hauek bezain osoak, baina interesgarriak hala ere, René Lafonek Larrañe herri zuberotarreko hizkeraz ondutako lanak.

Herri edo eskualdea baino eremu zabalagoa aztergai izan dutenen artean, Nils M. Holmer-en *El idioma vasco hablado* eta "Apuntes vizcaínos" dira azpimarragarri.

Erdialdeko zenhaitz hizkeraren azterketa —Bidasoa arrokoena bereziki— da lehendabizikoaren muina. Ezaugarri fonetiko eta morfológikoekin batera, hiztunengandik jasotako hizkera-zatiak eta hiztegi labur bat erakusten zaizkigu bertan.

Oso antzekoa da bigarrena ere egitura aldetik. Bizkaiko zenhaitz herritako (Bermeo, Getxo, Mundaka, Fruiz, Arrieta, Larrauri eta Dima) hizkerak dira oraingoan ikergai.

Atal honetan koka litzke Koldo Zuazoren "Arabako euskarra" eta "Zubereraren sailkapenerako" ere.

Araban aspaldi mintzo zen euskararen ezaugarriren behine-nak erakusten dira lehenean. Araban barrena hiru azpieuskalki izan zitezkeela ere proposatzen da aldi berean.

Zubereraren ustezko apartekotasuna gezurtatu eta euskalki honek erronkariera, zaraitzuera eta Nafarroa Behereko zenbait hizkerarekin ageri duen batasun estua aldarrikatzen da bigarren txostenean.

#### 2.4. Sailkapen berezia behar du hurrengo lan honek:

- Pedro de Yrizar, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*

Yrizarrek Dialektologiari eskainitako lan ugarien bilduma ditugu liburuki bi hauek. Euskalkien sailkapenaz izan diren zallantza eta eritziak, euskalkien azterketa demolinguistikoa, inkestak atontzerakoan sortu diren buruhauste eta gorabeherak, hizkeraz hizkerako aditz laguntzailearen aldaerak... bada zer ikusi eta zer ikasi Yrizarren lan honetan. Harrobi aberatsa Dialektologian murgildu nahi duenarentzat.

### 3. Gramatikagintza eta Sintaxia

3.1. 1968an onartu zuen Euskaltzaindiak "euskarra batua" deitu ohi dugun hizkuntz eredua. Eredu horren behin-behineko zirriborroa aurkeztu zen Arantzazuko Batzar Nagusi hartan eta, ondorengo urteetan, lan ikaragarria egin zirriborro hura osatze eta zehazte aldera. Beraz, ez da harritzekoa garai honetan gramatika-lanek gorakada handia izana.

Luis Villasante dugu lehia honetan gehien nabarmendu deneanetako bat. *La declinación del vasco literario común* plazaratu zuen onartu berri zegoen Deklinabidea erakutsi asmoz. Euska-

raren eratorpen- eta konposizio-arauak azaltzeko, berriz, *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Joskera-auzietan murgildu zen gero, *Sintaxis de la oración compuesta*, *Estudios de sintaxis vasca*, *Sintaxis de la oración simple* eta *La oración causal en vasco* argitara emanet.

Alabaina, mahai gainean zegoen egiteko ez zen bakarrik euskara *standard* hori gauzatzearena. Eredu hori zabaldu eta ja-kitera eman beharra ere bazegoen, noski. Dohain eta ahalmen berezia erakutsi zuen horretarako Txillardegik.

Ederto asko ase zuten garai haietako euskaltzaleen jakinmin beraren *Sustrai bila* (2. arg., zuzendua eta osatua, *Oinarri bila* izenburuarekin agertu zen) eta, batez ere, *Euskara Batua zertan den* izeneko liburuek. Hain gogaikarri den aditza ere, modu eroso eta ikasterrazean azaldu zuen Euskaltzaindiaren aginduz atondutako *Euskal aditz batua* liburuan. Gramatika orokor bat ere taiatu zuen azkenik: *Euskal Gramatika*.

Lan guzti hauek, aipatu ez ditudan beste batzuekin batera, ezinbesteko urrats suertatu dira honako hau bideratu ahal izateko:

- Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Leben urratsak*

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea egiten ari den lan trinkoa. Ikerlan sakonen ondorio eta aski erizpide modernoz antolatua. Hizkera-ulerterraza. Azalpen argiak eta zehatzak. Labur-aberatsa edukian eta, aldi berean, edozein euskaldunen esku-menean.

3.2. Gramatikagintza teorikoa, erizpide modernoagoetan oinarritua, landu duenik ere izan da. Funtsezkoa da René Lafonen ekoizpen larria, gehientsuena 1951-75 bitarteko *BSL* aldizkariko aleetan barreiatutik dagoena. Euskararen ergatibilitate eta pasibotasuna, genitiboa, prosekutiboa, deklinabide zaharra, imperativoa, -ke eta -te atzizkiak, *hait-* aurritzak... dira ukitu zituen gaie-tako batzuk.

Gure epea baino lehentxoagokoa den arren, ezin aipatzeke utzi Pierre Lafitteren *Grammaire basque* lan ederra, Iparraldeko euskalkien berri izateko baitezpadakoa.

Behin 70eko hamarkadaz gero, abiadura bizia hartu dute joseraz dihardutenean lanek. Bazeukaten, eduki, aspaldiko aintzindari antzeko bat: Seber Altuberen *Erderismos* (1929) liburu ezaguna. Hamarkada hau hastearekin batera, ordea, garbiro somatuko da etena. Eta, hona hemen, aro berri horren iragarle etorri ziren bi lanak, 1972an plazaratutakoak biak ere:

- Koldo Mitxelena, *Zenbait hitzaldi*

Mendeen harian Hizkuntzalaritza-alorrean garatu diren jokerak azaltzen dizkigu laburkiro: 1. Hizkuntzalaritza tradizionala, 2. Konparatismoa, 3. Estrukturalismoa eta 4. Gramatika sortzaile eta bihurtzailea.

Hainbat alderditatik da liburu hau aipagarri. Alde batetik, Estatu Batuetan bertan ere ez zegoen oraindik hain agertu zahar Gramatika sortzaile eta bihurtzailea eta beroni eskainitakoa da, hain zuzen, liburu honetako atalik zabalena. Euskal Herrian ere, beraz, bazen kanpotarren aldean oso atzetik ez zebilenik. Bigarrenik, euskaldun batek beste euskaldun batzuei zuzendutako lana dugu, ulermenerako (adibideetan eta) horrek dakartzan abantaila guztiekin. Goi mailako hizkuntzalariak egindako zabalkunde lana da hirugarrenik eta, laugarrenik eta azkenik, liburua Donostian burututako hitzaldi batzuetan oinarrituta dagoenez, aski irakurterraza gerta daki oke nornahiri.

- *ASJU*, VI (1972)

Nevadako Unibertsitateak 1972ko udan Euskal Herrian antolatu ikastaroetan aurkeztutako txostenak (Glenn Ayres, Ramón M.S. Bereicua, Claudia Corum, Françoise Donzeaud, Jeffrey Heath, William H. Jacobsen Jr., Koldo Mitxelena, Quentin Pizzini, Rudolf P.G. de Rijk eta Carlos Zarabozorenak) bildu ziren Mitxelenak zuzendutako aldizkariaren ale berezi honetan. *ASJU*-ko aurreko aleekin, eta garaiko Spainia eta Frantziako beste edozeinekin alderatzen badugu, berchala jabetuko gara gaion berritasunaz.

Goiko zerrrendan ageri diren ikertzaileetarik asko mututu edo lehenagotik ere jorratzen zitzuten beste hizkuntza batzuen azter-

ketari jarraitu zaizkio ondorengo urteetan: Australiako Heath, Iparrameriketako Jacobsen...

Guztiz bestelakoa da Rudolf de Rijk euskalari holandarraren kasua. 1969an bertan urte haietan puri-purian zegoen gai bati buruzko goi mailako lana —eta dagoeneko gure artean klasiko bilakatu dena— plazaratu zuen: "Is Basque an SOV language?" Harrez gero ere egin du ekarpen interesgarririk: *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, beranduago zatika baino argitaratu ez den MITeko Doktorego Tesia, esate baterako. Baita "Erlatiboak euskal idazle zaharretan", "Euskal morfologiarenean zenbait gorabehera"...

70eko hamarkadaren bigarren erdikoak dira I. Sarasolaren "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes" eta Th. Wilbur-en *Prolegomena to a Grammar of Basque*.

Aipamen berezia merezi duelakoan nago hamarkadaren amaieran atera zen liburu honek:

- Patxi Goenaga, *Gramatika bideetan*

Aipamen berezia, berau delako joera berrien arabera burututako lehen euskal gramatika. Aurrenik 1978an argitara emana (eredu sortzaileari jarraiki), zeharo aldatua (eredu berriagoen atzetik) azaldu zen bi urte geroago. Aipamen berezia, halaber, euskara hutsez egina delako, terminologia arazock sortu ohi dituzten korapilo zailak egoki asko askatzen direlarik. Azalpenak, azkenik, aski era ulerterrazean emanak datoz. Alde honetatik ere, bada, "euskaraz" dagoela esan behar.

EHUk antolatutako Udako Ikastaroetan ere leku zabala izan dute joskerari buruzko saioek. Patxi Goenaga eta Pello Salaburen ardurapean argitaratu diren liburuetan bildu dira bertako emaitzak. Arlo honetan murgildu nahi duenari sarrera egoki ger- ta dakizkioke lau liburu hauek.

3.3. Behin 80ko hamarkadaz gero, urtetik urtera arcagotuz joan den gorakada izan du euskal sintaxiak. Hasteko, sekula

baino lan gehiago egiten da sail honetan eta horren lekuko dira hainbeste ugaldu diren doktorego tesiak: Georges Rebuschiren *Structure de l'énoncé en basque*, Patxi Goenagaren *Nominalizazioa eta konplementazioa euskaraz*, Beth Levin-en *On the Nature of Ergativity*, R.Larry Trask-en *Synchronic and Diachronic studies in the Grammar of Basque*, Beñat Oyharçabalen *Etude descriptive de constructions complexes en basque: propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Andolin Eguzkitzaren *Topics on the Syntax of Basque and Romance*, Jon Ortiz de Urbinaaren *Parameters in the Grammar of Basque*, Joseba Abaituaren *Complex predicates in Basque: from lexical forms to functional structures...* edota egile hauek eta beste zenbaitek ASJUh azken urteotan argitaratutako artikulu ugariak.

Lanen egileek eta izenburuek eurek ere argiro salatzen dute-nez, nazioartekotasuna erdietsi dute euskal sintaxi azterketek, bai atzerritarrek beren ikergai bilakatu dutelako eta baita zenbait euskaldunek —geroz eta gehiagok— kanpoko unibertsitateetan egi(te)n dituztelako hemen ezin burutu ahalko lituzketen goren ikasketa eta ikerketak, hala nola, Connecticut, Los Angeles, Madrid, Maryland, Massachusetts, Nancy, Paris, Rochester, San Diego, University of South California, Virginia, Washington eta abarretan.

Hamarkada honetako bigarren erdialdean, gainera, Gobernu eta Uztardura delako teoriak (GB ingelesez) hartu dituen bide berriek "modan" jartzea ekarri dute (bere morfologia aberatsa dela eta) euskararen azterketa. Are gehiago, euskararen beraren azterketa ere lagungarri etorri zaio teoria orokorraren aitzinamenduari. Itziar Lakaren "Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque" izan daiteke diodanaren adibide bat.

Ortiz de Urbinaaren tesia argitara den tokian argitaratzea (Foris etxearen bertan, denik eta ospetsuenean), euskal gramatikari buruzko beste zenbait lan ere atzemiko lehen mailako argitaletxe eta aldizkaritan ateratzea, Euskal Herrian berton ASJUh eus-

kaldun eta atzerritarrek plazaratzen dituztenak edota, hizkuntzalitzako ikastaroen barnean, Paris eta Massachusettsen euskararen inguruan saioak antolatzea gorago aipatu den nazioartekotasunaren bermatzaile argi dira.

Artean Gramatika tradisionalak edo estrukturalistak ukitu ere egin gabeko hainbat arlo jorratzeaz gain, zaharrak berritzea ere ekarri dute ikerlan hauek. Lehendik ere ezagun genituen gaiak ikuspegi eta erizpide berriz aztertzea, alegia. Galdegaia, hitz-ordeña, ergatibilitatea, konfigurazionalitatea, anaforak, komunzadura, nahasketa (scrambling) eta, batez ere, inflexioaren egitura eta morfologiaren eta sintaxiaren arteko lotura izan dira ikertzai-leen arreta berenganatu duten gaietako batzuk.

#### 4. Hiztegigintza

Euskara batuaren garapenak eta, batez ere, euskarak oraintsu arte itxirik izan dituen zenbait esparrutan (administrazioa, irakaskuntza, komunikabideak...) sarbidea izateak eragin zuzena izan du hiztegigintzan. Mota —eta kalitate— guztietako hiztegiak azaldu dira azken urteotan: euskara hutsez, euskara/erdara, sinonimo eta antonimoenak, irakaskuntzako maila ezberdinetara egokituak... Hemen ere ezin guztiak banan-banan aipatu eta sail nagusi zenbait egitera mugatuko naiz:

4.1. Biziki ugaldu dira aspaldi honetan idazle edo izkribu jakin batzuk buruzko hiztegiak. ASJU aldizkarian agertu da horietako asko. Bertan daude José Ramón Zubiaur eta Jesús Arzamendiren "El léxico vasco de los refranes de Garibay" (1976), Arzamendi beraren eta Miren Azkarateren "Léxico de los refranes de B. de Zalgiz" (1983), M<sup>a</sup> Jesús Soto Mitxelenaren "El Ilexicón de *Refranes y Sentencias* de 1596" (1978-79), Angel Zelaietaren "Peru Abarca-ren Hiztegia" (1978-79) eta Joseba A. Lakarraaren "Betolazaren Hiztegia" (1981) nahiz "Barrutiaz gehiago. Hiztegia" (1982).

Multzo honetan sar genezake Jesús Arzamendiren *Términos vascos en documentos medievales de los siglos XI-XVI*. Baita, jakin, Luis Villasanteren *Axular-en biztegia* nola Patxi Altunaren *Etxeparereren biztegia*.

P. Altunari berari zor diogu, gainera, Aita Larramendik burututako euskara/gaztelania hiztegiaren eskuizkribua argitaratu izana. L. Villasanteri, berriz, Añibarroren *Voces bascongadas-en argitalpena* eta K. Mitxelena/M. Agudi gorago (1.1.) aipatutako Landuchiorenaren.

4.2. Herri edo eskualde jakin bateko hiztegiak ere plazaratu dira. *Euskera aldizkarian argitaratu zen Toribio Echebarriaren Lexicón del euskera dialectal de Eibar* lan eder eta aberatsa. Aldizkari berean, orobat, Echebarriarena bezain oso ez izanik ere, Dialektologiarako interes handiko diren beste hauek: Alfonso Irigoyenek argitara emandako "Vocabulario baztanés de J. Bta. Gorosurrieta" (1962), José M<sup>º</sup> Aspirozen "Naparroako Leitz-e-n bildutako itz-bilduma" (1963-64 eta 1967), Juan Goikoetxearen "Loyola inguruan osatutako iztegitxoa" (1967) eta Mariano Izetaren "Baztango hiztegi itipia" (1985).

BAP aldizkarian argitaratu ziren K. Mitxelenaren "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte" (1958), Francisco Ondarraren "Voces vascas de Bacai-coa" (1965) eta Kandido Izagirreren "Tolosako euskeraren iztegi-rako gaiak" (1967).

K. Izagirrek berak, ohizkoa zuen zeliaztasunaz, burutu zuen *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*.

Eremu zabala goa hartzen du, Zuberoa osora hedatzen da eta, Junes Casenavek oraindik orain argitara eman duen *Hiztegia français-euskara* delakoak. Nolanahi ere, ez digu Jean Larrasquetcen *Le basque de la Basse-Soule Orientale* bikain hura ahazterazi.

Ez genituzke arbuiatu eta alde batera utzi behar —sarriegi egin ohi dugunez— dagoeneko euskara galdurik den herriean

osatutako hiztegiak. Askok uste baino interes (sozio)lingüistiko handiagoa izan dezakete tankera honetako lanek.

Emiliano de Arriagaren *Lexicón bilbaíno* aspaldiko hura izan daiteke denen aintzindari. Aztergai dugun epean koka ditzakegu José M<sup>a</sup> Iribarrenen *Vocabulario navarro* eta guretzat are interesarriagoa —euskar jatorriko edo euskaratik iragandako hainbat hitz dagoelako bertan bildurik, interesarriagoa— den *Adiciones al vocabulario navarro*. Azpimarragarriak, halaber, Gerardo López de Guereñuren "Voces alavesas" eta "Más voces alavesas".

Eta hizkuntzen arteko interferentziez mintzo naizenez, aipa dezadan —izenburuak adierazten duena baino zabalagoa bada ere bere edukina— Gotzon Garateren *Erdarakadak* izenekoa.

4.3. Noan orain hiztegi arruntak, nolabait izendatzearren, aipatzera. Benetan ere urrats galantak egin dira arlo honetan. Horren lekuko dira Xabier Kintana, Luis M. Mujika eta, bereziki, Plácido Mujikaren hiztegiak, baina, labur zurrian, honako hirurok azpimarratzera mugatuko naiz:

- Koldo Mitxelena / eta beste /, *Orotariko Euskal Hiztegia*

Mitxelenari agindu zion Euskaltzaindiak Azkueren hiztegia osatzeko eta egokitzeko ardura. Egiteko honetan eman zuen bere bizitzako zati handi bat eta *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue* da horren frogatza ezin hobea. 300.000 fitxatik gora omen zeuzkan bilduak zendo zenean. Hil aurretik, baina, lan neketsu horri buru eman abal izateko talde bat osatzea lortu zuen Ibon Sarasola lagun zuela. Taldelan horri esker, lau dira, dagoeneko, plazaratutako aleak.

Lau aleoi so eginik, berau bihur daiteke sekula guztian izan den euskal hiztegirik osoen. Zehatz-mehatz erakusten dira hitz bakoitzaren antzinatasuna, hedadura, erabilera eta adiera ezberdinak. Eta hori aski ez balitz, erizpiderik modernoenez eraikia ere badago. Mitxelena bera baita Lexikografia alorrean izan dugun maisu buruzagia.

- Ibon Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*

Lau dira dagoeneko kaleratutako aleak. Hitz bakoitzari buruzko argibide guztiak (antzinatasuna, hedadura, maiotasuna, erabilpen esparruak...) eskaintzen dira hemen ere. Erizpide modernoz eta euskara hutsez egina. Ez, ordea, aurreko bezain zabala eta horrexegatik, beharbada, euskaldun arruntarentzako erabilgarriagoa. Hiztegi arauemailea, Arantzazuko Erabakiak jauritzen dituena, dugu, gainera, Sarasolaren hau eta alde honetako ere, beraz, euskaldun arruntaren mesedetan datorrena.

- Elkarlanean, *Diccionario Retana de Autoridades del Euskeria*

Hitz-altxor ikaragarria eta urte luzeetako lanaren emaitza honako hau ere. Ezinbestekoa euskal lexikografian. Damurik, baina, aurreko hiztegi biak direla eta, azpimarratu ditudan ezaugarrieta (hitz bakoitzari buruzko argibideak eta erizpide metodologikoak oro har) nahikoa motz gelditzen da honako hau.

4.4. Hiztegi berezituei bagagozkie, honako hauek aipatu behar:

- Antonio Tovar eta Manuel Agud, *Diccionario etimológico vasco*

Euskal hitzen etorkia asmatzeko grina bizia izan da gure artean. Bakoitzaren irudimenaren arabera, ateraldi xelebreen ondoan makina bat zentzugabekeria esan eta idatzi da bazterretan eta Hiztegi honetan aurki ditzake bildurik irakurleak horrelako asko.

Garbi dago, baina, irudimencan barik, hizkuntzazko erizpide zorrotzetan eta eskura ditugun datu ororen azterketan datzala auzi hauen askabidea.

- UZEI hiztegiak

1976an *Natur Zientziak biztegia* plazaratu zenetik, bide luzea egin du talde honek. 30etik gora dira, dagoeneko, argitara emanak, ia sailik gehienak (Fisika, Kimika, Psikologia, Hizkuntzalaritza, Politika, Kirola...) jorratu dituztelarik. Eztabaidagarriak izan daitezke sarritan proposatutako irtenbideak, baina ezin uka,

hala ere, euren balio eta erabilgarritasuna. Interesgarria, halaber, hiztegi teknikoen arazoez plazaratutako lan teorikoa: *Maileguzko bitzak. Ebakera eta idazkera*.

4.5. Eta lan teorikoak aipatu direnez, ezin isildu sail honetan eginiko aurrerapen apur baina trinkoak. K. Mitxelena izan da honetan ere bide-urratzaile. Haren lanetatik, ondoko hauei deritzet azpimarragarri:

- "De Lexicografia Vasca"

Villasantek paratutako *Axular-en* hiztegia aztergai izanik egin zituen ohar eta iruzkinak daude bertan. Ohar jakingarriak eta mota honetako lanak egin nahi dituenak nahitaez aintzakotzat hartu beharrekoak.

- *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*

Azkueren hiztegiko hitzen iturburua zein ote daitekeen, iturburu horretatik Azkuerengana iritsi bitartean jasandako gorabehera eta aldaketak... zehaztea da lari honen xede nagusia. Tan-kera honetako ikerlanak behar beharrezkoak badira ere, ez dira oso arruntak euskal lexikografian. Nabarmen ageri da, bestalde, Azkueren hiztegiaz ezezik, euskal hiztegintzaz oro har ere Mitxelenak zeukan jakituria zabala.

## 5. Fonetika eta Fonología

Ez da hau lar landua dugun iker-eremua. Txillardegiri zor diogu oraingoan ere gai hauek era erraz eta lauean adierazi iza-na. Beraren *Euskal Fonología* izeneko zabalkunde-lana sarrera eta abiaburu egokia gerta dako ke arlo honetan murgildu nahi duenari.

Beste maila batera iraganez, erabakiorra suertatu da Mitxelenak burututako ikerlana. Horren lekuko ditugu arrestian (2.3.) aditzera emandako "La posición fonética del dialecto vasco del

Roncal" eta "Notas fonológicas sobre el salacenco", baina orain beste hauxe azpimarratu nahi nuke:

- *Fonética Histórica Vasca*

Mitxelenaren Doktorego Tesia dugu lan erraldoi hau. Aldi eta alde guztietako euskara da bertan aztergai. Euskal Fonología diakronikoaren gailurra jo duen lana ezpairik gabe, 1961ean argitaratu zen lehenengoz eta 1977an, euskal azentuari eskainitako bi atal berri erantsi zizkiolarik, bigarrenez.

Bestetan ere mintzatu zen azentua dela eta, hala nola "A Note on Old Labourdin Accentuation" eta "Acentuación Alto-Navarra" lanetan.

80ko hamarkadan zehar, guztiz maila ona erakusten duten lanak argitaratu dira Fonologi alorrean. Lehenago ere bazen, izan, ekarpen aipagarritik. Azpimarratzekoak dira, esate baterako, Rudolf de Rijk-en "Vowel interaction in Bizcayan Basque" eta Karmele Rotaetxeren *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*.

Hamarkada honen barruan, aldiz, honako hau da azpimarragarri:

- Pello Salaburu, *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia*

XX. mendearren lehen erdialdean Navarro Tomásek, Amado Alonsok eta Jean Larrasquetek plazaratutako ikerlanez gerotzik ez zen espektrografía eta palatografiaren erabilera zabalegirik egin gurean. Bitarteko tekniko hauetaz eta 1968ko Chomsky eta Halle-ren teoriez baliatuz egin zuen Salaburuk Baztango hizkeraren azalpena. Guztiz oker ez banago, gainera, berau da euskara hutsian aurkeztutako lehen Doktorego Tesia eta honek ere badu, jakina, bere esangura berezia.

Aipagarria, berebat, H. Urrutia, M. Etxebarria, I. Túrrrez eta J.C. Duquek argitara emandako *Fonética Vasca. Las sibilantes en el vizcaíno*.

Maila handikoa José Ignacio Hualderen Doktorego Tesia: *A Lexical Phonology of Basque*. Une hauetanxe pil-pilean dauden erizpide eta teoriak geureganatzearkin batera, euskal azentuari buruzko ikuspegi berria ere eskaintzen digu berton.

Maila handikoak, halaber, Hualdek berak berrikitan argitara eman dituen "Tone and Stress in Basque: A Preliminary study" eta "Acentos vizcaínos".

Eta azentuaz ari garela, nahitaez aipatu behar Txillardegiren *Euskal Azentuaz* izeneko Doktorego Tesia.

Argitaratzeak dagoen Pilartxo Etxeberriaren eta argitaratu berri den Lourdes Oñederraren Doktorego Tesiak ere Fonetika/Fonologiaren arlo honetan nabari den hutsunea betetzen datoz nonbait.

## 6. Soziolinguistika eta Hizkuntzaren soziologia

Euskarak, bizirik iraungo baldin bazuen, etengabeko burukari eutsi behar izan dionez, mendeetan zehar hamaika oztipo eta debekuri aurre egin beharra ere izan duenez... bidezkoa litzateke pentsatzea, Soziolinguistika eta Hizkuntzaren soziologia bezalako arloak oso garatuta daudela gurean. Ez da ordea hala, dagoeneko maila handiko zenbait lan agertu bada ere:

6.1. Erabilera zabala du gurean "Soziolinguistika" hitzak, beronen barruan mota eta joera guztiak lanak biltzen ditugularik. Zenbaiten eritziz, ostera, elkarren ondoan eta elkarrekin lehian diharduten hizkuntzen arteko eragin eta interferentziak aztertzen dituen iker saila izendatzeko erabili beharko litzateke soil-soilik hitz hori. Eritzi honekin bat etortzen, hauexek lirateke esparru honetan sailkatu beharreko lanak:

- Ana M<sup>a</sup> Echaide, *Castellano y vasco en el babla de Orio*

Hauxe da, oso oker ez banago, gure artean, eta sail honen barruan, nolabaiteko sakontasunez plazaratutako lehenbiziko

ikerlana. Lehena eta, agian, hoberena ere bai. Atzerrian emandako urratsak gertu-gertutik jarraitzen zituela erakutsi zuen Echaidet, teoria eta azterbide horietaz, bera, Orioko hizkuntz eraginak isladatzeko baliatu zelarik.

Honen ondotik iritsi ziren Mikel Zarateren *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierri* nola Maitena Etxebarriaren *Sociolingüística urbana. El habla de Bilbao*.

Multzo honetan sartuko dugu, aurrekootatik pitin bat saihesten bada ere, M<sup>a</sup> José Azurmendiren *Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián*.

Arc gehiago saihesten dira Nafarroa Garaiko iraganaren berri izateko lagungarri ditugun Fernando González Ollé-ren "La lengua occitana en Navarra", "Vascuence y romance en la historia lingüística de Navarra" eta "El romance navarro".

Gorago (4.2.) aurreratu legez, badute Soziolinguistikarekin zerikusirik E. de Arriaga, F. Baraibar, J.M<sup>a</sup> Iribarren edo G. López de Guereñuk bildutako hiztegiak ere.

Atal honetan kokatuko nuke, azkenik, Margarita Ricoren "Traducción en basque de termes politiques sous la Révolution".

6.2. Hizkuntzaren soziologjari lotuago ikusten dut, nik neuk, ondoren datorren lan zerrenda:

Tamalez, ez da oraindik euskararen historia orokorra burutu. Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean antolatu zen *Euskararen Liburu zuria*-n aurki ditzakegu historia burutugabe horren hari nagusiak eta berau da, oraingoz, ikuspegirik zabalena eta osotza eskaizten duena.

Osotasun horixe zuen helburu Joan Mari Torrealdairen *Euskal idazleak, gaur liburukote mardulak*. Euskal hizkuntza eta literaturari buruzko makina bat albiste badago bertan jasorik.

Epe laburragoa eta, horrenbestez, sakontasun handiagoz, arakatu zuen Torrealdaik berak "Euskararen zapalkuntza (1936-1939)" lanean. Euskararentzako bereziki beltzak izan ziren urte haietan Frankismoak ezarritako hizkuntz politika —egun ere hein hantz bizirik dirauen berbera— da lan honetan ikergai.

Nafarroa Garaian euskararen i(ra)kaskuntzak bizi duen egoera zehatz-mehatz aztertzen da Pakita Zabaletaren *Euskal irakas-kuntza Nafarroan. Normalizaziorako oinarriak* deitu liburuan.

Euskararen historia horren alderdi jakin bat, bere osotasun guztian, da Koldo Zuazoren *Euskararen batasuna. Iker 5* liburuaz aztergai. XVI. mendean hasi eta geure egunok arte batasuna eragotzi eta atzeratu duten arrazoia, euskaldunok euskal-kienganako agertu ditugun jarrerak, batasunari begira honainoko guztian egin diren proposamenak eta euskal ortografiaren historiaren urratsik erabakiorrenak erakusten dira Doktorego Tesi honetan.

6.3. Leku berezia bereganatu du José M<sup>a</sup> Sánchez Carrión "Txepetx"-ek esparru honetan. Bera dugu, zalantzarik gabe, Euskal Herrian egiten ari diren ikerlanen zutabe eta bultzatzaile nagusi. Atzerriko egoera eta esperientzien berri zehatza izateaz gain, bertotik segitzen du gure herriaren abiadura.

Herri honen izaera eta euskararengan eragina zuten indarrak aztertzea izan zen, hain zuzen, Andaluzian hazitako hizkuntzalari honen lehen egitekoa. Nafarroa Garaia, bere luze-zabalera osoan, miatu zuen horretarako, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970) izan zelarik horren emaitza.

Eremu murritzagoa izan zuen beste saio bateko aztergai: "La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka)".

Harrez gero, euskararen normalizazioari begira oinarri teoriakoak sortzeari eta zabaltzeari ekin dio etengabeko ahaleginean. Artikulu-sorta ugaria idatzi du, nabarmenenak hiru hauek begitzen zaizkidalarik: "Bilingüismo, Diglosia, Contacto de lenguas", "El marco sociológico y espacial de una situación bilíngüe" eta "La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas".

Hiru liburu ere plazaratu ditu. Lehena, *Lengua y Pueblo*, ahalik eta irakurleko zabalenari dago zuzendua. *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkarian argitara emandako lanen bilduma dugu.

Ondorengo biak beste maila batean eginak eta beste maila bateko irakurlegoari zuzenduak daude: *El espacio bilingüe* da bata eta argitaratu dituenen artean osoena eta landuena den *Un futuro para nuestro pasado* bigarrena.

## 7. Koldo Mitxelenaren eragina

1960-90 bitarteko Euskalaritzaz dihardugula, behin eta berriro azaldu zaigu K. Mitxelenaren izena. Azaldu ere, gainera, ia sail guztietau azaldu zaigu eta betiere oinarri-oinarritzko ziren lanekin: Landuchioren hiztegiari jarritako Hitzaurrea, *Textos arcaicos vascos*, *Lenguas y Protolenguas*, *Zenbait bitzaldi*, *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, *Fonética Histórica Vasca...* dira aipatu direnetariko zenbait. Bazen-azpimarratzea merezizukien besterik ere, *Apellidos vascos* edo *Historia de la Literatura Vasca* liburu ezagunak esate baterako.

Izan ere, 1950 ingurutik —bere lehen lanak plazaratu ziren une beretik— hil arte (1987) Euskalaritzaren zutabe eta ardatz izan zen Mitxelena. Jakituria zabal eta sakoneko gizona, langile porrokatua eta euskaltzale zintzoa ere bazenez, euskarari buruzko makina bat lan bikain utzi zigun. Beraren izkribuak izan genituen, hain zuzen, Euskal Filologiako Fakultaterik ez zen garaietako erreferentzigune nagusi.

Mitxelenaren ekarpena ez da ordea —ez eta hurrik eman ere!— goian aipatu liburuotara mugatzen. 40 urte luzetan zehar hainbat artikulu ere idatzi zuen eta orain, Elkarte eta Erakunde ezberdinei esker, lau lan-bildumatan eskura ditzakegu:

- *Lengua e Historia*

35 artikuluren bilduma. Hizkuntzalaritza orokorra, Hizkuntzalaritza historikoa, hizkuntzaren soziología, euskara eta gainerako hizkuntzen arteko ahaideasunak... dira, batipat, jorratzen diren gaiak.

- *Palabras y Textos*

26 lanez osatutako liburua. Euskararekin zerikusi zuzena dutenak guztiak ere. Toponimia eta onomastika, filología, dialektoología eta fonología buruzko lanak aurki ditzakegu, besteak beste, bilduma honetan.

- *Sobre historia de la lengua vasca*

95 artikuluz gain, 1964ean argitaratu zuen *Sobre el pasado de la lengua vasca* xarmant hura ere bildu zaigu bi liburuki mardul hauetan. Euskararekin zerikusia dutenak denak, hauek ere. 95 lan hauen artean, bada noski, nahi adina aukera. Hor dago, esate baterako, 1968an euskararen batasunerako atondutako txosten. Hortxe, lexikografiaz, dialektologiaz, filologiaz, literaturaz... dihardutenak ere.

- *Euskal idazlan guztiak*

Mitxelenak euskaraz idatzi zituen lanak jaso dira 9 liburuki hauetan. VI. eta VII.a dira Hizkuntzalaritza gaiekin zuzen-zuzenecan lotuak.

## 8. Aldizkari eta lan-bildumak

8.1. Euskalaritza-eremuan diharduten aldizkarien artean honako hauek dira sendoenak:

- *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* (ASJU)

Gipuzkoako Foru-Aldundiaren babesarekin ateratzen den aldizkari honek, 1967an hasi zuen bere ibilbidea. Aurretik, 1954

eta 1955ean, bi ale plazaratu ziren eta, ondoren, desagertu. Gurregun, hiru dira urtero ateratzen diren aleak.

1988ko 2. alean argitaratu zuen bere Aurkibide orokorra, hau da, sortu zenetik urte horretara bitartean argitara emandako lan guztien zerrenda.

Neurri bereziko lanak *ASJUren gebigarriak* deitu sailean argitaratu ohi dira, hala nola, José M<sup>a</sup> Lacarraren *Vasconia medieval. Historia y filología*, Landuchioren hiztegia, Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, etab. 15 dira dagoeneko sail honetan plazaratutakoak.

- *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País (BAP)*

1945ean plazaratu zen aldizkari honen lehen alea. Ondoko urteetan, Euskalaritzari dagokion lan ederrik anitz argitaratu zen bere orrialdeetan. 1970 inguruan ezar dezakegu etena. Harrez gero, hagitz murriztu da gai honi eskainitako tarteak. Aurkibide orokorrak ere 1970 horretan aurkeztu ziren.

- *Euskera / Iker / Onomasticon Vasconiae*

Euskaltzaindiaren agerkaria da *Euskera*. 1919-36 bitartean argitaratu ondoren, gerratea zela eta, isilune luzea jasan zuen, harik eta 1956an atzera ere argitaratzeari ekin zitzzion arte. Bi dira urtero plazaratzen dituen aleak. Aurkibide orokorra 1979ko 1. alean aurkeztu zen.

Aldizkari honetan, dena dela, Euskaltzaindiarekin edozein motatako zerikusia duten gai guztiak (barne-agiriak, diskurtsoak...) dute lekua. Hizkuntzalaritzarekin zuzencan lotuak, *Iker* sailean argitaratzen dira. Bost dira dagoeneko plazaratutako aleak. Aipamen berezia dagokie lehenari (Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak txostenak biltzen dituenari) eta bigarrenari (P. Lafitteren omenez burututakoari).

Oraindik orain, sail berri bat urratu da toponimi lanak bideratu asmoz: *Onomasticon Vasconiae*. Bost dira hemen ere argitaratutako aleak.

- *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*

Nafar Gobernuari atxikirik dagoen "Príncipe de Viana" Elkartea da aldizkari honen arduradun. 1969an sortua, bi ale plazatzen ditu urtero. 1985ean kaleratu zuen bere Aurkibide orokorra.

- *Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV) / Hizkuntza eta Literatura*

Lehen aroan (1907-36) Hizkuntzalaritza eta Filologiari buruzko goi-mailako lan franko argitaratu bazeen ere RIEVen orrialdeetan, ezin beste horrenbeste esan bigarrenaz (1983tik geroztikoaz) den bezainbatean. Bi dira urtero kaleratzen dituen aleak eta Aurkibide orokorra (1983-88 bitarteko) 1989ko 2. alean erakutsi zen.

Hizkuntzalaritzari lotuago clauden lanek Eusko Ikaskuntzak berak sortutako beste aldizkari baten dute lekua, *Hizkuntza eta Literatura* delakoan, alegia. 9 dira bertan kaleratu diren aleak.

- *Jakin*

1956an sortutako aldizkari honek gorabehera handiak izan ditu bere ibilbidean. Tarteka-marteka isilaldi zenbait jasan ondoren, 1977az geroztik dugu ostera ere plazan eta urtean sei ale kaleratzeraino iritsi da. Aurkibide orokorra 1981ean, 21. zk., aurkeztu zuen.

Berez zabalkunde aldizkaria den arren, Hizkuntzaren soziología eta Soziolinguistikarekin zerikusia duen lan asko argitaratu da haren orrialdeetan. Gai hauei berariaz eskainitako aleak ere izan dira, 7, 19-20, 24, 26-27, 32, 34, 42-43 eta 56.a esate baterako.

Atzerriko aldizkari zenbaitetan ere izan du euskarak bera txokoa, ondoko hauetan batipat: *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris (BLS)*, Telosako *Via Domitia*, Estatu Batuetako *Journal of Basque Studies...*

8.2 Sail honekin amaitu baino lehen, elkarlanean eratutako liburuak ekarri nahi nituzke gogora. Arestian (3.2) esan denez, EHUn antolatutako Udako Ikastaroen ondorioz, bada dagoene-

ko argitara eman den liburu-sorta bat. Beste horrenbeste esan dezakegu UEUri dagokionez.

Deustuko Unibertsitateak, bere aldetik, *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak* izeneko lan eder bat plazaratu zuen.

1987an Donostian burutu zen II. Euskal Mundu-Biltzarreko txostenak bilduz, Eusko Jaurlaritzak atondutako hiru liburukietan ere bada, noski, gauza jakingarririk.

Lan galanta benetan K. Mitxelenaren omenez José Luis Meléndezaren ardurapean argitaratutako *Symbolae Ludovico Mitxelena*. Orobata Joseba A. Lakarraren ardurapean argitaratzear dagoen *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*.

Argitaratu berri dago, bestalde, Elixabete Pérez eta Patri Urkizuren ardurapean antolatu den *Patxi Altunari omenaldia*.

Aipatu, azkenik, J.I. Ruiz Olabuenagak eta J.A. Ozamizek, Getxon 1984ean buruturiko ihardunaldiako txostenak bilduz, osatu zuten *Hizkuntza minorizatuen soziología*.

K. Z.

## 9. Argibide bibliografikoak

- Altuna, P.: (argit.), "Larramendiren biztegi berria", Euskera, XII, 139-300. or., 1967.
- Altuna, P.: *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*, Bilbao, Mensajero, 1979.
- Altuna, P.: *Ecbepareren biztegia. Lexicón decbepariano*, Bilbao, Mensajero, 1979.
- Altuna, P.: *Linguae Vasconum primitiae. Edizio kritikoa*, 1980, 2. argit., Euskaltzaindia, "Euskanaren Lekukoak" saila, 2. zk., 1987.
- Aníbarro, Fr.P.A. de: *Voces bascongadas* [L. Villasante, argit.], Bilbao, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, 1963.
- Arriaga, F. de: *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaíno neto*, 1896, 2. argit., ositua, Madrid, Minotauro, 1960.
- Artola, K.: "Erronkariko uskararen azken batsak... etno'ref", FLV, IX (1977), 25. zk., 75-107 or.; XII (1980), 34. zk., 49-85 or.
- Aezamendi, J.: *Términos vascos en documentos medievales de los siglos XI-XVI*, EHU, 1985.
- Azkarate, M.: *Hitz elkartiak euskarak*, Donostia, EUTG-Mundaiz, 1989.

- Azurmendi, Mº J.: *Elaboración de un modelo para la descripción sociolingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián* (3 liburuki), Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kultxa Probintziala, 1983.
- Casenave-Harigile, J.: *Hiztegia français-euskara*, Ozaze, Hitzak, 1989.
- Echaide, A.Mº: *Castellano y vasco en el habla de Orio*, Iruñea, Diputación Foral de Navarra, 1968.
- Echaide, A.Mº: (argit.), *Erizkizundi irukoiiza*, Iker 3 (bi liburuki), Euskaltzaindia, 1984.
- Echaide, A.Mº: "El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-1967)", Eusko Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura, 8. zk., Donostia, 1989.
- Echebarria, T.: "Lexicón del euskera dialectal de Eibar", Euskera, X-XI (1965-66), 2. argit., Euskaltzaindia, 1986.
- Echenique, Mº T.: *Historia lingüística vasco-románica. Intento de aproximación*, 1984, 2. argit., zuzendua eta osatua, Madrid, Pataninfo, 1987.
- Etxebarria, M.: *Sociolingüística urbana. El habla de Bilbao*, Acta Salmanticensia, Universidad de Salamanca/Universidad de Deusto, 1985.
- Etxebarria, M.; Urrutia, H.; Túroza, L.; Duque, J.C.: *Fonética Vasca I. Las sibilantes en el vizcaíno*, Universidad de Deusto, 1988.
- Eguzkitza, A.: *Topics on the Syntax of Basque and Romance*, UCLA, 1986 (Doktorego Tesi argitaragabea).
- Elkarlanean: *Euskal Lingüistika eta Literatura: hode berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, 1981.
- Elkarlanean: *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* (9 liburuki), Bilbo, LGEV-D. Amaia, 1989.
- Euskaltzaindia: *Euskararen Liburu zuria*, Bilbo, 1977.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatikak. Lehen urratsak I-II eta Fransiskina*, Bilbo, 1985-1987.
- Euskaltzaindia: *Hitz-olkarketa (I)*, Bilbo, 1987.
- Eusko Jaurlaritza: *Euskara Biltzarra* (5 liburuki), Gasteiz, II Euskal Mundu-Biltzarra, 1989.
- Garate, G.: *Erdarakadak*, Bilbo, Mensajero, 1988.
- Goenaga, P.: *Gramática bideetan*, 1978, 2. argit., zuzendua eta osatua, Dionostia, Etelein, 1980.
- Goenaga, P.: "Complementación y nominalización en euskara", ASJU, XIX-2, 493-570 or., 1985.
- Goenaga, P.: (argit.), *Euskal sintaxietaren zenbait arazo*, EHU, 1986.
- González Ollé, E.: "La lengua occitana en Navarra", RDTP, 25, 285-300 or., 1969.
- González Ollé, E.: "Vascuence y romance en la historia lingüística de Navarra", BRAE, 50, 31-76 or., 1970.
- González Ollé, E.: "El romance navarro", RFE, 53, 45-93 or., 1970.
- Gorrochategui, J.: *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, EHU, 1984.
- Gorrochategui, J.: "Historia de las ideas acerca de los límites geográficos del vasco antiguo", ASJU XIX, 571-594 or., 1985.
- Haritschelhar, J.: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchabun (1786-1862)*, Baiona, 1969.
- HARITSCHELHAR, J.: *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchabun*, Euskera, XV, 1970.
- Holmer, N.M.: *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología euskérica*. ASJUren gehigarriak, 5. zk., 1964.

- Holmer, N.M.; Abrahamson, V.: "Apuntes vizcaínos", ASJU II, 87-141 or., 1968; III, 171-228 or., 1969; XI, 3-47 or., 1977.
- Hualde, J.I.: "Tone and Stress in Basque: A Preliminary study", ASJU, XX-3, 867-896 or., 1986.
- Hualde, J.I.: *A Lexical Phonology of Basque*, University of Southern California, Los Angeles, 1988.
- Hualde, J.I.: "Acentos vizcaínos", ASJU, XXIII-1, 275-325 or., 1989.
- Iribarren, J.M<sup>a</sup>: *Vocabulario navarro*, Iruñea, Diputación Foral de Navarra, 1952.
- Iribarren, J.M<sup>a</sup>: *Adiciones al vocabulario navarro*, Iruñea, Diputación Foral de Navarra, 1958.
- Irigoyen, A.: *De re philologica linguae vasconiae* (bi liburuki), Bilbao, 1985-1987.
- Irigoyen, A.: *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Universidad de Deusto, 1986.
- Izagirre, K.: "Erroniariko euskal-ondakin batzuk", BAP, XV, 279-314 or., 1959; XVII, 391-407 or., 1961.
- Izagirre, K.: "Ultzamako euskeraren gai batzuk", BAP, XXII, 403-467 or., 1966.
- Izagirre, K.: "Altsasuko euskeraren gai batzuk", ASJU, I, 45-97 or., 1967.
- Izagirre, K.: "Tolosako euskeraren iztegiruko gaiak", BAP, XXIII, 157-188 or., 1967.
- Izagirre, K.: *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes* [L. Villasante, argit.], ASJUren gehigarrriak, 7. zk., 1971.
- Lafitte, P.: *Grammaire basque. Navarro-labourdin littéraire*, 1944, 3. argit., osatua, Donostia, Elkar, 1979.
- Lafon, R.: *Le système du verbe basque au XVIe siècle*, 1943, 2. argit., Donostia, Elkar, 1980.
- Lafon, R.: "Contribution à l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)" in Miscelánea Homenaje a André Martinet "Estructuralismo e Historia" (II), Universidad de La Laguna, 77-106 or., 1958.
- Lafon, R.: "Remarques sur la structure des formes verbales du parler basque de Larrau (Haute-Soule)", Via Domitia, VIII, 133-148 or., 1959.
- Lafon, R.: "Schéma de la conjugaison dans le basque de Larrau (Haute-Soule)", Via Domitia, XII, 99-107 or., 1963.
- Laka, I.: "Hiperbizkaiaren historiaz", ASJU, XX-3, 705-754 or., 1986; XXI-1, 13-40 or., 1987; XXI-2, 409-424 or., 1987; XXI-3, 727-811 or., 1987.
- Laka, I.: "Configurational beads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque", ASJU, XXII-2, 343-365 or., 1988.
- Lakarra, J.A.: "Larramendiren biztegigintzearen inguruan", ASJU, XIX-1, 9-50 or., 1985.
- Lakarra, J.A.: "Bizkaieraz zabarra euskalkien artean", ASJU, XX-3, 639-681 or., 1986.
- LAKARIA, J.A.: (argit.), *Hiztegiak eta testucik*, EHU, 1988.
- Lakarra, J.A.: (argit.), *Memoriae I. Mitxelenia Magistri Sacrum*, ASJUren gehigarrriak, 14. zk., 1990.
- Larrasquel, J.: *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*, Paris, Klincksieck, 1939.
- Levin, B.: *On the Nature of Ergativity*, MIT, 1983 (Doktorego Tesi argitaragabea. Beronen bertsio eskuragarriago bat: "The Basque Verbal Inventory and Configurationality" in Maracz & Muysken (argit.), *Configurationality*, Foris, Dordrecht, 1988).
- López de Gereñu, G.: "Voces alavesas", Euskera, III, 137-367 or., 1958; XVIII, 119-149 or., 1973; XXVII-1, 239-248 or., 1982.

- Meleno, J.L.: (argit.), *Symbolae Iacobovico Mitxelena* (bi liburuki), EHU, 1985.
- Mitxelena, K.: *Apellidos vascos*, 1955; 3. argit., zuzendua eta osatua, Txertoa, Donostia, 1973; Facsim, 1989.
- Mitxelena, K.; Beloqui, J.J.; Elósegui, J.; Sansinenea, P.: "Contribution à l'omociamiento del dialecto roncalés", BAP, IX, 499-536 or., 1953; 2. argit., Sobre historia de la lengua vasca, 246-272 or.
- Mitxelena, K.: "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal", Via Domitia, I, 125-157 or., 1954; 2. argit., Sobre historia de la lengua vasca, 273-297 or.
- Mitxelena, K.; Agud, M.: (argit.), *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562), ASJUren gehigarriak, 3. zk., 1958 [Laster berrargitaratzekotan].
- MITXELENA, K.: *Historia de la Literatura Vasca*, 1960; 2. argit., Donosia, Ercin, 1988.
- Mitxelena, K.: *Primitiva Histórica Vasca*, 1961; 2. argit., zuzendua eta osatua, 1977; 3. argit., ASJUren gehigarriak, 4 zk., 1985.
- Mitxelena, K.: *Lenguas y Prinolengüas*, 1965; 2. argit., Universidad de Salamanca/Universitat Autònoma de Barcelona, 1986.
- Mitxelena, K.: *Textos arcaicos vascos*, 1964; 2. argit., ASJUren gehigarriak, 11.zk., 1990.
- Mitxelena, K.: "Notas foniológicas sobre el salacenco", ASJU, I 163-177 or., 1967; 2. argit., Palabras y textos, 221-234 or.
- Mitxelena, K.: *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, 1970 [2. argit. 1984, Euskaltzaindiak berrargitaratutako Azkueren hiztegiari erantzia].
- Mitxelena, K.: *Zenbait hitzaldi* [J.A. Letamendia, argit.], Bilbo, Mensajero, 1972 [Laster berrargitaratzekotan: Euskal Editoreen Elkartea, "Klasikoak" sortan].
- Mitxelena, K.: "A Note on Old Labourdin Accentuation", ASJU, VI 110-120 or., 1972; 2. argit., Palabras y textos, 235-244 or.
- Mitxelena, K.: "De Lexicografía Vasca", FLV, VI, 16. zk., 103-121 or., 1974; 2. argit. Sobre historia de la lengua vasca, 385-399 or.
- Mitxelena, K.: "Acentuación Alto-Navarra", FLV, VIII, 23. zk., 147-162 or., 1976; 2. argit. Palabras y textos, 245-260 or.
- Mitxelena, K.: *Lengua e Historia*, Madrid, Paraminfo, 1985.
- Mitxelena, K.: *Palabras y textos*, EHU, 1987.
- Mitxelena, K.: *Sobre historia de la lengua vasca* (bi liburuki) [J.A. Lakarra, argit.], ASJUren gehigarriak, 10. zk., 1988.
- Mitxelena, K.: *Euskal idazlan guztiek* (9 liburuki), Euskal Editoreen Elkartea, "Klasikoak" sorta, 1988.
- Mitxelena, K.; eta beste: *Oriolariko Euskal Hiziegia / Diccionario General Vasco* (dagoeneko 3 liburuki plazaratuak), Euskaltzaindia.
- N'Diaye, G.: *Structure du dialecte basque de Maya*, The Hague-Paris, Mouton, 1970.
- Ortiz de Urbina, J.: *Parameters in the Grammar of Basque*, Foris, Dordrecht, 1989.
- Oyarzabal, B.: *Les relatives en basque*, Université de Paris VII, Collection ERA 642, 1985.
- Oyarzabal, B.: "La Pastorale Soultaine. Edition critique de Charlemagne", ASJU, XXII-3 (1988) eta hurren.
- Rebuschi, G.: *Structure de l'énoncé en basque*, 1982; 2. argit., Paris, SELAF, 1984.
- Rebuschi, G.: "Pour une représentation syntaxique duale: Structure syntaxique multiple et structure lexical en basque", ASJU, XX-3, 683-704 or., 1986.
- Rico, M.: "Traduction en basque de termes politiques sous la Révolution", ASJU, IX, 3-172 or., 1975.

- Rijk, R.P.G.de: "Is basque an SOV language?", FLV, I, 5. zk. 319-351 or., 1969.
- Rijk, R.P.G.de: "Vowel interaction in Basque", FLV, II, 5. zk., 149-167 or., 1970.
- Rijk, R.P.G.de: *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MIT, 1972. (Beronen beste bertsio bat: "Relative Clauses in Basque. Agitated tour" in Parenteau, Levy & Phares (argit.), *The Chicago Witch Hunt: Papers from the Relative Clauses Festival*, Chicago Linguistics Society, 1972).
- Rijk, R.P.G.de: "Euskal morfologiaren zenbait gorabebera" in: Euskal Lingüística eta Literatura: bide berriak, 83-101 or.
- Rotaetxe, K.: *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*, Durango, Leopoldo Zugaza, 1978.
- Rotaetxe, K.: *Sociolingüística*, Madrid, Síntesis, 1988.
- Ruiz Olahuenaga, J.L.; Oramiz, J.A.: (argit.), *Hizkuntza minorizatuen sociología*, Donostia, TTartalo, 1986.
- Salaburu, P.: *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonología* (bi liburuki), EHU, 1984.
- Salaburu, P.: (argit.), *Euskal morfosintaxis eta fonología: eztabaida gatak*, EHU, 1987.
- Salaburu, P.: (argit.), *Sintaxi arazoak*, EHU, 1988.
- Salaburu, P.: (argit.), *Sintaxi teoría eta euskarrirri*, EHU, 1989.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: *El estado actual del vasqueno en la provincia de Navarra* (1970), Irúneta, Diputación Foral de Navarra, 1972.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: "Bilingüismo, Diglosia, Contacto de lenguas", ASJU, VIII, 3-79 or., 1974.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: "El marco sociológico y espacial de una situación bilingüe" in: La problemática del bilingüismo en el Estado español, ICE de la UPV, Leioa, 13-32 or., 1980.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: *Lengua y Pueblo*, Donostia, Elkar, 1980.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: "La Navarra Cantábrica (Maldá-erreka). Estudio antropolingüístico de una comunidad euskaldun", FLV, XIII, 37. zk., 19-98 or., 1981.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: *El espacio bilingüe*, Eusko Ikaskuntza, 1981.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: "La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas", Eusko Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura, 4. zk., Donostia, 327-345 or., 1985.
- Sánchez Carrón, J.M. ["Txepetx"]: *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*, Donostia, 1987.
- Sarasola, I.: "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes", ASJU, XI, 51-90 or., 1977.
- Sarasola, I.: "Nire / neure, zure / zeure: literatur tradizioan", Euskera, XXV-2, 431-446 or., 1980.
- Sarasola, I.: "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", ASJU, XVII, 69-112 or., 1983; 2. argit. ASJUren gehigarriak, 11. zk., 1990.
- Sarasola, I.: "Larramendiren eraginaz eta", ASJU, XX-1, 203-215 or., 1986.
- Sarasola, I.: *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia* (dagoeneko 4 liburuki plazara-tuak), Donostia, Gipuzkoako Kutxa.
- Satrustegi, J.M.: *Euskal testu zabarrak (I)*, Euskaltzaindia, "Euskararen Leku-koak" saila, 13. zk., 1987.
- Torrealdai, J.M.: *Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas*, Arantza, Jakin, 1977.

- Torrealdai, J.M.: "Euskararen zapalkuntza (1936-1939)", *Jakin* (1982), 24, zk., 5-73 or.
- Tovar, A.: *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid, Alianza, 1980.
- Tovar, A.; Agud, M.: "Diccionario etimológico vasco", ASJU, XXII (1988) eta hurren.
- Trask, R.L.: *Synchronic and Diachronic studies in the Grammar of Basque*, University of London (Doktorego Tesi argitaragabea).
- Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza]: *Euskara Batuet zertan den*, Arantzazu, Jakin, 1974.
- Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza]: *Oinarri bila*, Donostia, 1977.
- Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza]: *Euskal Gramatika*, Donostia, Ediciones Vascas, 1978.
- Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza]: *Euskal aditz batua*, Euskaltzaindia, 1979.
- Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza]: *Euskal Fonología*, Donostia, Ediciones Vascas, 1980.
- Txillardegi [J.L. Alvarez Enparantza]: *Euskal azentuaz*, Donostia, Elkar, 1985.
- Urkizu, P.: *Pierre d'Urteren biztegia* Londres 1715 (bi liburuki), Donostia, EUTG-Mundaiz, 1989.
- Urkizu, P.; Pérez, E. (argit.), *Patxi Altunari omenaldia*, Donostia, EUTG-Mundaiz, 1990.
- UZEL, *Maileguzko hitzak. Ebakera eta idazkera*, Donostia, 1982.
- Villasante, L.: *Gero*, 1964. 2. argit. Arantzazu, Jakin, 1976.
- Villasante, L.: *Axular. Mendea, gizonia, liburua*, Arantzazu, Jakin, 1972.
- Villasante, L.: *La declinación del vasco literario común*, Arantzazu, Editorial Franciscana, 1972.
- Villasante, L.: *Axular-en biztegia*, Arantzazu, Jakin, 1973.
- Villasante, L.: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Arantzazu, Ed. Franciscana, 1974.
- Villasante, L.: *Sintaxis de la oración compuesta*, Arantzazu, Ed. Franciscana, 1976.
- Villasante, L.: *Estudios de sintaxis vasca*, Arantzazu, Ed. Franciscana, 1978.
- Villasante, L.: *Sintaxis de la oración simple*, Arantzazu, Ed. Franciscana, 1980.
- Villasante, L.: *La oración causal en vasco*, Arantzazu, Ed. Franciscana, 1986.
- Yrizar, P. de: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (bi liburuki), Donostia, Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintziala, 1981.
- Zabaleta, P.: *Euskal irakaskuntza Nafarroan. Normalizaziorako oinarriak*, Iruñea, 1986.
- Zarate, M.: *Influencias del vascuence en la lengua castellana a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Gorriern (Gran Bilbao)*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.
- Zuazo, K.: *Euskararen batasuna*, Iker 5, Euskaltzaindia-EHU, 1988.
- Zuazo, K.: "Arabako euskara", ASJU, XXIII-1, 3-48 or., 1989.
- Zuazo, K.: "Zubereraren sailkapenerako", ASJU, XXIII-2, 609-650 or., 1989.

## **ENSAYO BIBLIOGRAFICO SOBRE LA VASCOLOGIA ACTUAL ESSAI BIBLIOGRAPHIQUE SUR LA BASCOLOGIE ACTUELLE**

*De la época anterior al objeto del estudio, el profesor Zuazo destaca revistas como Eusko-Jakintza, Gernika, Egan, Euzko-Gogoa y nombres propios como S. Altube, F. Krutwig y L. Villasante.*

*En la década de los 60 aumentan las publicaciones y se escriben trabajos más maduros; pero es sobre todo a partir de la creación de las Facultades de Filología de Deusto, de San Sebastián y Vitoria —sin olvidar las de Burdeos y Bayona— cuando la filología empieza a adquirir mayor importancia. Gracias a la Universidad, la lingüística ha pasado de manos de aficionados "euskalzales" a manos de gente del oficio, profesionales.*

*El autor analiza tanto los trabajos generales como las obras monográficas de mayor significación en los capítulos siguientes: historia del euskara y filología; dialectología; gramática y sintaxis; diccionarios; fonética y fonología; sociolinguística y sociología de la lengua. Destaca en todo ello la figura y la influencia de un hombre, L. Michelena.*

*En la parte final del artículo, el autor ofrece la ficha bibliográfica completa de los trabajos analizados en el texto y la amplía a obras y autores no mencionados por razones de brevedad.*

---

Antérieurement à cet essai bibliographique, le professeur Zuazo souligne des revues comme Eusko-Jakintza, Gernika, Egan, Euzko-Gogoa et des écrivains comme S. Altube, F. Krutwig et L. Villasante.

Dans les années 60, les publications augmentent et on écrit des ouvrages plus mûrs; mais c'est surtout à partir de la création des Facultés de philologie de Deusto, de Saint Sébastien et de Vitoria —sans oublier celles de Bordeaux et de Bayonne— que la philologie commence à acquérir une plus grande importance. Grâce à l'Université, la linguistique est passée des mains d'amateurs "euskalzales" aux mains des professionnels.

L'auteur analyse aussi bien les travaux généraux que les œuvres monographiques de plus grande signification dans les chapitres suivants; histoire de l'euskara et philologie; dialectologie; grammaire et syntaxe; dictionnaires; phonétique et phonologie; sociolinguistique et sociologie de la langue. Nous pouvons remarquer dans tout cela un homme: L. Michelena.

A la fin de l'article, l'auteur présente la fiche bibliographique complète des travaux analysés dans le texte ainsi que des œuvres et des auteurs non mentionnés pour des raisons de brièveté.

## Euskal Literaturaren azterketa 1960-1990

Jesus Maria Lasagabaster

Asko ugaritu dira azkenaldiotan euskal literaturari buruzko azterketa historiko eta kritikoak. Eta, interesarriago dena, kalitatezko aberaste garrantzitsua dagokio gehiagotze horri. Azpimarragarria da, bestalde, garapen honetan Unibertsitateak izan duen erabateko eragina; ikasleen tesinak eta tesiak, nahiz irakasleen ikerketak direla medio, Euskal Departamendua ditugu gaur egun euskara eta euskal literatura lantzeko eta aztertzeko lekurik ezinbestekoak. Beraz, euskal aldizkarietan edo euskal egunkarien literatur suplementuetan egunez egun egiten den eta espezializatua ez den irakurlego bati zuzentzen zaion diskurso kritiko horri erantsi behar diogu gaur egun kritika unibertsitarioaren mailan prestatzen ari diren azterketa kritikoak, orokorrak nahiñ monografikoak.

Hemen, egia esan, kokagu behar dugu goian aipatutarako kalitatezko arazoa: lan unibertsitario batek eskatzen duen maila zientifikoan eta rigurositatean. Horrela sartu dira, edo hobeto,

sartzen ari dira euskal ikerketa literarioetan eredu kritiko modernoak: estrukturalismoa eta semiotika, soziokritika eta harreraren estetika...

Orri hauen helburua euskal literaturaren azterketarako hurbilpen bibliografiko bat ematea litzateke: euskal literaturaren ikerketaren nondik-norakoa erakustea, oro har, nahiz generoko azterketari dagokionez.

Hautaketa baten emaitza da, noski, hemen proposatzen eta komentatzen diren liburuen zerrenda. Beraz, hautaketaren erizpideak berak adierazi eta justifikatu beharko nituzke lanaren hasieran.

Hemen egiten den aukera, jakina, ez da, nabari denez, posible zen bakarra; ez eta onena ere; nik egin dudan bezalako beste asko proposa liteke, zalantzak gabe. Horrexegatik, beste edozeinena bezain egoki eta onargarria da nirea.

Alde batetik, laburra izan behar zuen zerrendak, honelako lan bati dagokion bezala. Bestalde, literaturaren azterketan har daitezkeen objektu formalak eta ikuspegi metodologiko desberdinak kontutan izan behar ziren, lana bera zabaltzeko eta aberasteko: historia eta kritika, azterketa orokorrak eta partikularrak.

Baztertu egin ditugu azterketa monografikoak, hots, autore bakar batera mugatzen direnak. Eta kontutan hartu ditugunean, izan da, autoreaz gain, edo bera zela medio, aro edo genero bat ten ikuspegi orokorragoa ematen zelako; Txomin Agirre eta euskal nobelaren sorrera, Lauaxeta eta euskal poesintzaren eraberritzea dira adibiderik argienak.

Euskal literaturaren azterketeren nondik-norakoa ezagutzeko lagungarriak daitezkeelakoan idatzi dira orri hauek. Sistematizazio beharrari dagokio egiten den banaketa: hasteko, azterketa orokorenak, hots, historiak; gero, azterketa kritikoak; lehen atal batean, edozein aro eta mota tratatzen dutenak; gero, generoka, azterketa mugatuagoak, nobelagintza, poesintza eta teatroa. Bukatzeko, ahozko literatura.

## 1. Euskal literaturaren historiak

Euskal literaturaren historiak aipatuko ditut lehen atal honetan; ez guztiak, jakina, oso ugariak ez badira ere. Hala eta guztiz ere, ez da hautaketa erraza izango.

Orain arte idatzitako euskal literaturaren historiak erizpide desberdinaren arabera eginak ditugu eta erabilitako metodologiak ere desberdinak dira batzuetan. Hemen aipatzen direnak ez dira nahitaez onenak; gaurdaino egindakoaren adibide adierazgarri bat izatea izan da hautaketarako erizpidea; eta, bestalde irakurleko aukera ematea euskal literaturaren historiografiaren nondik-norakoa nolabait ezagu dezan eta euskal literatura bera eta bere garapen historikoaren ikuspegia sakon, eta neurrien batean, hobeago dezan.

### 1.1. Koldo Mitxelena, aintzindari eta maisu

Kronologikoki lehena eta oraingoz kalitatez onena Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca*, 1960an argitaratua eta 1988an berrargitaratua.

Laburpen bat azaldu zen 1958an, G. Díaz Plaja-k zuzendutako *Historia General de las Literaturas Hispánicas* delakoaren bostgarren liburukian.

Bigarren edizioa zela eta, autorearen asmoa izan zen azken hamarkaden euskal literaturari buruzko azterketatxo bat erantza berrogeitahamar urteetan bukatzen den lehen berisioari. Tamalez, herioak eragotzi zion eta testua zen zenez azaldu zen.

Jakin badaki Mitxelenak bere historia idaztean zernolako materialak erabil ditzakeen eta zer esan daitekeen eta zer, aldiz, ez, euskal literaturaren historia batek eskatzen duen rigurosotasuna gorde nahi baldin bada. Ez da benetan eraberritzalea Mitxelenaren historia, ez metodoan ez eta garapen eta bilakaera literarioa azaltzeko moduan ere. Baino ez da mugatzen datu, autore eta testuen, sistemarik gabeko pilatze empiriko batera, kronologikoki bada ere, gure literatur historiografian maiz gertatzen den bezala.

Aipagarria da, bestalde, euskal literaturaren historia artikulatzeko autoreak erabiltzen duen erizpide nagusia. Euskal literaturaren ezaugarririk nabarienetako bat bere "atipizitatea" bada ere, ezin daiteke beraz pentsa harremanik ez dagoenik inguruetako sistema literario eta kulturalekin. Berantkor dugu idatzitako euskal literatura, euskararen beraren egoera soziolinguistikoari atxikituz, baina, hala eta guztiz ere, mendebaldeko kultur sistemiari dagokio eta, beraz, analogia handia du berarekin. Dena den, ezin dakizkioke mekanikoki euskal literaturari eta bere garapen eta bilakaera historikoari aplika literatura nagusietan aplikagarriak diren eredu berberak. Bi arriskuon erditik pasa da Mitxelenak hartutako erizpidea. Berak dioenez, "con medidas de curso internacional" saiatzen da autorea, besteak beste, euskal literatura eta bere gorabehera historikoak neurtzen.

Aintzindari eta maisu dugu honetan ere Koldo Mitxelena. Egia esan, berak aztertzen ez duen zenbait arazo aztertea eska-tuko luke historia literario sakon eta oso batek. Baina, zutik dago oraindik. Mitxelenak alor honetan duela hogeitahamar urte csandako guztia.

Agian, bertatik abiatu dira haren ondotik egindako beste historiak; eta, tamalez, arazoa hobetu gabe, ez bait da hain simplea Mitxelenak zuen euskararen eta euskal testuen ezagupen zabala eta zorrotza izatea.

## 1.2. Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*

Eskertu behar diogu Ibon Sarasolari euskal historiografia literarioa eraberritzeko egin duen ahaleginagatik, nahikoa pobrea izan bada ere emaitza.

Hemeritzigarren mendeko positibismo historikoari bi aukera nagusi kontrajartzen zaio gaur egun, literaturaren historiari dago-kionez: bata da ikuspegi formalista; honen eritziz, literaturaren garapen historikoa eta aldaketak barneko legeen arabera gertatzen dira, sistema literarioari bereziki dagozkionak hain zuzen. Marxismoa da bigarren aukera metodologiko eta ideologikoa.

Marxismoarentzat gainegiturari edo superestrukturari dago-kio literatura, eta horrenbestez gizartearen azpiegitura ekonomikoak baldintzaturik sortzen eta garatzen da. Testuinguru honetan aztertu eta esplikatu behar da literatura, gizartearekiko harreman-sistema barruan: soziala da, nahitaez, literaturaren historia, edo agian ez da ezer.

Ikuspuntu honetan kokatzen da literaturaren historia soziala, estriktoki analisi marxistaren arabera egiten ez den kasuetan.

Ildo honetatik doa Sarasolaren lana: egin behar zen euskal literaturaren historia soziala modan egoteko, edo eredu berriren bat saiatzeko, bera dugu ausartu den lehena; lan interesgarri eta higienikoa izan da, alde honetatik begiraturik.

Baina praktikan, euskal literaturari buruz ematen den interpretazio sozio-historikoa erabat mekanizista da behin baino gehiagotan, isladaketa-teoriaren arabera egina, bitartekotasunaren arazoa ia kontutan hartu gabe eta Marxek, eta batez ere Engels-ek, azpimarratzen zuten artearen autonomia erlatiboa ahulduz.

Eta ez da nahikoa izan akats hauek gainditzeko, erdarazko bertsioan sartu diren zuzenketak eta azalpenak, orriazpiko oharren bidez gehienetan. Gizarte eta literaturaren arteko harremanen interpretazio mekanizista baten gehiegikeriak leuntzeko balilagari den bakarra izan da, agian, Sarasolak duen literatur ezaguera zabala eta literariotasunerako sentsibilitate zorrotza.

### 1.3. Santiago Onaindia, *Euskal literatura*

Ezer berirrik aportatzen ez badu ere, ildo desberdin batetik doa Onaindiaren lana eta, teorikoki bada ere, alderdi daktikoak azpimarratzen dira, bere euskal literaturaren historia planifikatzean.

Urte askotan zehar euskarari eta euskal literaturari eskainitako izugarritzko lanaren erakusgarri bat dugu aita Onaindiaren *Euskal Literatura*.

Sei liburuki txikitán plazaratua, hamaseigarren mendetik gaurdaino euskaraz idatzi duten autore guztiak eta euskal aldizkariak zerrendatu eta aztertu nahi izan ditu egileak, autore bakoitzaren bizitza, idazlanak eta eritzi kritikoak erakutsiz. Eta, zer esanik ez, nahikoa ongi betetzen da helburua; baina, gchiagorik ez. Liburua funtsean autoreen zerrenda besterik ez da, kronologikoki eratua, mende edo belaunaldien hurrenkera gordez eta lurraldetako linguistikoen eta euskalkien arabera banatz.

Ez dago aparteko errelexio historikorik, euskal literaturaren garapena edo bilakaeraren zergatia aztertzen duenik, eta, behar bida, aportatzen diren eritzi kritikoak ez dira batzuetan erizpide metodologiko moderno baten arabera egiten, impresionistak dira askotan, eta zenbaitetan, ez dute azterketa linguistiko hutsaren maila gainditzen.

Azken batean, beste kasu askotan bezalaxe, biltzen den materiala eta informazioa da Onaindiaren aportaziorik aipagarriena, beste euskal literaturaren historiak osatzen dituena hain zuzen.

Alde honetatik, hots, materialen aportazioari dagokioez, hori ditugu aita Villasante-ren *Historia de la Literatura Vasca*, edo, behar bida, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* dela-koak literaturari eskaini dizkion bost liburuki mardulak, non, gainera, autore bakoitzaren zenbait testu ere aportatzen bait da.

## 2. Azterketa orokorrak

Bigarren atal batean euskal literaturari buruzko arteketa orokor batzuk aipatuko ditut, ikuspegi sistematiko eta historiko batetik eginak ez direnak eta, alde honetatik begiraturik, literaturaren historiatzat eman ez daitezkeenak, baina hala ere, euskal literatura oro har, hots, edozein aro edo motatako autore eta mugimenduak aztergai dutenak.

Gehienetan, ikastaro monografikoen hitzaldiak edo biltzarren baten agiriak izaten dira honelako idazlanak; beraz, autore des-

berdinek idatzitakoak eta, horrenbestez, ikuspegi edo abiapuntu desberdinatik aztertuak. Nolanahi ere, aipagarriak dira, zeren honelako kasutan erabiltzen diren metodoen desberdintasun eta, behar bada, aberastasuna, autore bakar baten obran ez bait dira ematen gehienetan.

## 2.1. Euskal Lingüistika eta literatura: *Bide Berriak*

Liburu honetan 1977-78 ikasturtean Deustuko Unibertsitateko Donostiaro Egoitzean, Filosofi-Letren Fakultateak antolatutako euskal kulturari buruzko ikastaro baten ponentziak ditugu.

Testuinguru historikoa kontutan hartu behar da, liburuaren biltzen den materialaren garrantzia neurri ahal izateko: Transizio demokratikoaren lehen urtetan gaude eta euskal kulturaren azterketa eta zabalkuntza da garaiko erakunde kulturalek gehienik bultzatzen dutena; jakina, gure jatorrizko kulturaren altxorrik bereziena eta garrantzitsuena, hizkuntza bera da, euskara, eta euskararen adierazgaririk ederrenetakoa, euskal literatura.

Helburu honi zegokion jasotzen den ikastaroko gaia eta lana, liburuaren bi zatieta biltzen dena: lingüistika eta literatura, azken hau delarik guri une honetan interesatzen zaiguna, hain zuzen.

Zenbait azterketa monografikoren bilduma bada ere, gidartzat har daitekeen hari kronologiko bateri aztarnak nabari daitzke, euskal literaturaren bereizgarri orokorrean hasi, egungo liburu-argitaratzeari dagozkion arazoetaraino. Etxeparengandik pasatuz. Tartean, euskal nobelaren historia, ahozko literatura, euskal poesia....

Autoreei bagagozkie, literaturaren azterketen eremuan eragin berezi eta erabatekoa duten izenak: Mitxelena, Haritschelhar, J.M. Lekuona, I. Sarasola...

Ez da azterketa sistematikoa, ez eta historikoa ere. Hala eta guztiz, euskal literaturaren historian ezinbestekoak diren aldi eta autoreak aztertzen dira. Bereziki aipagarriak, alde honetatik, Mitxelenaren bi lanok: *Euskal literaturaren bereizgarri oroko-*

rrak, eta *Euskal literaturaren kondairarako oinarriak*. Mitxelenaren beraren *Historia de la Literatura Vasca* czagutzen duenari ez dio gauza berezirik aportatuko, baino euskal literaturaren historiarako sarrera riguroso eta sugerenteak ditugu Mitxelenaren lantxo hauek.

Esan dezagun, bukatzeko, euskal literaturari eskaintzen zaion zatiak, berrehun orri baino gehiago duela.

## **2.2. Hacia la literatura Vasca**

Liburu honetan 1987an ospatu zen II Euskal Mundu-Biltzarreko Literatura Kongresuaren hitzaldiak eta txostenak biltzen dira.

Hasieratik argitu eta nolabait justifikatu behar dena titulua bera da hain zuzen, "Hacia la literatura vasca", Literatur-Biltzarrearen titulua izan zena bestalde.

Antolatzaileen eritziz, helburua ez zen Euskal Literaturaren Biltzarre bat egitea, Euskal Literaturarako bat baizik. Baliteke nabardura hau nahikoa teorikoa izatea; hala ere, helburua zen, hain zuzen, Euskal Literaturaren azterketarako oinarri eta laguntzaile emankorrak izan litezkeen eta izan behar duten elemendu batzuk kontutan hartzea, eta haietan, euskal literatura aztertzeko, testuinguru riguroso eta indartsu bat finkatzea.

Lehenik, alderdi metodologikoak. Ezin da, gaur egun, euskal literatura, beste edozein literatura bezalaxe, aztertu tresneria metodologikorik gabe. Eta garaia da gaurko diskurso kritikoaren eremuan erabiltzen ari diren eredu metodologikorik modernoen eta kontrastatuuenak erabiltzeko. Hasi dira, piskanaka-piskanaka, erabiltzen, baina II Euskal Mundu-Biltzarrea zela eta, aukera ezin hobea zen literaturazterketen eremu metodologiko horretan sartzeko eta autorerik ospetsuenetako batzuk gurekin izateko: Hans Robert Jauss eta Harreraren Estetika, Gilbert Durand eta Kritika Mitologikoa, Jonathan Culler eta Dekonstrukzioa...

Helburu honi dagokio, hain zuzen, liburuaren lehen zatia: *Teoría y metodología*.

Bigarrenak, *Literatura vasca e intertextualidad*, gaur egun literaturaz azterketetan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den kontzeptu nagusi bat euskal literaturaren ikerketek bereganatzea du helburu.

Testuen arteko harremanak, dependentziak, eraginak, etabar adierazten ditu "intertestualitate" kontzeptu honek: testu singularrarria beste askoren testuinguruan kokatzen da eta bere argitan, zabalduta eta sakondu egiten dira testuaren sorrera bera eta esan-nahia.

Literaturaren kontzepzio intertestual horren arabera aztertzen da euskal literatura, Romantizismotik gurdaino, nobelagintza eta poesigintza.

Euskal literaturaren berezitasuna eta, behar bada, nolabaiteko "atipizitatea" azpimarratu behar badira ere, ekialdeko kulturi dagokio, eta sistema horren barruan da azalgarria bere funtzionamendu eta bilakaera.

Beraz, aldika eta generoak, euskal literatura eta sistema literario zabalago bat —Espainiakoa eta europearra— txandakatu egiten dira liburuaren bigarren partean, non bion arteko antzekotasunak eta desberdintasunak, paralelismoak eta desorekak nabari daitezkeen, euskal literaturaren erreferentzia genetikoak, formalak eta semantikoak zabalduz.

Hirugarren partea *Literaturas tradicionales y populares* gaiari dagokio. Hemen ere azterketa ez da mugatzan euskal eremuan gertatu eta gertatzen ari denera, baizik eta, metodologiaren aldetik batez ere, literatura tradizionalen jarraipen, garapen eta bilakaerari dagozkion arazoak kontutan hartzen.

Zer esanik ez, liburu honen garrantzia crabatekoa dugula gaur euskal literaturaren azterketen alorrean: bai gaien azterketan erakusten diren sakontasun eta rigurositateari, bai eta azterlarien maila zientifikoari bagagozkio; beraz, irakurleko espezializatu samarrari zuzentzen zaio nolabait.

### 3. Euskal literatura generoka

Mota edo genero desberdinietan sailkatua izan da literatura betidanik: lirika, epika eta dramatika.

Genero-nozioa, zerbait historikoa dena, dezente aldatu da historian zehar. Generoen arteko mugak erabat ezabatu ez badira ere, nahikoa ilunak dira askotan, eta honenbestez gaurko Poetikan krisi larriari dagoen kontzeptua da.

Hala eta guztiz ere, onartu egiten dira praktikan genero nagusi tradizionalak eta nahikoa erabilgarri eta emankorrak azaltzen dira gaur egun edozein literaturari buruzko diskurtso historikoan nahiz kritikoan.

Hori bera ia euskal literaturan nabaria da, eta, behar bada, besteetan baino areago. Behin baino gehiagotan generoetara jo dute euskal literaturaren historiagileek beren materiala sailkatzeko eta sistematizatzeko ahal izateko beraz, euskal literaturaren historia hainbeste generoen historietan banatu edo sakabanatu egiten da, ezen, nolabait, bizkarrezur bakar baten funtzioa galtzen bait da. Horetan legoke, nire ustez, honen arrazoia: "periodizazio" rigurosorik eza. Ezin dakizkioke euskal literaturari mekanikoki aplika beste sistema literarioetan erabilgarriak diren literatur periodoa; eta, aldi berean, ez da argi eta garbi ikusten zernolako periodizazioa aplikatu beharko litzaiokeen euskal literaturaren garapen historikoari.

Eragozpen honetatik ateratzearen, aukera bat da mota edo generokako azterketa.

#### 3.1. Euskal nobelagintza

##### 3.1.1. Gotzon Garate, *Euskal Elaberrien kondaira*

Bi liburuki argitaratu du dagoenekozi Garatek, bere euskal elaberriaren kondaira honen barnean.

Lehenengoan euskal eleberrigintzaren hasiera azterzen du eta sarrera orokor baten ondotik, Jean Baptiste Elissambururen *Piarres Adame* eta Resurrección María de Azkueren *Bein da betiko* testuak azterzen ditu.

Bigarren alean, Txomin Agirreren lehenbiziko nobela, *Auñamendiko Lorea*, azterzen da.

Ez da propioki euskal nobelaren historia Garatek egiten duen. Alde batetik, sarrera gisa ematen diren ikuspegi orokorrak nahikoa azalekoak dira eta behar bada, ez dira nobelagintza baten historia riguroso bat oinarritzeko gauza; ez dira kontutan hartzen, esate baterako, gaur egun literatur historian eskaintzen zaizkion aukera metodologiko desberdinak: positibista, soziologikoa, formalak, edo, azken aldiotan saiatzen ari den harrera-historia. Beraz, nabaria da autore eta testuen tratamenduan metodo historiko baten eza. Bestalde, testuen azterketan, elemendu formalak eta baliapide retorikoak edo narratiboak aztertzen dira gehienetan, testuen kontestualizazio historiko eta soziala baztertuz.

Horregatik diogu bi liburutxo hauetan eskaintzen zaiguna, izenburuaren beraren kontra, ez dela euskal nobelaren edo elaberriaren historia kontutan hartzen diren autore eta testuei dagozkionez, noski, baizik eta hiru testuen azterketa inmanentea, historikoa baino gehiago. Kasu batean, *Bein da betiko* testuarenean hain zuzen, iturriak laburki aipatzen badira ere, ez da planteatzetan testuen genesi edo sorkuntzaren arazoa.

### 3.1.2. Ana Toledo, *Domingo Agirre: Euskal eleberriaren sorrera*

E.U.T.G.ko Filosofia-Letren Fakultatean defendatutako doktorego-tesia dugu liburu hau, eta argi dago "tesi" izate honek, azterketaren sakontasunean, metodologiaren rigurositatean eta, behar bada, liburuaren aparteko lodieran ere datzala.

Agirre eta bere nobelagintza liburuaren aztergai nagusia badira ere, azterketa ez da mugatzen, hala ere, testuak bere baitan edo isolaturik konsideratzen. Lehen zatian euskal fikziozko prosaren sorrerari buruzko azterketa sozio-literarioa aparte egiten da.

Zati soil honek justifikatuko luke —nire ustez— azterketa, honako hiru arrazoiengatik: lehena, erabiltzen diren datu eta elementuen ugaritasunagatik; bigarrena, tratamendu metodologikoaren rigurositateagatik; eta, hirugarrena eta azkena, honako azterketa sozio-literarioa lehen aldiz egiten delako. Hain scriotsun handiz egina dago non aportazio honek erabateko garrantzia izango bait du hemendik aurrera euskal narratibaren historia ulertu nahi duen edonorentzat.

Euskal nobelagintzaren "prehistoria" exhaustiboki aztertzen da.

Nobelagintzaren prehistoriatzat hartzen dugu euskal prosa narratiboaren sorrera: fabulak eta legendak, kontaketa laburrak, Lore-Jokuetari saritzen diren prosazko lantxoak...

Ordurarte gai erlijiosoetaz arduratzan zen euskal prosa, sekularizatu egiten da; irakurgai berriak sortzen dira, aurreko tratatu aszetikoak ez bezala, eta, neurri berean, irakurleko berri bat ere agertzen da, literatura "zibila" irakurri nahi duena. Honela prestatzen da "humus" edo lurra nobelaren sorrerarako.

Testuinguru honetan kokatzen du Ana Toledok Agirreren nobelagintzaren azterketa; exhaustiboki aztertu bada euskal prosa narratiboaren sorrera, exhaustiboki ere aztertzen dira Agirren hiru nobelak: *Auñamendiko Lorea*, nobela historiko errmantikoa, eta euskal ohiturazko nobelagintzaren paradigma diren beste bi testu famatuak: *Kresala* eta *Garoa*.

Azterketarik onenentariko bat dugu, zalantzak gabe, Ana Toledorena, kritika unibertsitarioaren mailan, eta metodologiaren rigurositate eta aberastasuna direla eta, bide berri bat irekitzen duena euskal nobelagintzaren azterketarako.

### *3.1.3. Antología de la narrativa vasca actual*

Berez, erdal irakurlegoari zuzentzen zaio antología hau, gaur egungo zenbait euskal kontalari edo nobelari nagusiren testuak erakutsiz. (Duela hilabete batzuk, ingelesez argitaratu da, Renondo Unibertsitatean)

Hamar dira hautanitako autoreak eta, edozein antologiatan gertatzen den bezala, eztabaidagarria da hautaketa bera, bai autoreak eta bai testuak ere. Hauek, euskaraz eta gazteleraaz azaltzen dira.

Liburu honetan interesatzen dena, hurbilpen bibliografiko honi dagokionez, ez da, jakina, antologizatzen diren autoreen zerrenda, edo azaltzen diren testuak, baizik eta sarrera gisa eskaientzen den azterketa, *Introducción a la narrativa vasca actual* nik neuk egina.

Gorago esan bezala, erdal irakurlegoari zuzenduta dago azterketa, eta beraz, euskal irakurlearentzat ezagunak diren errefrentzia asko ematen dira, testua ulergarri egiteko beharrezkoak izan direnak.

Euskal narratibaren sorrera bultzatzen duten elementu nagusiak aipamen laburra egiten da, euskal nobela modernoari buruzko diagnostiko bat egitearren: Euskal narratibaren eraberri-tzearen lehen aztarnak, eredu berrien bilaketa, euskal nobelagintza modernoaren lehen garapena, nobela lirikoaren garrantzia eta, azkenik, euskal narratibaren etorkizuna.

Azterketa, deskriptiboa da, baina funtsean genero baten historia azaldu nahi da, oso laburra bada ere historia horren irupena, apena hogeitahamar urtekoa alegia.

Nahikoa interesgarria izan daiteke azterketatxo hau egungo euskal nobelagintzaren jokaera narratibo eta, behar bada, tematikoak ezagutzeko, eta gure narratibaren nondik-norako alderdi nagusiek piska bat sakontzeko.

### 3.2. Poesiagintza

#### 3.2.1. Jon Kortazar, *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*

Nahiz eta Lauaxetaren poesiagintzari buruzko azterketa monografikoa izan, toki egoki bat aurkitzen du orri hauetan Kortazarren liburu honek.

Lauaxetaren poesiaz gain, erabat interesgarria bait dugu garaiko egoera literarioa, poesitzari dagokiona batez ere, eta poesitzatik edo poeten aldetik euskal literatura eta poesia eraberritzeko eta gaurkotzeko egiten diren ahaleginak, Orixetan eta Lauaxetan ahalegintze horren ezinbesteko lekuko direlarik.

Lehenbiziko zatia —“Teoría Poética”— 1932an, Orixetan eta Lauaxetaren artean sortzen den estabaidaz hasten da; gaia, zer den klasizismoa eta zer poesia klasikoa. Eztabaidaren alderdi historiko eta teorikoa aztertuz, nola sortzen eta osatzen ari den Lauaxetaren teoria poetikoa crakusten saiatzen da Kortazar, eta marko honetan dira ikusgarriak gero bere praktika poetikoan azaltzen diren oso tradizio poetiko aberats baten oihartzunak: Greziatik hasi eta “poesía pura” delakoan bukatuz, Alemaniako erromantizismoa eta Frantziako parnasianismoa eta simbolismoa barne direlarik; ahaztu gabe, jakina, Lauaxetaren poesia herrikoiak duen erabateko eragina.

Ez dira tamalez normalak euskal poesitzari buruzko azterketetan Kortazarrengan bezalako urrentze historikoa eta erreferentzia kulturalak. Eta hauxe da, nik uste, importanteena garai hartako euskal poesitzaren eta ez bakarrik Lauaxetarenaren benetako testuinguru poetiko eta kulturala. Nobelagintza ez bezala, *modernoia* izaten saiatzen da euskal poesitzeta eta modernoa da agian. Une poetiko hori ezagutu ahal izateko erabat interesgarria da Kortazarren azterketa, Lauaxetaren poesiaz gain.

Honi bagagozkio, aipagarriak dira Lauaxetaren bi poema-liburuak —*Bide barrijak* eta *Arrats beran*— astertzean erabiltzen diren ikuspegi metodologikoak, hemen ere azterketaren sorrean dagoen doktorego-tesiaren eragina nabari delarik. Eredu semiotikoaren ardatz nagusiak hartzen dira oinarritzat, baina eredu honen mugak gainditu egiten dira kritika mitologikora joaz, Lauaxetaren unibertsio poetikoaren ahalmen adierazgarria eta giltzarri simbolikoak erakusteko: landa/hiri oposaketa, bidaia, denbora, iniziazio-ritoak...

### 3.2.2. Jon Kortazar, *Laberintoaren oroi mena. Gure garaiko olerkigintzaz*

Ez da liburu hau gaurko euskal poesiari buruzko historia bat; ez eta azterketa sinkroniko sistematikoa bat ere. Erabat bestelakoa dugu egilearen asmoa eta liburuaren egitura. Ez dezagun ahantz haren genesia edo sortzea: garai desherdinatan eta bost bat urtetan zehar egindako artikuluak ditugu liburuaren zazpi kapituluak osatzen dituztenak.

Hala ere, eman ematen da gaurko euskal poesigintzari buruzko ikuspegি orokor bat, sistematikoa ez bada ere. Baino, lehen lau kapituluetan irakurleak atera lezakeen ondorioa nahikoa ideia bete eta zorrotza izango da euskal poesiaz, zeharkakoa bada ere: konpromezu-poesia, poesigintza gaztea...

Ikuspegি orokor honen ondotik, euskal poesigintzaren hiru izen nagusi: Jon Mirande, Juan Mari Lekuona, Bernardo Atxaga...

Lehenaren ironia, bigarrenaren bikaintasun poetikoa, hirugarrenaren "inora ez daraman bidaia", *Etiopia* liburuaren mami simbolikoa adierazi nahi duen formula polita.

### 3.3. Euskal teatroa

Euskal teatroa, hobe, literatura dramatikoa, ez da lirika edo narratiba bezain ugari eta garantzitsua; beraz, hari buruzko bibliografia kritikoa edo historikoa ere urriagoa dugu.

Euskal teatroaren eramuan, erabateko garrantzia du Zuberoan urtez urte gordetzen den pastoralen tradizio herrikoiak, bibliografiaren bat sortarazi duena hain zuzen.

Bestalde, azpimarragarria da gaur egun gure artean gero eta zabalkunde handiagoa hartzen ari den bizitza teatrala, taldeak, sariak, topaketak, subentzioak, e.a. direla medio.

Baina literatura dramatikoa dagokionez, urria da gure panorama kopuruz eta pobrea kalitatez; sariaketa literarioetan normala da teatroari dagokion saria eman gabe geratzea; izugarriz-

ko desoreka nabarmentzen da idazten eta antzezten denaren artean. Jakina, ez da bakarrik euskaraz antzezten, erdaraz baizik gehienetan. Horrenbestez, maila berdinean egin beharko litzateke erkaketa, hots, maila literarioan: honetan ere diferentzia da nabaria; askoz hobeagoa da euskal poesigintza edo narratiba literatura dramatikoa baino. Kasuren bat izan ezik ez bide zaie interesatzen euskal idazleei teatroa edo behintzat teatro idaztea.

### 3.3.1. Antonio María Labayen, *Teatro euskaro*

Euskal teatroaren patriarka dugu Antonio María Labayen autore nahiz historigile bezala. Gure ikuspegi bibliografiko honetan ez zaigu interesatzen Labayenek idatzitako teatroa, bere lan kritikoak eta historikoak baizik.

Alor honi dagokio hain zuzen *Teatro euskaro* idazlana, bi aletan, 1965ean argitaratua. Hemen biltzen dira Labayenek euskal teatroari buruzko azterketa gehienak.

Lehen alearen izenburua "Notas para una historia del arte dramático vasco" da. Nabartu egiten du egileak bere lanaren izaera: ez da benetako historia, baizik eta historia baterako sarrera, materialak, nahiz eta lehen zatian, euskal teatroaren urrats nagusiak kronologikoki erakutsi, Zuberoako pastoral eta maskaradekin hasiz eta 1945-1965 urteen arteko bizitza teatralarekin bukatuz. Hortik zati honen titulua: *Bosquejo histórico del arte dramático vasco*.

Bestalde, azpimarratu behar da Labayen interesaratzen zaiona ez dela euskal literatura dramatiko hutsa, baizik eta teatroa, arte dramatikoa, autoreak, noski, barne. Alde honetatik, erabat modernoa deritzaigu Labayenek ikuspegia: ekintza teatralaren menpean dago berez literatura dramatikoa, eta antzokia da, ez liburu, bere toki berezia.

Bigarren liburukiaren azpitituluak —*Entrevistas, Reseñas, Crónicas*— argi eta garbi adierazten digu zernolakoa den bertan sarten den materiala. Oso mota desberdinakoa da eta, pentsa liteke,

bigarren mailakoa dela zenbait kasutan; baina lehenengotik azkenengoraino, garrantzi handikoa euskal teatroaren historiarako.

Funtsean, Labayenen idazlan honetan zehar nabari daitekeen hari nagusia euskal teatroaren historia batena da benetan, autorearen asmoa apalagoa bada ere, bertan bait daude historia riguroso baterako oinarri nagusi eta, nolabait, ezinbestekoak.

Oso interesgarria da ere bigarren liburukiaren bukaeran erantzen den katalogoa; 1795tik 1965ra argitaratu edo antzeztutako euskal testu dramatikoak biltzen dituena. Osatu egin du Labayenek 1928. urte arte José Aranak prestatu zuen zerrenda.

### 3.3.2. Patri Urkizu, *Euskal antzertia*

Euskal teatroaren historiarik osatuena dugu oraingoz Urkizuren, autorearen beraren aurreko *Euskal Teatroaren bistoria*, 1975ean argitaratua hobetu eta osatzen duena.

Honako eskaintzaz irekitzen da liburua:

"Labaien eta Larzabal jaunei, Hego eta Iparreko Euskal Antzertiaren bi habe nagusiei, esker onez".

Eta benetan, Labayen eta Larzabal ditugu euskal teatro eta bere historiaren zutabe nagusiak, Bidasoaren alde batcan eta bestean. Biok, teatrogile eta teatroaren historigileak, pizturik izan zuten, bizitzan zehar, euskal teatroarekiko grinaren sua.

Baldin eta Larzabalen liburua —*Gure Antzertia* (1966)— komentatu ez ba dut ere, erabateko garrantzia du Iparraldeko teatroa czagutu ahal izateko.

Patri Urkizuren liburua material ugariagoz egina da eta ikuspegi modernoago batetik begiratzen zaie euskal antzertiari eta bere problematikari. Bete egiten da, alde honetatik, Labayen eta Larzabalengan dagoen azter-perspektiba.

Hala ere, euskal teatroari dagozkion testu eta autoreak, ekinzak eta gainerako datu nagusiak pilatu egiten dira kronologikoki, ia gaurdaino, benetako erreflexio historikoa sistematikoki

egin gabe eta edozein teatrogintzaren historiarako erabat ezin-bestekoa den kontestualizazio historiko eta kulturalik gabe ere. Esaterako, sistema literarioarekin teatroak dituen harremanak eta menpekotasunak, teatro-komunikazioaren alderdi soziala eta, behar bada, ideologikoa, aintzinako teatro herrikoaren iraunkortasunak planteatzen dituen arazo estrukturalak eta soziologikoak, e.a.

Gogoeta sozio-historiko sakonago baten eza nabamentzen zaio oraindik euskal teatroaren historiari; eta euskal teatroa hain ongi ezagutzen duen Patri Urkizu bera da gauza —beste inor baino gehiago— horrelako gogoeta egiteko.

*Euskal antzeria* liburua bi zatitan banatuta dago: lehenengoan, teatro-forma herrikoia aztertzen dira: pastoralak, astolas-terrak, ihauerietako tragikomeriak... Bigarrenean, aldiz, teatro landua, autore zaharrengandik hasiz —Barrutia, Munibe— eta hemeretzigarren mendeko bukaeran abiatzen den euskal teatroaren pizkundeaz —Soroa, Alzaga...— jarraituz.

Bukaeran, katalogo alfabetikoa dugu, eta, espero zenez, LABAYENENA osatu du Urkizuk 1984ra arte luzatzu.

Oso interesgarria da autoreak katalogo honi ezarritako eranskina, itzulpenen zerrenda biltzen duena: erdarazko autoreak, itzultzailleen izenak eta euskarazko tituluak jasoz. Gure antzokietara igotzen diren testu dramatikoak itzulpenak dira askotan. Honeako testuak ez dagozkio, dudarik ez, euskal literatura dramatikoari, baina bai gure teatro-historiari, teatro baten historia osatzen duena ez bait da bakarrik testua. Horregatik da garrantzitsua patri Urkizuren liburuan eskaintzen zaigun itzulpenen zerrenda.

#### 4. Ahozko literatura

Literatura hitza entzuten dugunean, idatzitako literaturan pentsatzen dugu gehienetan, beti ez esateagatik.

Hala ere, idazkeraz aparte, badago beste literatur iturri ugari eta naro bat, herrikoia eta ahoz aho zabaltzen eta gordetzen dena, ahozko literatura, euskal kasuan hain garrantzi handia izan duena denboran zehar, eta gaur bertan ere, bizi-bizirik dagoena zenbait generotan.

Horregatik, ezinbestekoa zen honelako lan batean atal bat eskainzea ahozko literaturari.

Bukaerarako utzi badugu ez da, noski garrantzirik ez duelako. Egia da gure kultura libururarena dela, irudiaren gero eta pisu handiagoa hartuz doan arren; beraz, idatzitako literaturaren funtzió estetikoa, eta aldi berean, soziala eta kulturala, ahozkoarena baino erabatekoagoa dugu zalantzarik gabe.

Dena den, bertsolaritza eta Zuberoako herri-teatroa aipatu baizik ez ditugu egin behar konturatzeko zernolako tokia betetzen duen Euskalerriaren bizitza kulturalean ahozko eta herri-literaturak.

#### 4.1. Juan Mari Lekuona, *Ahozko euskal literatura*

Ahozko euskal literaturaren azterketa aipatzea Lekuona leinua aipatzea da: "zaharra" lehenik, On Manuel, ahozko eta herri euskal literaturari hainbeste lan, eta hain handia, ardura eta maiatasuna eskaini zizkiena bere bizitza luze eta oparoan zehar, bere *Literatura oral vasca* lekuko. Gero, Lekuona "gaztea", poeta bikaina, bertsolari trebea, eta euskal poesigintzaren eta ahozko euskal literaturaren azterlari zorrotza.

Komentatzen ari garen liburuan ahozko literaturari buruzko ikuspegi orokor bat ematen zaigu jeneroka.

Azpimarragarria da benetan lehen kapituluak duen interesa: bertan, egileak ahozko literaturaren osagaiak aztertzen ditu, alderdi sozio-kulturala, literarioa eta historikoa bereiziz.

Ahozko literaturari bereziki dagozkion baliapide teknikoz gain, oso garrantzi handikoak ditugu, adibidez, tradizio-altxorra

eta bere gorabehera historikoak, entzulegoa eta bere funtzioa ahozko komunikazio literarioan, egileak berak landu behar dituen gaitasunak edo menperatu behar dituen teknika bereziak, e.a.

Hurrengo kapituluetan, Lekuonak ahozko cuskal literatura-ren forma edo mota desberdinak aztertzen ditu, banan-banan: kopla zaharrak, errromantzeak, bertsolaritza, herri-teatroa... Eta kasuen arabera, barneko bereizgarri testualak, gizarte-ingurua, entzulegoarekiko arazoak, historia, e.a. kontutan izanik.

J. M. L.

---

#### **NOTAS BIBLIOGRAFICAS SOBRE EL ESTUDIO DE LA LITERATURA VASCA**

#### **NOTES BIBLIOGRAPHIQUES SUR L'ETUDE DE LA LITTERATURE BASQUE**

*A lo largo de estos tres últimos lustros han aumentado no sólo cuantitativamente los estudios históricos y críticos de la literatura vasca, sino también cualitativamente. En opinión del profesor Lasagabaster, los estudios han ganado en categoría científica y en rigurosidad gracias a la Universidad. Hoy día, además de la divulgación en revistas y suplementos literarios de periódicos, se publican muchas tesis, tesinas e investigaciones de profesores universitarios.*

*En la selección de las obras para el análisis, el autor ha tenido en cuenta tanto el objeto formal como la perspectiva metodológica. No analiza, en cambio, los estudios monográficos de autores sino en los casos en que abarca una época o un género literario.*

*Los primeros capítulos del artículo estudian las historias de la literatura vasca y los estudios generales, para pasar a continuación al estudio de la literatura vasca por géneros: la novela, la poesía, el teatro. El estudio se cierra con una referencia a la literatura oral, destacando la obra de Juan M. Lekuona.*

---

Tout au long de ces trois derniers lustres, les études historiques et les critiques de la littérature basque ont augmenté non seulement au point de vue quantitatif mais aussi qualitativement. Selon le professeur Lasagabaster, les études ont gagné en catégorie scientifique et en rigueur grâce à l'université. De nos jours, outre la divulgation dans des revues ou dans les suppléments littéraires des journaux, beaucoup de thèses, mémoires, recherches sont publiés par des professeurs d'université.

Dans la sélection des travaux pour l'analyse, l'auteur a tenu compte aussi bien de l'objet en question que de la perspective méthodologique. En revanche, il n'analyse pas les études monographiques d'auteurs sauf si elles s'occupent d'une époque ou d'un genre littéraire.

Les premiers chapitres de l'article étudient l'histoire de la littérature basque et son étude générale pour passer ensuite à l'étude de celle-ci par genres: le roman, la poésie, le théâtre.

L'étude termine en se référant à la littérature orale, et souligne l'œuvre de Juan M. Lekuona.

## Argibide bibliografikoak

### Antzertia 1980 - 1990

Patri Urkizu

Azken hamarkada horretako Antzertiaren bibliografia argibideak emateko eskatu didatenez, burura datozkidan zenbait gozoa xume ematen saiatuko naiz, adieraziz aldez aurretik, hurbiltze huts gisara eta behin-behinekoak izango direla.

Badirudi egungo garai hauetan euskal literaturaren historian —eta gerraurrean batipat— aberatsena izan den esparrua ahaztuxegia dabilela, tamalgarria bait da oraindik gaur hainbat eta hainbat eskuizkribu argitaragabe edukitzea. Adibidez XVIII. mendeko hamahiru antzerki ezberdin lotan dautza bibliotekatan, hain "urria" eta "beranta" dugun literaturan. Halere, ez naiz lamentazioekin hasiko eta egin direnez ahalegintxo batzuk hutsune eta ahazturak betetzen eta konpontzen, horiek aipatzen saiatuko gara.

Ez naiz arituko, ordea, antzezkizun, antzeztalde, antzerti topaketaz, hots, espektakuluaz, ene aztergaia antzertia literatur jenero bezala ikertzea izango bait da, batzuek Ubersfield-i jarraikiz uste arren antzerkia ez dela literatur mota bat, antzezte praktika

soil bat baizik. Antzerkiak bere betegintza eta osatasuna honela aurkitzen badu ere, ene ustez ikertu beharrak dira emaitza horien aurrepausu guztiak, etorkia eta bilakabidea, nondik norakoa. Antzerkigilea bere etxean bakarrik edo antzokian, antzeztailerrean taldearekin ikuskizuna pentsatzen eta taxutzen hasten den une berberetik taulara dadino. Urratsak oso dira interes beretiko, ikuslearen plazer hitza eta irudia bilakatzen diren momenturaino. Baino hel diezaiogun gureari.

Beste hizkuntzatan gertatzen ohi den bezala, eta eremu hipikoetan ere bai, hala katalan eta galegoetan legez, euskal literaturan antzertiak leku oso txikia dauka produkzio osoan. Hain zuzen 1985. urteko antzerki kopuruak gonbaratz gero beste jeneroetako zifrekin honakook topatzen ditugu: narraziogintzak %54, olerkiak %18, eta antzerkiak %10, ondorengo urteetan beheraka jo duelarik arcago. Beraz, garbi dago argitaletxeek marginatu samarra daukatela alaba pobrea bezala, eta hau, noski, gizartearen islada dugu, ez bait du antzerti-gizonak gizartean garai batcan zeukan garrantzi eta ohorezko lekua, berau, nabarmena denez, telebista-gizonak hartu duelarik...

Antzerti testuak hiru sailetan banatuko ditugu: a) Sorketa-lanak direnak; b) Itzulpenak, eta d) Saio eta artikuluak.

## 1. Sorketa lanak

Deusere euskaraz idatzirik aurkitzen ohi ez duten antzeztalddeei eta itzulpenetara ia beti jotzen dutenei esan beharrean aurkitzen gara baditugula hirurogei antzerkigile argitaratuak hamarkada honetan. Noski, ez dira denak punta-puntakoak, ez eta azken berrikeriatara emanak, batzuk beste mendetakoak eta gerriurrekoak bait dira. Hala, 25 *Antzerki labur*<sup>1</sup> bilduman S. Onaindiak paratu dizkigunak, bertan agertzen direlarik "Lizardi", Agirre-zabal, Mujika, Arratibel, Arozena, Arzeluz, Azkue, "Kirikiño", Ftxaniz, Monzon, Sabiaga eta Zubikarayren lanak. Bakarritzetak eta antzerki laburrak, gehienak irri eragiteko sortuak.

Herri teatroak, pastoralak, tragikomeriak eta astolasterrak merezizan dute ere zenbait ikerleren arreta. Honela, urtero Xuberroan pastorala jokatzearekin batera, libretoa ere argitaratu, izan ohi da, Etxahun Hiruhirikoa, Casenave, Heguiaphal, Aguergaray, Bidaxagar eta Davant xuberotar idazleei esker, Frantzako edo Bibliako historietatik aparte orain Euskal Herriko Historiaren pertsona nagusiak gaitzat hartuz. Garai hantean herri teatro hau herri eskola bazeen erlijioaren ikuspundutik, oraingoan euskal abertzalesunaren histori leku bilakatu da. Beñat Oyharçabalek<sup>2</sup> 1982. urtean Bordeleko Unibertsitatean 3. zikloko tesi pastoralari eskaini zion, eta ikerketa, hala nola testua, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara berri du. Halaber, Iñaki Mozosek<sup>3</sup> ihauerietako tragikomeria lan eder bat eskaini zien, Eusko-Ikaskuntzak argitaratua, eta neronek<sup>4</sup> zenbait astolaster *Antzerti Zérbitzuko* testu-bilduman plazaratu nituen.

Esan bezala hain "berriak" ez diren antzerkigileen lanak merezizan dute ahanzturatik libratzea, eta hor daude antzokiratzearain S. Baroja<sup>5</sup>, A. Barriola<sup>6</sup>, J. Barbier<sup>7</sup> edota G. Areosti<sup>8</sup> bera.

Noizpait aipatu izan ditut gerraondoko hiru belaunaldi antzerkigintzan saiatuak, eta aitorru behar dut, egun ere hirurak bizirik eta irmo dirautela lancan. Hala Zubikarai<sup>9</sup> eta Elias<sup>10</sup> (Larzabalen<sup>11</sup>) oroitzapena ezin ahantzia izango zaio euskal teatrozale orori), erlibideko Haranburu<sup>12</sup> eta Landart<sup>13</sup>, nola Anza<sup>14</sup> eta Mendiguren<sup>15</sup> gazteagoen artean kokatuko genituzkeenak, bakoitzak bere berezitasunekin, besteak beste.

## 2. Itzulpen lanak

Itzulpenaren beharra gero eta nabarmenagoa da gaurko Europan eta euskal kultur munduan. Halere, ez da batere erraza aurkitzea ez muga, ez eta duintasunczko oreka. Antzcztaldeak errazkerietara jo izan dute maiz, mimetismoak bultzaturik, arrakasta izan duten antzerkigile atzerritarra itzuliz eta antzokiratuz, pentsatzen bait zuten horrela beraiek besteen sona eta

ospea bereganatuko zutela. Baino ez da horrelakorik gertatu gehienetan. Zergatik?

Gauza jakina da gerraurreko antzerti gizonek ere maiz jotzen zutela erdal altxorrera. Gero, ordea, geureganatu, geure gisara birmoldatu ohi zituzten antzerkiak, oraingoan arrakastaz. Zilegi zen bidea eta egokia gainera. Hala Monzonek<sup>16</sup> Molière-kin egin zuena.

Zilegi zen, eta egoki gertatzen ere, klasikoen eguncratzea, betiko gaiak soincko berriz jaztea, eta hala aintzinateko, Grezia-Eromako antzerkiak itzuli eta antzeztu izan dira, beste lurraldetan bezala, gurean ere, Eunpides lekuko. Gaztelaniazko autore zahar eta berriak ere izan dute oihartzunik. Lope de Rueda, A. Campiñón, Valle-Inclán, M. Legasse, A. Sastre besteen artean eta ezin ukatu hauetariko batzuk oso gureak ez ditugunik.

Hiru bilduma izan dira antzerkigile atzerritarrei babesia eta leku eman dietenak. EGAN aldizkariak, lehenik, bere orrialdetan literatur arrotzari betidanik eskaini dio leku berezia eta bertan irakur daitezke B. Brecht, Dacosta, Ibsen edota Ionescoren antzerki lanak. *Antzerti Zerbitzua*, Eusko Jaurlaritzaren babespean sortutakoak, argitara eman ditu ere D. Fo, C. Goldoni, Manuel María, J.P. Sartre, N. Shakespeare, G. Steinson edota A. Stridberg, penagarria delarik nola erakunde politikoen babespean zeuden bi liburu xorta hauek ezkutatu diren zenbait politikoren kultur axolagabekeriagatik. Eta azkenik, *SUSA bilduma* gaztea ere aipatu beharra daukagu bertan plazaratuak izan bait dira egun-eguneko antzerti gizonen lanak, hala Beneditti, Betti, F. Pessoa, J. Steinbeck eta Suskinorenak.

### 3. Saio eta artikuluak

Egunkarietan eman ohi zaion txokoaz aparte, antzertia nobedade bat zenean, antzertiaz ezer gutxi idatzi ohi da, baina noiz-pehinka badirudi kontzientzia txarren bat arintzeko asmoz edo talde-lan batzuk agertu izan direla hala Ipar nola Hegoaldean eta, beraz, horietaz mintzatuko gara orain.

Iparraldean, 1987. urtean bi liburuki argitaratzen dira teatroaz. Bata Haritschelhar<sup>17</sup> jaunaren zuzendaritzapean taxutua eta Pastoralari eskainia, eta bestea<sup>18</sup> P. Bidart - Tx. Peillen bikotearenpean eta Pabeko Unibertsitateak bere baitan hartua. Parte hartzaleen artean ondokoak: Duvert, Baratzabal, Oiharzabal, Aguergaray, Idiart, Bidegorri, Casenave, Granja, Landart, Laperrine, Arozena...

Hegoaldean azpimarragarriak dira ere *Jakin* aldizkari honen 37. alea, *Euskal Antzerkia 1876-1985* izendatua, partaide bertan gertatu zirelarik Barriola, Lasagabaster, Dorronsoro, Landart, "Antza", Arozena, Idiakez eta Urkizu; eta, bestetik, gorago aipatu dugun Mozosen ikerketa eta edizio-lana, hala nola Barrutiarri<sup>19</sup> eskaini zitzaion talde lana.

Bizitza laburrekoa izanik ere, ezin ahantz daiteke, *Antzerti Berezia*<sup>20</sup> aldizkaria, bertan 1982-85 epeko artikulu eta saio interesarri anitz aurki bait daitezke.

Nor bere buruaz hitzegitea zilegi bada, hala bikit nere bi lantxo aipatzea, alegia, *Euskal Antzerkia*<sup>21</sup> titulua daramana eta bulgarizazio-lan bat izanik eta zenbait hutsune eta akats gora behera Juan San Martinek "Oinarritzko liburu bat" bezala juzkatu zuena bata, eta *Zuberoako irri teatroa: Astolasterrak*<sup>22</sup> bestea, 1988ko *Saiakera* Sariaren irabazle gertatu zena Irungo ohizko lehiaketan.

Ezer gutxi orotara esango luke norbaitek. Hiltzear dagoen hamarkada honen epaia ematerakoan, ordea, ez dut uste juzka daitekeenik antzertia esanez "deusetik deusera" iragan denik, edota euskaraz ez dakien erdal kritikari batek bezala, mespretxuz minimopetan dabilela adieraziz hainbat eta hainbat euskal teatrozaleren lanari muzin egin gabe.

Beude bere apaltasunean ohar eta bibliografia argibideok deusere euskaraz topatzen ez duten antzetaldeen lagungarri, edota euskal literaturaren zalearentzat oroitgarri eta hurbiltze gisara.

- <sup>1</sup> Santi ONAINDIA: 25 *Antzerki labur*, Euskerazaintza, Bilbao, 1985.
- <sup>2</sup> Benat OYHARÇABAL: "la pastorale Souletine. Édition critique de Charlemagne", Anuario de Filología de Julio Urquijo, XXII-3, Donostia, 1988.
- <sup>3</sup> Iñaki MOZOS: *Ibauteria Euskal Literaturan*, Eusko-Ikaskuntza, Hizkuntza eta Literatura 6, Donostia, 1986.
- <sup>4</sup> Patri URKIZU: *Astolaisterriak*, Antzerti 67, Donostia, 1984.
- <sup>5</sup> Serafin BAROJA: *Bertoak Pudente Tormesko Lazarillo Kontuak*, Txenteoa, Donostia, 1988.
- <sup>6</sup> Abelino BARRIOLA: *Dramak*, Euskal Klasikoak 12, Ibaizabal, Donostia, 1987.
- <sup>7</sup> Jean Barbier: *Supazter zokoak*, Euskal klasikoak 16, Kriseltu, Donostia, 1987.
- <sup>8</sup> Gabriel ARESTI: *Antzerkia*, Gabriel Areisti Saila 7, Susa, Donostia, 1986.
- <sup>9</sup> Augustin ZUBIKARAY: *Mondi ta itxaso*, Antzerti 62, Donostia, 1983.
- <sup>10</sup> Imanol ELIAS: *Sendagai iraketsa*, Azpeitiko Udalak, 1982.
- <sup>11</sup> Pierrick LARZABAL: *Ibauteriak*, Egan, 129-170 or., 1987.
- <sup>12</sup> Luis ARANBURU: *Sabino Arana*, Kriseltu, Donostia, 1986.
- <sup>13</sup> Daniel LANDART: *Bai ala ez*, Egan, 227-283 or., 1983 (1-6).
- <sup>14</sup> "Mikel ANZA", et al.: *Rebeluko balnearioko mirukintua*, Susa 2, Donostia, 1985.
- <sup>15</sup> Xabier MENDIGÜREN: *Kampotarrak maisu. Kultur ministrariak ez digu erritu-kirik*, Susa 6, Donostia, 1987.
- <sup>16</sup> Pierrick LAFITTE, "Hazparneko Andrea (Molière-tik Monzon-crat)", *Euskal Literaturaz*, Euskal Klasikoak 35, Donostia, 317-321 or., 1990.
- <sup>17</sup> Jean HARITSCHIELHAR, et al.: *La pastorale. Théâtre populaire basque en Soule*, Lauburu, Baiona, 1987.
- <sup>18</sup> Pierre BIDART; Tx. PEILLEN, et al.: *Eskual Antzertia. Le théâtre basque*, Université de Pau et des Pays de l'Adour, 1987.
- <sup>19</sup> Gidrique KNÖRR, et al.: *Pedro I de Barrutia. Aramaio 1682 - Arrasate 1759. Gabonetako Ibuskizuna*, Gasteiz, 1983.
- <sup>20</sup> *Antzerti berezia*: 1-13 zh., Antzerti Zerbitzua, Donostia, 1982-1985.
- <sup>21</sup> Patri URKIZU: *Euskal Antzertia*, Anizentzi Zerbitzua, Donostia 1984.
- <sup>22</sup> Patri URKIZU: *Zuberoako irriteatroa; Astolaisterriak*, GK, Donostia, 1988.

**TEATRO VASCO EN LA DECADA DE LOS 80****THEATRE BASQUE DANS LES ANNEES 80**

*El profesor Patri Urkizu comienza lamentando el abandono que sufre por parte de los estudiosos de la literatura uno de los campos más ricos en la historia de la literatura vasca. El teatro es igualmente la hija pobre de la producción con un 10% de la producción literaria de 1985, por ejemplo, y se encuentra marginado por las casas de edición.*

*El autor aborda el teatro no como espectáculo sino como género literario. Divide su estudio en tres apartados en los que analiza los trabajos de creación, las traducciones y, en tercer lugar, los ensayos y artículos. En cada uno de los apartados señala las tendencias bibliográficas más importantes así como las obras y autores más relevantes.*

---

Le professeur Patri Urkizu commence par regretter l'abandon que subit de la part des spécialistes de la littérature, l'un des domaines les plus riches de l'histoire de la littérature basque. Le théâtre qui, par exemple, représente 10% de la production littéraire de 1985 est aussi un enfant pauvre de celle-ci et il se trouve mis à l'écart par les maisons d'édition.

L'auteur aborde le théâtre non comme un spectacle mais comme un genre littéraire. Il divise son étude en trois parties dans lesquelles il analyse les travaux de création, les traductions et enfin les essais et les articles. Dans chaque partie, il indique les plus importantes tendances bibliographiques ainsi que les ouvrages et les auteurs les plus remarquables.

## Argibide bibliografikoak

### Musika 1960 - 1990

Jon Bagües

Euskal Herrian gertatu ohi den musikaren bibliografiari gainbegirada azkar bat emanetz, argi dago azken 30 urteotan eman den kalitate-saltoa, 50eko hamarkadan koka daiteke benetazko muga gure musikaren azterketarako, urte horietan gertatzen bait da gure kulturaren oinarrizko bi aintzindarien heriotza: Azkue eta Donostia. Lehena, folklorearen ikerlari sakona eta bestea, bere bizitza osoa musika herrikoia nahiz landuaren ikerkuntzari eskaini ziona. Biok gizaldi hasieran jasotako formazio sendo batzen jabe ziren, 60ko eta hurrengo hamarkadetako egoera kulturala makal eta zapalduak, ez zuen inolaz ere, monografien irteerarik suspertzen: biografia dezente kaleratzen dira, baina azpimarratzekoak dena, Jose Antonio Arana-Martija-ren *Música Vasca* liburua da, Aita Donostiak 1951 urtean argitaratu zuen *Música y Músicos en el País Vasco* liburuaren jarraitzaile. J.A. Arana-Martijaren etengabeko lanak azken 10 urteetan jasotzen ditu bere fruituak. Euskal musikari buruzko ikerlanak ikertzaile gazteen belaunaldi berri batek ziurtatzen ditu, M. Carmen Rodriguez-

-Suso, Maria Gembero eta lerro hauek izenpetzen dituena tarte-an daudelarik.

Itxurazko ghitze honek ezin ditu musikologiako irakaskuntzaren oinarrizko hutsune handiak izkutatu. Euskal Herriko Unibertsitate desberdinetan ez du musikak inolako presentziarik ikasketa edo ikertze-mailetan. Ezta etnologia aldetik ere. Zaila, beraiz, musika herrikoia edo musikaren historia ikeritzeko politika argi bat edukitzea. Azpiegitura-arloan azpimarratzeko berri bakarra, 1974 urtean Jose Luis Ansorenak sortutako *Euskal Erestarien Bilduma - Eresbil*, dugu. Euskal Herriko musikaren Patrimonioa gordetzea eta zabaltzea dira bere helburu nagusienak; etorkizunean ikertu beharko diren materialak jasotzen saiatzen da. Ikerkuntzak, halere, ikerlarien lan altruistan irauten du gaurkoz.

Musikaren edizioak ere aldatu dira. Desagertu edo beraien edizioak murritzutu dituzte batzuek: Casa Erviti, Arilla, Vellido edo Gasteizko Seminarioaren edizioak. Sortu dira guixiren batzuk, baina edizio gehienak erakunde ofizialen eskuetatik irteten dira. Baditu bere arazoak egoera berri honek, banaketarena nabarmenena delarik.

Disken industria sendotuz joan da. Desagertutako etxeek, Cinsa, Herri-Gogoa edo Xoxoak, beste batzuei eman die testigua, Elkar, IZ, edo Oihuka etxeetako adibidez. Bere produkzio motzak argi erakusten du multinazionalen edizioei aurre egiteko zaitasuna.

Atal bibliografiko honek baditu bere mugak. Monografiak besterik ez dira sartu, aldizkarien txostenak alde batera utzirik. Alor batzuetan, biografienean adibidez, errepresentagarrienak ipini ditugu. Ahal izan dugun neurrian azken hogoitamar urteetan azaldutako liburuez osatu dugu, beraien lorpena errazagoa delakoan. Interes handiko liburuak faltako direla suposatzen du honek. Halere, bukaeran zerrendatzetan diren liburutegietan aurki daitezke agortuak dauden liburu edo diskenean edizio gehienak.

### OROKORTASUNAK eta ZENBAIT ALDERDI

- ABANDA, Gloria. *El Orfeón Donostiarra: Viaje a la Unión Soviética*. Baroja, San Sebastián, 1987.
- ALTAFFAYLLA. *La Banda de música de Tafalla*. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, Tafalla, 1985.
- ARANA-MARTIJA, J.A. *Opera vasca en Vizcaya*. CAV, Bilbao, 1977.
- ARISTI, Pako. *Euskal kantagintza berria: 1961-1985*. Erein, Donostia, 1985.
- BAGÜES, Jon. *Catálogo del antiguo archivo musical del Santuario de Aránzazu*. CAP, San Sebastián, 1979.
- ASKOREN ARTEAN. *Euskal kanta berria*. Jakin, Donostia, 1977, 4, Urria-Abendua.
- GOYA, Joaquín. *Organos. Organeros y Organistas*. Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1969.
- INARAJA, Angel. *El órgano Cavaille-Coll de la Basílica de Santa María del Coro. San Sebastián*. Grupo Doctor Camino de Historia donostiarra, San Sebastián, 1973.
- LASUEN, Balendin de. *Orfeones y corales de Bizkaia*. CAV, Bilbao, 1987.
- MENENDEZ, José. *Breve histórica de la Agrupación Coral Tafallésa*. Agrupación Coral Tafallésa, Tafalla, 1971.
- La Pastorale*. Lauburu, Bayonne, 1987.
- PELAY OROZCO, M. *Orfeón Donostiarra*. CAM, San Sebastián, 1980.
- PLIEGO DE ANDRES, Víctor. *Catálogo de Obras de Jesús Guridi (1986-1961)*. Centro de Documentación de la Música Española Contemporánea, Madrid, 1989.
- SADA, Javier María. *Santa Cecilia Abesbatza*. CAP, San Sebastián, 1978.
- SAGASETA, Aurelio; TABERNA, Luis. *Organos de Navarra*. Príncipe de Viana, Pamplona, 1985.
- La Sociedad Coral de Bilbao: 100 años de historia*. Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao, 1988.
- UDA. *Agenda de fiestas y contrataciones: Euskadi Jaietan*. UDA, Bilbao, 1989.

- URSUA IRIGOYEN, Isidoro. *Campanas y campaneros en nuestras iglesias*. Ediciones y Libros, Pamplona, 1987.
- UZEI. *Musikako biztegia*. Elkar, Donostia, 1986.
- ZUDAIRE, Claudio. *La Agrupación Coral de Elizondo*. Claudio Zudaire, Elizondo, 1987.

### **MUSIKAREN HISTORIA**

- ANGLES, Higinio. *Historia de la música medieval en Navarra*. Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1970.
- ARANA-MARTIJA, J.A. *Euskal Musika*. Erein, Donostia, 1985.
- ARANA-MARTIJA, J.A. *Eresoinka*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1986.
- ARANA-MARTIJA, J.A. *Música Vasca*. Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 1987.
- GALLASTEGUI ZABAETA. *Bergarako Kronikak. Crónicas de Bergara*. Bergara, 1986.
- JAKA, Angel Cruz de. *Sinfonía en Zumárraga*. Banco de Vizcaya, 1967.
- LINAZASORO, Iñaki. *Tolosa: berri musikaria*. Tolosako Udala, 1985.
- P. DONOSTIA. *Obras Completas del P. Donostia*. La Gran Encyclopedie Vasca, Bilbao, I-III 1983.; Sociedad de Estudios Vascos, San Sebastián, IV- 1985.

### **BIOGRAFIAK**

- ALDAY, P. Jesús M<sup>a</sup>. *Los hermanos Iruarrizaga*. CAV, Bilbao, 1987.
- ARANA-MARTIJA, J.A. *Bernardo Gabiola*. CAV, Bilbao, 1980.
- ARANA-MARTIJA, J.A. *Resurrección María de Azkue*. CAV, Bilbao, 1983.
- AROZAMENA, Jesús M<sup>a</sup> de. *Jesús Guridi*. Editora Nacional, Madrid, 1967.
- AROZAMENA, Jesús M<sup>a</sup> de. *Josbemari (Usandizaga)*. CAM, San Sebastián, 1969.
- BARANDIARAN, A. Emiliano. *Euskal musikalari bikainak*. Itxaropena, Zarauz, 1967.

- BAMON RADA, Baldomero. *Joaquín Larregla, compositor*. Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1981.
- BILBAO ARISTEGUI, Pablo. *Jesús Arambarri*. CAV, Bilbao, 1976.
- ELIAS, Imanol. *Juan de Anchieta: Apuntes históricos*. CAP, San Sebastián, 1981.
- FERRERO, P. José G. *Luis Iruarizaga Aguirre*. C.M.F. La Gran Encyclopedie Vasca, Bilbao, 1977.
- GARCIA DEL BUSTO, J.L., coor. *Escritos sobre Luis de Pablo*. Taurus, Madrid, 1987.
- GARCIA DEL BUSTO, J.L. *Luis de Pablo*. Espasa-Calpe, Madrid, 1979.
- HERNANDEZ ASCUNCE, Leocadio. *Estudio Bio-bibliográfico de D. Hilarión Eslava*. Príncipe de Viana, Pamplona, 1978.
- HERNANDEZ GIRBAL, F. *Julián de Gayarre*. Lira, Madrid, 1970.
- IPARRAGIRRE: *Euskaltzaindia*. Bilbo, 1987.
- MARCO, Tomás. *Carmelo A. Bernaola*. Ministerio de Educación y Ciencia, Madrid, 1976.
- MONTERO ALONSO, J. *Usandizaga*. Espasa-Calpe, Madrid, 1985.
- MUSIKASTE-ERRESBIL. *Monografía de Hilarión Eslava*. Príncipe de Viana, Pamplona, 1978.
- NARBAITZ, Pierre. *Maurice Ravel*. Côte Basque, 1975.
- PEREZ GUTIERREZ, Mariano. *La estética musical de Ravel*. Alpuerto, Madrid, 1987.
- QUIÑONES, M<sup>a</sup> Angeles M. *Joaquín Tadeo de Murguía 1759-1863*. Universidad de Málaga, Málaga, 1987.
- RIEZU, P. Jorge de. *Cartas al P. Donostia*. Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra, San Sebastián, 1980.
- ROSEN, Barbara. *Arriaga, the Forgotten Genius: the Short Life of a Basque Composer*. University of Nevada, Reno, 1988.
- RUIZ CONDE, J.M. *Andrés de Isasi*. CAV, Bilbao, 1988.
- RUIZ CONDE, J. M. *La Coral y el Maestro Guridi*. CAV, Bilbao, 1986.
- RUIZ JALON, Sabino. *Juan Crisóstomo de Arriaga*. CAV, Bilbao, 1979.
- SAGARDIA, Angel. *Gaztambide y Arrieta*. Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1977.
- SAGARDIA, Angel. *Músicos Vascos*. Auñamendi, San Sebastián, 1972, 3 b.

SOROZABAL, Pablo. *Mi vida y mi obra*. Fundación Banco Exterior, Madrid, 1986.

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari. *Sebero Altube*. CAM, San Sebastián, 1979.

### FOLKLOREA. OROKORTASUNAK

FLAMARIQUE; CONDON. *La jota en Tafalla*. Patronato de cultura, Tafalla, 1987.

JORDA, Enrique. *De Canciones, Danzas y Músicos del País Vasco*. Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1978.

### KANTUTEGIAK

AZKUE, Resurrección M<sup>a</sup> de. *Cancionero popular vasco*. Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968. 2 b.

*CANCIONERO del País Vasco*. A. Carmona, Madrid, 1971.

*CANCIONERO popular del País Vasco*. Auñamendi, San Sebastián, 1967. 4 b.

DONOSTIA, J.A. de. *Eskel eres-sorta: Cancionero vasco*. Unión Musical Española, Madrid, 1921.

ECHEVERRIA; GUIMON. *Ecos de Vasconia*. Sendoa, San Sebastián.

*HERRIA oibuka*. SEIE, Bilbo, 1977.

KANTUZ. Elkar, Donostia, 1980.

MANTEROLA, José. *Cancionero Basco: poesías en lengua euskara*. Sendoa, Donostia, 1981. 3 b.

ONATIBIA, Yon. *100 Euskal Abesti*. Edili, Donostia, 1989.

RIEZU, Jorge de. *Flor de Canciones Populares Vascas*. Sendoa, Donostia, 1982.

RIEZU, Jorge de. *Nafarroa-ko Euskal Kantu zabarrak*. Archivo P. Donostia, Lekaroz, 1973.

SANTESTEBAN, J.A. *Aires vascongados para canto y piano*. Sendoa, Donostia, 1981.

### KANTA HERRIKOIAK

- CANCIÓNES populares bilbaínas.* A. Carmona, Madrid, 1971.  
*CANCIÓNES populares infantiles en las calles de Pamplona: años 40.* Música Mundana, Madrid, 1986.  
*CANTOS populares antiguos.* Ordorica, Bilbao, 1986. 2 b.  
*VIEJAS canciones donostiarras.* CAM, San Sebastián, 1971.

### MUSIKATRESNAK

- ANSORENA, Jose Inazio. *Txistu gozoa.* Casa Erviti, San Sebastián, 1983. 2 b.  
 ANSORENA, Jose Inazio. *Txistu Ikaskizunak.* Caja Laboral Popular, 1978.  
 BARRENETXEA, J.M. *Alboka: Entorno folklórico.* Archivo P. Donostia, Lekaroz, 1976.  
 BARRENETXEA, J.M. *Apuntes de txistu.* Galdácano, 1984.  
 BARRENETXEA, J.M. *La alboka y su música popular vasca.* Estella, 1986.  
 BENGOA ZUBIZARRETA, J.L. *Nuestros instrumentos musicales.* CAV, Bilbao, 1975.  
 OLAZARAN DE ESTELLA, P. Hilario. *Tratado de txistu y gaita.* Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1972.

### DANTZAK

- ARANA-MARTIJA, J.A. *Elat-Alai.* Kultur Elkarte, Gernika, 1977.  
 ARRARAS, F. *Danzas e indumentaria de Navarra: Merindad de Sangüesa.* Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1983.  
 ARRARAS, F. *Danzas e indumentaria de Navarra: Merindad de Pamplona.* Diputación Foral de Navarra, Pamplona, 1987. 2 b.  
 BARANDIARAN, Gaizka. *Danzas de Euskalerri.* Ed. Vascas, San Sebastián, 1980.  
 XX. *La danse basque.* Lauburu, Saint Jean de Luz, 1981.  
 DONOSTIA, J.A. *Historia de las danzas de Guipúzcoa, de sus melodías antiguas y sus versos.* Icharopéna, Zarauz.

- ETXARURU, L. *Ondarroa'ko dantzak*. Ondarroa, 1980.
- ETXEBAIRRIA, J.L. *Bizkai'ko dantzak*. CAV, Bilbo, 1984.
- ETXEBAIRRIA, J.L. *Danzas de Bizkaia*. La Ed. Vizcaina, Bilbao, 1983.
- GUILCHER, J.M. *La tradition de danse en Béarn et Pays Basque Français*. Maison des Sciences de l'Homme, París, 1984.
- LAMARCA, M. *La danza folklórica vasca como vehículo de ideología nacionalista*. Elkar, Baiona, 1977.
- URBELTZ, J.A. *Dantzak: Notas sobre las danzas tradicionales de los Vascos*. Caja Laboral Popular, 1978.

### BERTSOLARITZA

- AMURIZA, Xabier. *Iaurebun berri. Mila beriso berri*. Elkar, Donostia, 1982.
- ARABA eta Bizkaiko bertsolari txapelketa 87. Bertsolari Elkartea, Bilbo, 1988.
- BERTSOLARI txapelketa 1982. Euskaltzaindia, Bilbao, 1983.
- DORRONSORO, Joanito. *Bertsotan 1789-1936*. Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, Bilbao, 1981.
- DORRONSORO, Joanito. *Bertsotan 1936-1980*. Gipuzkoako Ikastolen Elkartea, Bilbao, 1988.
- EUSKAL Herriko bertsolari txapelketa nagusia 1986. Elkar, Donostia, 1987.

### ALDIZKARIAK

- Anuario de Eusko Folklore*. Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Cabiers Maurice Ravel*. Fondation Maurice Ravel, París, 1985.
- Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*. Príncipe de Viana, Pamplona.
- Dantzariak*. Euskal Dantzarien Biltzarra, Bilbo, 1966.
- Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Música*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1984.
- Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Folklore*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983.

- Gaceta Musical: Informativo discográfico mensual.* Ritmo Rock, Rentería, 1989.
- Música, Terapia y Comunicación.* Musikotherapeutikako Ikerpen-tegia, Bilbo, 1987.
- Ritmo de Rock.* Mueve-T, Rentería, 1986.
- El Tubo.* Bilbo, 1989.
- Txitulari.* Euskalerriko Txistularien Elkartea, Donostia, 1955.

## PARTITURAK

### KONPOSITOREEN OBRA OSOA

- ANCHIETA, Juan de. *Opera omnia.* CAP, San Sebastián, 1980.
- DONOSTIA, J.A. de. *Obras musicales del Padre Donostia.* Archivo P. Donostia, Lekaroz, 1960-1980. 12 b.
- IRUARRIZAGA, Luis. *Obras completas.* Cocalsa, Madrid, 1964, 4g. ed. 4 b.
- OTAÑO, Nemesio. *Obras completas.* Hechos y dichos, Zaragoza, 1956- (Cuaderno VI-1971-an gelditutik).

## MUSIKA ARGITARAPENAK

- EDITIONS "EZKILA". Musika erlijiosoa euskaraz. Abbaye de Beillac.
- EUSKO IKASKUNTA. *Cuadernos de música.* San Sebastián, 1986-1830-tik atzerako partituren argitarapenak.
- GIPUZKOAKO ABESBATZEN ELKARTEA. 1987. Koroentzako obren argitarapenak.
- TURISMO EKINBIDE ETXEA. Tolosa 1972. "Abesbatzentzat Konposamenaren Lehiaketa" desberdinietan aurkezturiko obren argitarapenak.

## DISKA ARGITALETXEAK

CUVYCO, Correria, 39. 01001 GASTEIZ

DISCOS SUICIDAS-HILARGI Ap. 43. 48990 ALGORTA

ELKAR. Esterlines, 10-2. 20003 DONOSTIA  
 IZ. Villa Arbaitzalde, San Roque Auzoa, 20009 DONOSTIA  
 NOLA. Monjardin, 3 1. esk. 31006 IRUÑEA  
 OIHUKA. Amaya, 2B. 4.B. 31002 IRUÑEA  
 SERRANO. Correo, 8-3. 48005 BILBO

### **LIBURUTEGIAK**

ERESBIL. - ARCHIVO DE COMPOSITORES VASCOS. Martín Echeverría, 15. Apdo. 203. 20100 ERRENTERIA. Tfnoa. 943 / 521466  
 GETXOKO MUSIKA ESKOLA. LIBURUTEGIA. Las Mercedes, 6. 48930 GETXO. Tfnoa. 94/4646022  
 "JESÚS GURIDI" ERES IKASTOLA. LIBURUTEGIA. Plaza de la Constitución, 9. 01012 GASTEIZ. Tfnoa. 945/282400  
 MUSIKA UDAL KONTSERBATORIO NAGUSIA. Easo, 39. 20006 DONOSTIA. Tfnoa. 943/466488  
 MUSIKAKO GOI-MAILAKO KONTSERBATORIOA "JUAN CRISTÓFORO DE ARRIAGA". LIBURUTEGIA Diputación, 7-2. 48008 BILBO. Tfnoa. 94/4157888  
 "PABLO SARASATE" musikako kontserbatori nagusia. Aoiz, z/g. 31080 IRUÑEA. Tfnoa. 948/232646

---

### **NOTAS BIBLIOGRAFICAS SOBRE LA MUSICA VASCA**

#### **NOTES BIBLIOGRAPHIQUES SUR LA MUSIQUE**

*Hay un salto cualitativo en la bibliografía musical de estos últimos 30 años.*

*La época anterior se cierra en los años 50 con la muerte de dos probombres: R.M. Azcuen, investigador del folclore; y el P. Donostia, investigador de la música popular y culta.*

*En la literatura musical de los últimos años destaca la obra de investigadores como J.A. Arana, M. Carmen Rodríguez-Suso, María Gembero y Jon Bagüés.*

*La gran ausente de la musicología es la Universidad del País Vasco. La investigación corre a expensas del trabajo altruista de los investigadores. El centro musicológico más importante es Eresbil, fundado en 1974 con una doble finalidad: conservación y propagación del patrimonio musical del País Vasco.*

*El investigador Jon Bagüés ha recogido de manera escueta la bibliografía más destacable de estos últimos 30 años según el siguiente esquema: estudios generales y parciales; historia de la música; biografías; folklore; cantorales; canciones populares; instrumentos musicales; danzas; versolarismo; revistas; partituras (obra completa de compositores); ediciones musicales; editores de discos; bibliotecas.*

---

Un grand pas a été fait dans la bibliographie musicale depuis 50 ans.

L'époque précédente se termine dans les années 50 par la mort de deux personnes remarquables: R. M. Azcúe, investigateur du folklore; et le P. Donostia, investigateur de la musique populaire et cultivée.

En littérature musicale, ces dernières années, on remarque l'œuvre d'investigateurs comme J. A. Arana, M. Carmen Rodríguez Suso, María Gembero et Jon Bagüés.

L'Université du Pays Basque est la grande absente de la musicologie. L'investigation se fait grâce au travail altruiste des chercheurs. Eresbil, le plus grand centre musicologue, a été fondé en 1974 avec une double finalité: la conservation et la propagation du patrimoine musical du Pays Basque.

L'investigateur Jon Bagües a recopilé de façon concise la plus remarquable bibliographie de ces 30 dernières années selon le schéma suivant: études générales et partielles; histoire de la musique; biographies; folklore; livres de chœur, chansons populaires, instruments de musique, danses, "versolarisme", revues, partitions (œuvres complètes de compositeurs), éditions musicales, éditeurs de disques, bibliothèques.

GAIAK

---



## Karlos Santamariari omenalditxo gisa

Joxe Azurmendi

Karlos Santamariarekin hainbat eratan, mailatan eta barrutitan dagoke zordun Euskal Herria, euskal kultura; euskara bera, pentsamendua, zientzia matematikoa, irakaskuntza, ikastolak, Unibertsitatea, Eliza, euskal prentsa. Gu geu.

Orain, gu geu: *Jakin*.

"Aire berriak" pentsabideetan, esaten den legez, oráin inork nekez imagina lezakeen tamainan, Karlos Santamariak ekarri zituen herri honetara gerra ostean, *Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián* zirelakoen bidez bereziki (1947-1959). Horiei buruz ez naiz mintzatuko: Santamariak berak zenbait azalpentxo egin izan du eta badu, gainera, informe historiko bat ere berak egina, noizpait ikertzen utzi zidana, bere artxiboan, frantsesez. Bakarrik, hauxe: "Asistí por primera vez, idatzi du eskerronezko aitortza gisa J.L. Aranguren-ek bere pentsamenduaren traiekatoria esplikatzeko (falangista izana bait da), en el año 1949, a las Conversaciones Católicas Internacio-

nales de San Sebastián, empresa llevada a cabo por Carlos Santamaría y cuya importancia para el catolicismo español ha sido enorme. Piénsese que hasta entonces España había vivido víctima de una nueva *tibetización*. (Orain, agian, *albanización* edo esango litzateke: isolamendu totala eta jelaketa).

Don José María Arizmendarrieta-ren artxiboan, Donostiarriko Elkarrizketa horietako hainbat eta hainbat material aurkitu nuen. Ez da dudarik, haren informazioan eta formazioan ere zerikusirik izan zutela. Beraz, kooperativismo arizmenditarren inspirazioan (personalista hori ere). Horiek denak, aztertzeko gaiak lirateke.

Baina, besteenak beste, *Jakin-en* historian eta traiektoian ere maisu gidaria izan dugu Karlos Santamaría.

## 25 urte *Jakin-en*

Momentu txar batean, esan liteke, *Jakin* Karlos Santamaríak "salbatu" zuela (1967). Historia hori kontatua dago *Jakin 25 urte euskal kulturan zenbakian* (21, 1981, 96 eta 173), xehekiegi kontatua ez egon arren, sentikorasun zaharrak alferrik ez mintzeko.

Salbatu bazuen, hein batean gidatu ere berak egin behar izan zuen aldizkari hau, bere egitate pertsonalez nahiz aholkuz, hurrengo urteetan. Urgentziazko erredakzioaren buruzagi bera bilakatuz aurrenik Donostian, aldizkaria Arantzazu-tik atera zean. Zuzendaritzako triunbiratoan mentore eta biderakusle aktibo izanez, gero, Joan Mari Torrealdai eta Rikardo Arregi kozuzendari eta lankide-ikasle gazteekin, Zuzendaritza honekin berrabiatu bait da *Jakin*, sortu eta hamar urtera, krisi gaizto bat en ondotik. Historiak eta adiskidetasunak elkarturik, horrela, gaur arte jarraitu du Karlos Santamaríak beti aldizkariaren lagun: sustatzaile eta orientatzaile, inspiratzaile.

Esan nahi da, berak orriotan idatzi duenak baino askoz gehiagok lotzen duela aldizkari hau Karlos Santamariarekin aspaldian. Bainaz idazle kolaboratzaile ere izan dugu. Zilegi izan

bekigu orain, kolaboratzaileari omenalditxo antzera, haren 10 artikulu *Jakin*-en argitaratu gogoratzea (gehiago badu, adbz, "Aljebra berria", 29, 1968, 30-40; baina hemen, nolabait esan, artikulu "ideologikoetara" mugatuko gara), piska bat haren pentsamenduaz nahi dugunez apunte batzuk zirriborratzen hasi.

### Erlificio askatasuna

"Gaurko Arazo ederra", Santamariaren aurreneko artikulua *Jakin*-en, oraintxe 25 urte duela (1965), erlificio askatasunaz izanda. Karlosen gai kuttun-kuttun bat, haren pentsamolde originalean, alde batetik askatasun pertsonalaren eta giza eskubideen arazoari, bestetik ekumenismoaren bere interes biziari, loturik dagoena; baina, hirugarrenik, Elizaren historikotasunari ere bai, honela egiaren kontzeptu estatiko absolutista tradizionala arbuiatuz, erlificioan bertan ere. "Eliza bere muiñean beti herbera dala ere, Edestiko leku-denbora igeskorrean barrena bizi da ta ingurunetako elementoak artu ta erabilli bear".

Ulertu egin behar da, orduko "sinismen libertadea"ren burruka zer zen. Interesgarria honez gero ez bait da, erlificio askatasuna defendatu izana (ebidentzia bat bihurtua daukagu), baina zein arrazoitatik defendatu zuen. Egia erlijioso zein politiko segurua desafiatzea zen hori hemengo Eliza dogmatiko itxian eta Estatu totalitario itsuan. "Hablar de libertad religiosa, por ejemplo, era prácticamente una herejía", deklaratu du berak urteak geroago interbista batean "(*Herria 2000 Eliza* 6, 1978, 15).

### Imperialismoaren arazoa

Bigarren lekuan, Che Guevara-ren heriotzaren inguruko meditazioa gogora genezake (27/28, 1967, 11-15), hori ere Karlosen betiko kezken ildotik. Eta, hasteko, ikus dezagun hemen ere berriro, orduan Che Guevara oraindik ez zela heroi eta martiri diskusiogabea, baizik eta Hego Amerikan bertan bede-

ren "bertako eskubikoak eta ezkertiarra batera" berdin kondatzen zutena pasionatuki. Eskuindarrentzat, ez dago esan beharrik zer izango zen. Eta Alderdi Komunista ofizialentzat (Bolibia, Venezuela), abenturista hutsa zen eta subjektibista antizientifika. Borondarista eroa. On baina kalte gehiago egiten ziona iraultzari.

Karlos Santamariak bere betiko jarrera baketiarretik epaitzen du: "Nik ez det uste kañoiaiak ta bonbak herrien zuzentasuna ta zoriantasuna ekarriko dituztenik".

Efikaziaren kategorietan (aparte norberak eduki lezakeen aukera moral edo erlijiosoa), pentsa liteke, Kuba-ren "abenturak", Hego Amerikaren iraultzan untziratuz, ezin ezer handirik lortu ahal izatea USAko imperialismoaren aurka. Orduan ere, alabaina, Kuba-ren kuraia eta adorea mires eta goresgarri genituzke. Izpiritu zirtzilkeria litzateke, errealismo komodo baten izenean, kemen eta sakrifizio zailok, exitorkizun ezin izan omen lezaketelako, gutxiestea. "Gizatasun saietsetik, politika alde batera, badu Che Guevera-k zerbaite merezi, bere adiskideen alde ta ona zeritzaion kausaren alde bizia eman badu, baita gozoz eman ere. Bolivia aldera joan zanean, bazekielako zer sastartean sartzen zan ta nola bukatu behar zuen bere abenturak. Honelako konportamendu ta bizikerari begi onez begiratu behar zaiola ez du inork ukatuko".

Beraz, Guevara-ren proiektu armatuak huts egin du. Baino porrot egiten ari dira, orobat, beste proiektu bakezko ("Alianza para el progreso") zein demokratiko erreformista guztiak, Hego Amerikari irtenbideren bat asmatzeko ("Reformismoaz, *konformismo* izena hobe izan zitekean"). Zer egin? Lenin-en galdera larria horixe izan zela gogoratzan digu.

Galdera hori geure egoerara alda genezake, sarkorkiago baitaratzeko. Eman dezagun, onartzen dugula "euskal arazoa" deritzona, eta ez dugula onartzen indargintza, horren soluziorako. Zer egin? Soluzio demokratiko batean ere ez da sinesten (kapitulazioa ez den "soluzio demokratiko" batean): soluziorik ez dago bakez eta halere ez da onartzen (kondenatu ere ez da egiten!) indargintza.

(Baezpadan abisatu nahi dut, Euskal Herriko arazoaz badietua Santamariak espreski egindako gogoetak, hemen orain aintzat hartzen ez ditudanak).

"Nik ez detuste —errepikatzen du halere— ebanjelioaren erantzuna fusilla artu ta mendira ateratzea izan ditekeanik". Bestalde, "ba-an, ziur nago, imperialismo ekonomikoaren gorpuzilla igarotzen ikusteko elizako atarian eseritza ebanjelioko postura ez dala". Orduan, ezin bada bake bidez eta nahi ez bada indargintzaz (ebangelioagatik!!!), zer bide geratzen da? Batere ez da biderik geratzen, Santamaria zuzen irakurtzen badut, oraingo kontzientzi mailan. Historian tragediaren errealtitatea aitortu egin behar da.

Artikulua iraultzaren teologia bat eskatuz eta inpotentziaz "kristauen bidea, nundik?", moralistei eta teologoei galdeginez, isiltzen zen, guztiz etsita.

Ez guzti-guztiz etsita, agian. Artikulu honetan, biolentzia eta biolentziaren presentzia historian, aitortua dago. Ikusia eta ezagutua, hobeto. Biolentzia ez da izpiritualismo edo moralismo faltsu batez gaitzerizteko, ez onerizteko, arloa. Errealitate bat da, historian, gizartean. Lehenengoa errealtitate hori den bezala ezagutza eta aitortza da hain zuzen. "Biolentzia, gogortasuna, beharrezkoa da, bai, gure mundua zuzentzeko. Baiñan zer nolako gogortasuna? Hori da ta hori izango da, gaur eta biar, problema izugarria. Batez ere ebanjelioko politika edo kristau-politika baterako". Errealismo (politiko eta kristau) honek, etsipenera gakartzala, ordea, esan dugu, Che Guevara-ren heriotzaren aurrean. Ez bakez eta ez armaz dago zer eginik - *orain!*

Esperantza bakarra, beste kontzientzia baten orduan geratzen da. Orain ezin dena, izan liteke posible orduan. Eta kontzientzia hura biharko posible egitean, egon liteke gaur, hain zuzen, Che Guevara-ren balio positiboena. Frakasuaren exitoa, ezkutu-ezkutuan eta luzarora begira:

"Nik galdera bat egingo nieke nere irakurleei, kristau diranei batez ere.

Zer esaten dio gaur kristau konzienziari Che Guevara-ren heriotza gertaera negargarri honek? Zer esaten diote kristau kon-

zienziari Camilo Torres apaiz zanaren eta beste guerrillero kristauen eta ez kristauen heriotzak? Rebolucionarioak eta bandidoak zirela esanaz kitatuko al gera kristauok?

Horrelako galderak ez dizkiet egingo, jakiña, kristau aburgesatu ta ondo instalatueri, ezta ere nere gaztearoan "bien pensant" deitzen zitzaieneri.

Bañan ba daude, Jainkoari esker, bere kristautasuna gaurko egunaren arauaz bizi nahi duten egiazko kristauak.

Guevara-ren lanak, beste ekarririk izan ez badu ere, kristauok Amerika latinaren nahigabe ta miseriaz konzienzia hartu dezagun balio izan balu, bulartsu horren odola etxan alperrik ixuriko".

Lerro horiek irakurri ahala, batek ezin du ez gogoratu Ellakuria: eta hain fede differentetako jendeen odol isurketon ekumenismo estrainoak hunkitzen du.

## Egurrezko gurutzeak ala haragizkoak

Esantsua bait dago, 1968 hori sekulako harramantza urtea izan zela, oraindik ahaztuta ez da egongo. Istillu bat hauxe izan omen zen urte horretan: Madrilgo Unibertsitatean, iskanbila baten erdian, norbaitek gurutze bat leihotik behera jaurtiki zuela. Pentsa eskandaloa Espania katolikoan.

Handik egun batzuetara, beste eskandaloo handiago bat. Don Francisco Pérez batek, sermoian, gurutzea leihotik botatzea baino okerrago, zuzengabe langile bat botatzea zela fabrikatik, famili-guraso bat ogibide gabe utzirik. Entzule batzuk oihuka altxatzzen dira, protestatzen dute (zer sustoa craman ote zuen apez gizajoak!), atera egiten dira elizatik. Pentsa eskandaloa, zer negozioa prentsa-modu batentzat.

Santamariak behin baino gehiagotan csana du, ez dela "taketadazko elkarrizketen" eta arrazoiketen zalea. Adeitsu eta gurbil beti, irribarre izpi batekin. Baino gogoeta hauxe egin zuen eskandaluon aurrean: "Apaizaren galdera ikaragarria au da: Kristoren iduririk egokiena eta egiazkoena, nun dago? Zur

pxuka batean, naiz gurutze tankera izan, ala gure anaia dan gizonarengan? Gezurra badirudi ere, kristau erlijioaren mami guztia galdera ontan sarturik dago" ("Zalaparta Elizan eta erlijioaren konzetua": 29, 1968, 43).

Neure komentariotxo bat egiteko, probetxatuko du orain parada. Problema gogor gehienak, forma gogorrekin agertzen dira. Problema gogor batek zerbaitegatik molestatzen digunean, formaren gogorkeria eta desegokitasuna indignaturik zapuztea izaten da, problemaren mamiko gogortasunari disimuloz itzuri egiteko modu korriente bat.

Santamaria, ordea, onestasun eta garbitasun intelektualean izan bait da beti maisu!

### Berriro biolentzia gora eta behera

Beste desonestasun intelektual erraz bezain arrunt bat hauxe izan liteke, adibidez: biolentzia razionalki "kondenatzeko" dauden problemak eta zaitasunak aipatzen ditu batek, eta biolentziaren justifikazioan ari dela, ulertzen dio bestea (edo nahi izaten dio ulertu).

68 aldera biolentziaren arazoa behin baino gehiagotan planteatu digute Karlos Santamariak, Rikardo Arregik, M.M. Oterok, etab. Santamariak, partikulazkiago, hainbat aldiz eta hainbat moldez jorratu du gaia, beti bere erabaki ebangeliko baketiarretik begira. Etorriko gara beste noizpait berriro garrantzizko puntu honetara Santamariaren pentsamenduan. Orain "Eliza ta biolentzia" *Jakin-eko* (30, 1968, 43) nota laburra gogoemango dugu.

Berriro biolentziaren errealtitate orokorraren konstataziotik hasten gara: indargintza hortxe dagoena da gizartean zein historian. (Inor engainatzen ez ibiltzeko lehen urratsa, norbere burua engainatz ez hasatea da). Okerrago: "Gure gizarteetan biolentzirik handiena ta astunena, herriari goitik behera egiten zaiona izan ohi da gehienetan. Alegia, zuzengabeko legeak, estruktura okerrak eta ahal-gehiegikeriak eragiten diotena. Opre-sioa eta bildurtaraztea edo intimidazioa, esate baterako, izuga-

rrizko gogorkeriak dira, berauek ixuritako odola askotan ikus-ten ez bada ere".

Peguy-ren esaldi batez baliatuz, desordenuaren biolentzia baino bildurgarriagoa eta txarragoa dela "ordenu" arena, esango du. Beharbada Goethe-ri osteratzen zaio horrela. (Voltaire-k us-te dut esaten zuela, kriminal guztien injustiziak baino, injustizia okerrenak, Justiziarenak izaten zirela, edo antzeko zerbait). Santamariak: "Kaleetako biolentzia ez da txarrena, baizik politika ta sozial egiturak jende apal ta pobrari, edo menpeko arrazari, egiten dietena. Hau ikusi, ez da garbi ikusten, edo hobeto esateko, askok ez dute ikusi nahi. Menpekoek egindako gogorkeria besterik ez dute ikusi nahi".

Hori dena ez zegoen, ez dakit zein gizarte moldez edo sistema suertez idatzia. Mendebalde santu honetakoxe gizarteez esana dago. Bainan 68an hori dena gogoeta sakon serioa, justiziazkoa, progresista, zinez kristaua eta arrazoizkoa, zentzuduna, ikusten zuen jende asko, orain goian trepatuta edo arrimauta bera dago "egituretan", eta bitarte labur honetan bere begietan zeharo galdu dizu "herriari goitik behera egiten zaion biolentzia" ikusteko zeukan ahalmen guztia...

Hain zuzen metamorfosi moral horien azter-salaketa bat oraintsu J.L. Aranguren-ek egin du. Guretzat, beste bat, ego-kiagoa, Santamariak egin ahal izango liguke.

## Biolentzia eta Eliza

Santamaria pazifista deklaratua da. Bainan arras uko egiten dio "biolentzia guztien" kondena erosori: intelektualki soluzio errazegia da hori (desonestoa, hain zuzen) eta, moralki zein politikoki, "jokaera honek *status quo* dalakoaren alde jokatzen du, pobreak eta mirabeak ahaldunen eskuetan jartzen ditu-ta".

Santamaria pazifista kristaua da. Horregatik ere uko egiten dio, halaber, kristautasunaren izenean "edozein biolentzia" berdin kondenatzeari: "ez da egia, Elizak beti ta nunai gogortasuna kondenatzen duanik". Biolentzia "guziak" gaitzestea, be-

deinkatzea bait da finean biolentzia. Eta "gogorkeri batetik iges egiten saiatzean, beste biolentzi handiago batean" erortzea.

Biolentzia guztiak kondenatzen direla, esatea, indezenteki gezurra esatea da, batez ere, eta zuzengabe egitea. Biolentziaren monopolio ezkutua beren ukabiletan dutenak, ahaldunak, Elizaren hitzaz baliatuko dira: "Zuek, menpekuok, geldi zaizte, Elizak biolentzi guztiak gaiztoak direla diolako".

Helburu zilegizko bat lortzeko indargintza onartzen ez duen Elizak, egin behar duena, ez da, indargintza kondenatu, baizik efikazki eraldatu edo eraldatzen saiatu gizartea, helburu hura lortzea, orain ez bada behar, zinez posible izan dadin kontzientzien indar bakezkoz, indarkeria gabe. Soluzioa efikazki biltzetik dispentsatzea ez da etikoa inola ere.

Ez dugu jarraituko. Uste dut, norbaitek ikerketatxo bat xehiki egin nahiko balu, gai polit, interesgarri, une honetan interesgarri baino gehiagoa, herri honetan, hauxe izan litekeela: indargintzaren arazoa Karlos Santamariaren pentsamenduan.

## Eliza eta politika

*La Iglesia hace política*, 1974, biziki interesgarria, liburutxo bat dauka gero Santamariak. Baino orain 1969ko haren "Gaurko gai bat" artikulua *Jakin-en* (34, 1969, 58-60) ikusiko dugu.

Estilo labur oso zuzenean idazten du Santamariak:

"Jesukristo ez zan politikan sartzen. Apolitikoa zan. "Indiferentista" zan, politika sailean.

Horixe esan zaigu amaika bider.

Baina ez da egia".

Teokraziaren analisitik darama bere azalpidea. Hasteko, Errusiari "teokrazia" erizten ausartzen da (garai hartan, ez orain), "nahiz ta Jainko gabeko teokrazia izan". Israel teokrazia bat

zen. Zer esan nahi du horrek? Doktrinalki konfesionala izatea (erlijiosoki, filosofikoki, nolanahiki). Israel bezalako teokrazia estriktu batean, ez da posible disidentzia erlijioso ausartik hartzea, ondorio politiko astunik eragin gabe. Gaurko Errusian ezinezkoa den eran "filosofia, zientzia, kultura edo erlijio sailean postura ausart bat hartzea, politika sailean ondorioak sortearazi gabe". Eta Jesukristo markatzen duena, hain zuen, bere disidentzia erlijioso erradikala da.

Ez dugu errepikatuko gizarte israeldarraren talde eta klase analisia: saduzeoak, politikoki erromazaleak eta kulturalki filohelenistak; herodetarrak, erlijiosoki funtsan kontserbakoiak, politikoki errealistea-positibilistak; zeloteak, "aberatsen eta erro-marren etsai amorratuak (...), aberri-zale amorratuak eta iraultza-gileak". Gizarte horretan, erromarrek Israel okupatuta zeukan, "politika gabeko erlijiozko postura huts bat hartzea ez zan posible".

"Kaiserrari eman Kaiserrarena", etab., argudio klasikoen exegesi berria eskatzen du Santamariak, argi berri batez aztertzeko Jesukristoren ihardun guztia.

"Ez zegoen, ez, estratosferan. Eta horregatik hil zuten.

Jesukristo politikagatik salatua izan zen eta kondenatua (...). Orduko politikariek Jesukristoren hitzak eta obrak zentzu politikoa zutela sobera zekiten. Zeren Jesukristo ez bait zen "neutralistaren" bat, hainbeste bider esan diguten bezala. Politika sailean postura garbi bat hartzen zuen, nahiz ta askok 'distinto' ta diferentzia asko sartuz, ezagutu nahi ez izan gure egunetan".

## Kultura, euskal kultura

Inpresioa daukat, oraingo gazte-jendeari Ortega y Gasset gutxi gora behera San Isidoro Sevilla-koa bezain urrutit geratzen zaiola. Kulturaz *Jakin-en* Santamariak idatzi dituen kolaborantza biak, aldiz, biak eztabaidan Ortega y Gasset-ekin hasten dira. Ohargarria da, zeren eta erakusten bait du, konkistatu egin behar izan dela, gaur egungo euskal kontzentziari egoki-tzen zitzzion kulturaren kontzeptu propioa.

In "Euskal kulturari buruz" (33, 1968, 31) kulturaren konzeptu ortegatarrari burgesa erizten zaio. In "Unibertsitateko kulturaz" (1, 1977, 67-70), "gutziz gainditua gaurko egunean".

Ortegak "un sistema de seguridades frente a la vida" deritzo kulturari. "Cultura es aparato de facilidades frente a la existencia".

Bizitza lan gaitza da, burruka zaila, arriskuz betea. Gizonak erraztasuna bilatzen du. (Bizitzaren aurka?). "Frente a las dificultades el hombre inventa instrumentos espirituales y corporales que facilitan su lucha contra aquélla. La suma de estas facilidades que el hombre crea es la cultura".

Hori bada kulturan bilatzen dena, berandu baino lehen ez-paiak nahitaez jo behar dizu euskalduna. Ulertzen da, batzuek euskal kulturaren gorritasunetik "300 millonez"en anparora ibes egitea. Alderdi txiki bateko antsietatik, Alderdi "unibertsal"en bateko deskantsura.

(Taldea ez da artaldea. Guk taldea nahi dugu: txikia, ongi kohesionatua, baina bizia, librea. Taldea artalde, artzainak, artzanorak, hespilek, ardiengidaritzak hierarkizatuak, esplotazioak, esneketak eta gaztak, merkatuak eta larre izpiritualak zein materialak, egiten dute, dakigun bere "segurantzi" sistema osoarekin: Alderdi segurua, Estatua. Kultura "catálogo de actitudes ante la vida" jakin bat baldin bada, oso nekagarria bait da, alde guztiak haize guztiak atergabe erasoa den trintxera batean irautea, ipurdiari beti akomodo bila luebaki tirokatuan).

Kontzeptura itzuliz. Ortega-ri, alde askotatik egongo litzateke zer ihardoki. Santamariak bere kultura propioan bizi nahi lukeen euskaldunaren ikuspegitik erasiatzen dio: "Nun dauagu euskal kulturaren erraztasuna? Nun berak emandako segurantza?". Eritzi burges hutsa da Ortegarena.

Zoritzarrez, kulturaren ikuskera burges hori, darrai Santamariak, euskaldunon artean dago inon baino sustraituagoa. "Orain arte, kultura, segurantza-sistema bat bezala begiratua izan da, batez ere euskaldunen artean. Gozo-gozo izateko bidea da kultura. Enplegu, kargu ta ogibiderik onenak eskuratzeko bidea da. Kultura da jendeen artean itzala emango dizuna, Beren se-

me-alabek kultura erdietsi dezatela nahi dute guraso gehienek, beraz”.

Horra nola geuk bihurtzen dugun gure kultura “sasi-kultura”. (Eta zer nahi dute etsaietan, horixe baino?). Baino hori, inkultoaren kultur kontzeptua da. Instrumentala, utilitarista. Ortegak isladatu duen gizarte burges “filisteo”arena. “Egiazko kultura ez da, Ortega-k dioen bezala, segurantza bide bat, ez segurantza eta ziurtasun-ezaren kausa baizik. Egiazko kultura duen gizonak, besteek baino korapilotsuagoa ta nahastuagoa du bizia. Besteek beren gezurrezko ‘frankilitatean’ bizi ahalko du; ez, ordea, kulturaren sasiartean sartu den gizonak”.

Kultura bizia, kreatiboa, historikoki eragikorra, ez da segurantziazko, egonezinezko baino. Ez “egien propietariena”, egiaren bilatzaile artegena baino.

“Euskal kultura, erroak aizetara dituan kultura da. Euskal kultura eginkizuneko da, hau da, dana egiteko duan kultura bat.

Euskal kultura ez da besteak bezalakoa, estal-gabekoa da. Benetako kultura proletarioa. Mespreziatutakoa ta bide guztietan desornitutakoa.

Erderaz, nahiz gazteleraz nahiz prantzeseraz, esate baterako, idazten hasten danak erraztasunak oro ditu: mota guztiak hiztegiak eta enziklopediak esku eskuan ditu. Klasikoen laguntza beti arkitzen du.

Euskal kulturari ‘sistema de seguridades’ ez, baizikan ‘sistema de inseguridades’ deitu behar diogu.

Eta esaten duguna da euskal kulturaren meriturik handiena, gure egunetan historiaren indarra desornitutako jendeen artean arkitzean dagoelako.

Hontaz Marcuse-kin bat nator. Filisteiko jendearekin ez dugu deus egingo. Hoiek gure kulturari folkloriko jostailuaren balorea besterik ez diote emango.

Ezeptasunarena ta ukatasunarena da jakintzaren ta politikaren oldarra.

Zientzia sailean nundik etorri ohi da aurrerapena? Ukatzetik. Geometria ez-euklidianagandik. Fisika ez-newtonianagandik.

Epistemologia ez-kartesianagandik, ta honela.

Gaston Bachelard filosofoak bere "Le nouvel esprit scientifique"n honela adierazten digu. Ukatasunaren ahalmenean ikus-ten du baliorik handienetako bat.

Hitz baten: euskal kulturak, bere mamian, erreboluziogile izan behar du bortxaz, zeren esistitu nahi badu, aurrean duan errealityatea ukatu egin behar dualako".

Kasu: gaizki ezagutuko genuke maisu razio-vitalista, urduitasun eta protesta alderdi hori ez duela gogoan izan, uste bagenu. Kulturaren beste honelako adierazpenak ez bait zaizkio falta Ortega-ri: "Cultura es labor", "cultura es creación de pasiones nuevas y de ideas nuevas", "cultura es agitar los brazos ante la propia perdición". Santamariak aipatzen ditu horiek ere.

Eta hor-ere, alde askotatik lego ke zer esan, argi edo ilunbide horiei. Bat, Ortega-ri ia beti esaterik dagoena, kontzeptu rigurosoetatik ihes egiten duela metaforetarra, irudizko mintzora. Arrazoipidetik fantasiara. Baino Santamariak, hori dena barkatu eta, berriro lehengo mailu berarekin jotzen du bere kritika: "Arras atzeraturik gelditu dela esan daiteke, haren kontzeptuak, gure gaurko sozial mentalitatetik urrutí dagoen intelektual-individuismo batera makurtzen bait dira. Ortega liberal handi bat zen, eta haren pentsaera orduko Espainiako ideología liberalari loturik zegoen. Pentsaera horren individualismoaz konturatze-ko, nahikoa da aipatu ditugun frasesak berrirakurtzea. Gaurko egunean, ordea, kultura-rekiko kontzeptuek sozialak izan behar dute, ala ez dira, izan".

## Euskal Unibertsitateaz

Santamariaren berezkuntza da "Euskal Unibertsitate" eta "Euskal Herriko Unibertsitate"arena (edo "Euskal Herriango" a, garbiago uzteko). Euskal Herriango Unibertsitate bat orain dau-kaguna da.

Eta positiboa da, ez uste. Oso positiboa da alde praktikotik: "Kultura unibertsala emango dio gure herriari, erdaraz bada

ere. Alde horretatik, guztiz beharrezkoa dugu gaurregun eta —euskarra dagoeneko egoeran— luzaro ere ukanen dugu beharrezko”.

Baina “hori Euskal Unibertsitatea ez dela *opportune et importune* esango dut nik, izen-truke horretan arrisku handia ikusten bait du”.

Helburua Euskal Unibertsitateak izan behar du.

Zer da, baina, Euskal Unibertsitatea? Ezin laburbil nezake artikulu dena noski. Euskal Unibertsitate zinezko batean planteatu eta soluzionatu beharreko auzi bat, kultura “unibertsalarren” eta kultura berezi “partikularren” dialektikarena litzatzeke. Ez noa auzian luzatzen: terminoak berak desegokiak dira eta, gainera, hemen ez dagokigu Santamariaren *Jakin-eko* artikuluen kontaduria pittin bat erakustea baizik.

(Oraintxe: San Inazio Loiolakoa “un vasco universal” baldin bada, zer arraio ote gara besteok? Historia horrek historia gehiegi du eta, sentsibilitate piska batekin, San Inaziorentzat eta denontzat hobe zen, mendeurrenekoa historia horietatik urrutí eta garbi ospatu. Jende batek ezin izaten du nonbait ohartu, bere mintzairak zenbat intsulto implizitu harroputz eramatzen duen, berak maite ez duen Euskal Herri xumearentzat. Hori bait da kontua: ez bakarrik, ez maitatu; mesprezu inkontziente bat edukitzen zaio, karitate guztiarekin).

Kultura berezi partikularra ez da kultura unibertsalaren *zati* bat, handiagoa ala txikiagoa. Hain zuzen hortxe dago makurkeeria: “handiek” berena “kultura handi” deklaratzentz dizute, handia gero unibertsala. Baino “kultura unibertsala eta herri baten kultura bereziaren arteko diferentzia ez datza kantitatean: zer-bait esentziala da”.

Harreman dialektiko bat da: kultura guztiak dira unibertsalak eta partikularrak. Edo: guztieta ematen dira unibertsaltasuna eta partikularitasuna, modu desberdinatan. Kultura partikular ez-unibertsalik ez dago; unibertsal ez-partikuarrik ez dagoen bezalaxe. (Inork ikusi al du Maitasuna kalean paseatzen? Dau-

den maitasun konkretuak beste maitasunik ez dago, hauek ez dira izaten haren zatiak, kopiak: kuriosoa da, zein arras platonikoak izaten garen puntu batzuetan).

"Kultura unibertsalak ez du inoiz kultura berezi bat ordainkatuko. Historiaren Erroma ez da sekula erromarrek bizi izan zuten Erroma bera izango. Antropologoek deskribatzen duten kultura papua ez da sekula papua herriak bizi egiten duen kultura bera izango, indijenarentzat kultura hori biziaren muina bait da.

Espainiako intelektual gehienek ez dute honelako berezitasunen beharrik sentitzen —hau da, hain zuen ere, Ortega y Gasset jaunari gertatzen zitzaina—; horientzat bi gauzak —kultura unibertsala eta kultura espainola alegia— bat bera dira eta. Horiek, espainolek, ez dute problemarik izaten, kultura unibertsala espainolez ikasten dutenez gero. Baino euskaldun jatorbatek euskal kultura, euskal literatura, euskal pentsaera, espainolez ikasi behar izatea, *contradictio in terminis* iduritzen zai-gu. Honelako gertaera, trajeria kultural bat dela esan daiteke, nahiz eta euskaldun asko hortaz konturatu ez.

Hau da gure diglosia defakoaren egiazko trajeria. Eta gure herria ez da hortik aterako, egiazko euskal unibertsitate bat ukantzen arte".

Arazoa Euskal Unibertsitatea genuen hain zuzen. "Irakurle argi eta zorrotzak —idazten du jarraian Santamariak— erraz ulertuko du zein differentzia handia dagoen, Euskal Herriko unibertsitatea eta euskal unibertsitatea direlakoen artean". Eta nola *Jakin*-ek irakurle argiak eta zorrotzak dituela ez dugun zaintzarik egiten, horretan utziko dugu hori.

Ohartxoan osagarri, ik.: *La Universidad y La Cultura*, Donostiarra EUTGk argitaratu foiletua, Santamariak Euskal Kontseilu Orokorreko Hezkuntz Kontseilarri gisa idatzia).

## Inkontzientearen legera bihurtzen

Modu bitxi honetan hasten zen behin Santamariaren artikulu bat: "M.-ren gizartea, alegia, dimensio bateko gizartea..."

Misteriozko "M" moztu hori Herbert Marcuse zen. Garai batetan oso modan egon zen. Orduan, Santamariak, Rikardo Arregik eta hirurok zenbaki monografiko bat prestatu genuen hari buruz. Baino zentsurak Marcuse-ren izena esatea ere debekatu egin zuen. Haren lekua "pentsalaria"z, "gure filosofoa"z eta "M"z bete behar izan zen. Gogoan hartzeko gauzatxoak, antzemateko nolako garaiak ziren.

Birritan gutxienez enplegatu da Santamaria gure aldizkarian Marcuse-rekin. Bietan "dimensio bakarreko gizona"ren arazoarekin. Aurrenkoaren arloa "historiaren azkena"rena da hain zuzen.

Historia kontzientziaren espazioa da: inkontzientearen cz dago historiarik.

Gure artean, askotan, Madrildik errebotean datozenearan bakanrik hartzen dute arazoek eta ideiek indarra. Hala dirudi orain "historiaren azkena"rekin ere gertatzen zaigula, posmodermitatean. Baino hori Santamariak orain hogei tabi urte jada planteatu zigun *Jakin-en*.

Bi printzipiok gobernatzen du gure aktibitatea eta esistenzia. Bat, Eros-ena, atseginarena hori; eta errealityaren beslea, zibilizazioarena. Bigarren hau, nolabait esan, kontzientzia historikoarena eta sozialarena da. (Freud-i eta Marcuse-ri jarraiki, instintoen terminotan mintzo bagara ere). Aurrerabide historikorako eta zibilizaziorako, beharrezkoa (omen) da honek gizonaren lehen instintoa bere azpian lotzea eta gogor zapaltea gatibu. Eros-ek erreprimitu egon behar du zibilizazioan, ordenuan. Bizitzaren instintoaren estekadura horixe besterik ez omen da funtsean zibilizazioa.

Gure bizitza "naturalaren" edo inkontzientearen sailean, Eros-ena da printzipio bakarra: atscrina eta atsekabea dira inkontzientearen gidari bakarrak. Libre. Gure zibilizazioko bizerak hura preso lotzen duenean eta berezko garapenik uzten ez dionean, instinto haren indarra beste ubide batzuetatik gainezka bideratzen da, eta horrela sortzen dira zibilizazioan Eros-en sublimazio-formak, hots, artea, erlijioak, zientzia, ohore-grina, heroismoa, etab., politika, historia. Eros-en errepresioak egiten du historia. Betetzen du historia edukinez.

Zer gertatzen da oparotasunaren gizartean orain? Gar erotikoa ez dago txondarpean kontrolatuta eduki beharrik: aitzitik, ageri-agerian libre uzten da. Probetxatu egiten da oparotasun sistemaren zerbitzuan, edertzeko, suspertzeko. Zibilizazio honetan, ez bakarrik oso erraza da hiritar zibilizatuarentzat Eros-en plazer handiak zein txikiak erostea eta gozatzea; baizik eta produkzioak (diseinuak, etab.) zein merkatuak berak, nolabait ukitu erotiko bat eduki behar dute hobeto funtzionatzeko; managerrak gizontsu-sexy izan behar du; andereño idazkariak pertxenta-sexy; iragartzailak sexy, saltzaileak sexy. Sexua harreman publiko arruntenetan integratu da. Sistema etsai gatibu-beharrezko izatetik, sistemaren aliatu eta parte bilakatu da Eros modernoa.

Baina esan dugu, sistemaren aldakuntzari, kulturaren aurre-rabideari bultz egiten ziona etengabe, Eros-en instinto erreprimitu hori zela, irtenbide bila: zerk eragin behar dio orain aurre-rantz historiari? Ezerk ez. "Ondorea da historiaren eginkizun eta asmokizun handienak hil zorian daudela".

Hartarainoxe gaude entranpatuak, non, "progresista" batzuk izaten bait dira, amodio librea eta antzekoak esigitzen dituztelnak, askatasunaren izenean: placeraren eta atseginaaren printzipioa, ordea, sistemarena bait da gaur egun printzipo nagusia hain zuen!

Nola irauli sistema? Inola ez. Nola goaz horrela? Inora ez. "Berriz ere inkontzientearen legera bihurtzen da gizartea". Gozamencan gozo-gozo loakartzera. Konformismora, Histori-gintzari uzteria.

(Ez bedi ulertu, aurrerapena bukatu denik edo holako sinplekeriarik. Aurrerapenean ez dela egongo forma "sublimatirk" baino: placeraren printzipo egoistari obedituko diola denak zibilizazio honetan).

## **Zinismo berri baterantz**

Bi ohartxo.

Bat: agian irakurleca ez dago konforme, analisia egin den terminoekin. Eros-en errepresioarena kontu delikatua da. Ez dio

axola. Santamariak berak azpimarratu zuen, Marcuse-rena gizartearen azterketarako "modelo" bat zela. Interpretazio-eskema bat. Segituan ikusiko dugu, beste termino batzuetan ere bazeke-la azterketa hori bera egiten, Marcuse-ri jarraituz gainera.

Bi: "krisi handiaren" sentipena, edo mundu bat bukatu dela azkenbetiko, hainbat eratan eta lekutan aurkitzen da XX. mendean, izugarri interesgarria izango bait litzateke, horren azterketa sistematiko bat. "Historiaren azkenaren" hau ez da adibide bat gehiago besterik (errepikarria eta gero errepikatua, gaur arte, Lyotard, Vattimo eta konpainiarekin).

Eta gure arteko berritasun batzuen zahardadearekin jarraitzenko: "arrazoimen zinikoa" orain haize handian omen datorki-gu. Hori ere Santamariak orain hogei urte errebindikatzen zuen. Eta bitxia da. Sofistikatutako nahi izan dituztenak, dozenaka ezagutzen ditut, Savater-engandik hasi eta Hegel-enganaino. Nik uste dut, Hegel-ek nahikoa errebindikatuta utzi zituela. Baino jendeak gusto hartu dio nonbait errebindikazio horri. Zinikoak, ostera, egongo dira, ez omen bait da ezer berri-berririk egoten eguzkiaren azpian, baina nik behintzat ez nuen inor ezagutzen, errebindikatzen zituenik. Salbu, esan bezala, Karlos Santamaria.

Zein sentidutan? Sistemari bere osotasunean uko bakar eta borobila ematearen sentiduan, 68 aldera gazteen, ikasleen, intelektualen artean preziski agitu den eran. Ez zen izan doktrina-ren baten kontraatakea. Tesiren batena. Ez, puntu batzuen aurkakoa. Bizitzaren azkeneko eztanda zen, errebolta, "ezezko handia" guztiari, sistemaren ukoa bere osotasunean. "Paralelismoren bat badago, dudarik gabe —komentatu zuen orduan Santamariak fenomeno hura gure aldizkarian— gaurko protestako ekitearen eta ziniko mugimenduaren artean. Antistenes eta Diojenes-en filosofia errebisatu eta ber-baliarazi bcharko litzake gizon modernoaren aldetik".

## **Historiaren azkena**

Halere Santamariak ez zigun esan, neozinismo batean Orrea-gara itzuli behar genuenik, modernitatearen horda frankoak arroi-

Ian (ez dakit hori doi-doi non dagoen han) harrapatu eta harrika lehertzera (zaputz indibiduista, sasi-naturalismora, etab.). Hori, gertatzen ari zaiguna da apika, modarekin. Ez Santamariak opa ziguna.

Opa ziguna, euskal kulturaren barruan indartzearen, sustraia bilatzearen eta sendotzearen, pertsona betegitearen bidez joan zitekeen. Baino gogoratzen ari naizen artikuluok, analisian bakarrik saiatu dira: gauden, beraz, horretan.

Gizarte *versus* gizabanakoa. Gizarte teknologikoa (kapitalista nahiz sozialista) gizaseme konkretuaren ukazio bilakatua. Are, bigarren, gizarte honetan, sistemari muzin egiteko ahalmena bera itzali zaio gizabanako hiritarrari, esan bezala. "Mahatma Gandhi zanak honako hau esan ohi zuen, bere herriaz mintzatzerakoan: 'Nagusikeriari ez esateko indarra galdu dugu' (...). Horixe da gizarte industrializatuetan gertatzen dana: dimensio bateko gizonak ez esateko kemena galdu du. Galtze hau, ordea, ez da indarka, gogorka, bortxaz eta zigortez egiten, baizikan, atseginez, plazerez eta aisetasunez. Teknokrazia, Kalipso ninfaren antzekoa da, eta gaurko gizona beraren sareetan lotuta dagoen Ulises bat". Gizonak bere gatibutzan plazer izatea, lortu du oparotasunezko masa-gizarte teknologikoak.

Nola? Beharrak manipulatz. Gizona, kontzientzian barrrena, inkontzienteraino inbadituz.

Gizona beharrez jositako izaki bat da. Bchar-sorta bat. Beharren dialektikak eratzen du historia, kultura. Beharrok ez dira fisikoak edo materialak bakarrik. Erantzukizunaren, askatasunaren, ohorearen, partizipazioaren, kulturaren beharrak ditu orobat. Beharrok dira kontraesan eta uko guztien iturburuak. Beharren arteko dialektikan gizatartzen da gizarteak, sozializatzen da gizabanakoa. Eta, hain zuen, "dimensio bateko gizarteak, giznaren beharrak maneatzten ditu, bere itxurara eta gisara. Horietako behar batzuk betetzen ditu. Beste batzuk, berriz, baztertu eta ahantzi arazi". Satisfakzio konpentsatorio batzuekin.

Ez dugu betiko erosarioa hasiko: zenbat aisetasun eskaintzen digun cskaparatean; aldiz, erantzukizun publiko orotatik

dispentsatuta nola gauzkan, eta erantzukizun beharrik ere nola ez dugun sentitzen, etab. Luzeegi joko luke. Har dezagun askatasuna bakarrik. Askatasunarena gizonaren beharrik tirriatsuenetako da. Gizarte modernoak, hortaz, ez du askatasuna ukatu egingo. Arriskutsuegia litzateke. Manipulatu egingo du. Interesatzen ez zaizkion askatasunak ere zintzurretik sarteraziko dizkio. Libre izatera behartu egingo du nolabait, "gezurrezko libertatez" kargatuz: autozensuratzan den prentsa librez, bost axola diren hauteskunde librez, aldez aurretik kontzertaturiko preziozko merkatu librez, etab., "dimensio bateko gizartean askatasun ideia bera faltsifikaturik egoteraino, benetako zapalkeita dena jendeak libertatetza hartzen duelako".

Beharrak, lehenago, beharrak ziren. Eta beharrak problema. Beharrak egonczina, kontraesana, ukazioa eta burruka sortzen zuen. Gizartearen aldakuntza. Egoera problematikoaren gaindipena. Baino orain "mundu onen-onenean bizitzea iduritzen baitzaio gaurko gizonari!". Orain problemarik duena, Don Juan izan, Romeo, Hamlet ala Fausto, ez da burruka eta tragedia baterako asuntua, psikiatrantzako kasua bakarrik da. Problemak orain ez dira gainditzeko, sendatzeko baizik. "Zorionean" atrapaturik gaude: ez dago ihespiderik.

"Gaurko teknokrazia gizonaren behar guztiak asetzeko eta kontradizino guztiak integratzeko gauza omen da. Hortik dator M.-ren iritziz, dialektikaren akabantza eta Historiaren fina".

(Dena dela, historiak berak baztertu omen gintuen herri eta jendeontzat, "historia" askoz lehenago bukatu zen: guretzat ez dago arazorik).

### Pertsonaren arazoan: denaren giltza

Gai oso desberdinak ari garela ukitzen, emango du. Baino badago guztiun gako simple bat: pertsonaren arazoan.

Hain zuzen "Marx eta giza pertsonaren problematika" izan dugu *Jakin-en* idatzitako Santamariaren azken artikulua orain arte (30, 1984, 75-90), sei urte duela. Santamariaren pentsa-

menduan betidaniko, hasieratik azkenerainoko, interesen eta kezken erdi-erdigunean gaude hor. Halere, artikulua, tituluak seinalatzen duen eremutxo konkretura mugatzen da: eta gu harakin.

Hamabost orri trinko-trinko eta ongi dokumentatutan, Marx-en eritzia aztertzen du Santamariak pertsonari buruz. Eta, une berean, aburu horri zer deritzoten pertsonalistek, arakatzen du, alde batetik; marxista desberdinek berek deritzotena, bestetik ("humanistek" nahiz Althusser-en gisako "zientifistek", antihu-manistek).

Hainbat ohar antropologiko baliagarri egin du Marx-ek (bere obra osoan: ez gazteak bakarrik): izaera sozialaz, kontzientziaz, alienazioaz, lanaz eta lanaren bidezko gizagintzaz (gizonaren autokreazioa historian), etab. Baino, azken finean, gizaki kolektiboaren aldean apena hartu du aintzat gizabanakoa (Santamariak nahi luke piska bat "salbatu" halere: "Nik ez dutuste Marx gehiegikeria horiek bat etor zitekeenik"); eta, nolanahi ere, pertsona —zentzu pertsonalistan— ez du tutik ezagutzen. Uler dezagun: pertsona, pertsonalisten kontzeptuan, errealtitate trantzendentea da. Logikoa da, Marx-ek ez jakitea zer egin horrelako giza kontzeptu batekin.

Buka dezagun, bukatu baino, arlo berri bat irekiz. Erlilio askatasuna, Imperialismoa eta kristautasunaren konpromezu soziala, pobreen eta zapalduen askatasun burruka eta violentzia, Euskal Herriaren etorkizuna, kulturaren esanahia euskaldunontzat, oparotasun gizarteko inkontzientzia eta lozorroa: kezka guztiok iturburu batbera izan dute: pertsonaren ardura.

Karlos Santamaria Euskal Herriaren maisu pertsonalista da: pertsonalismoa, besteren batean sakonkiago barnatu beharrekoa, berak esan digu, "ez da zientzia bat, sistema bat, teoria bat, ideologia bat, baizik sinismen bat, fede bat pertsonaren existentziaren gainean". Gure artean pertsonalismoa funtsezko klabe bat da, nik uste, XX. mendeko historia soziala eta politika hein handi batean argitzeko: apez propagandistetik sindikalismo solidarira, kooperativismoa eta ordu zailenetako politiko demokristau batzuen jarreraraino. Oinarri-oinarritzko giltza, Karlos Santamariaren pentsamendua bere osoan artikulatzeko

genuke batez ere, hor ez dago dudarik batere. Pertsonaren konzeptua izan da nukleoa Santamariaren kezka teoriko zein praktikoen sare zabalean. Harentzat, berak esan digun bezala: "Pertsonagandik abiatzen bait dira historiaren bide guztiak".

*J. A.*

AURKIBIDEAK 1981-1990

---



Jakin 21.ean argitara eman genituen aurkibideak osatzen datoz oraingo hauek. 1981ean 25 urteko produkzioa bildu genuen. Azken bederatzi urteotakoa biltzen dugu oraingoan, 1981eko 21. zenbakia eta 61. hau ere.

Ordukoak bezala oraingoak ere helburu bikoitza du. Bateko, gure aldizkariaren harpidedun eta irakurleei laguntzea Jakin-en ibilbide osoko lanak eskuetan jarriz. Eta besteko, euskal kulturaren ikertzaileei materialen baliagarritasuna areagotzea.

Bi sarrerako aurkibideak dira: egileen araberakoa eta gaien araberakoa.

Egileen araberako aurkibidea alfabetoz antolatu dugu, izenordeak (ezagunak ala ez) bere horretan utziz.

Gaien araberako aurkibidean Jakin 21.ean erabiliriko erizpide berdinez jokatu dugu: 13 gai-sail eta 74 azpisailen barnean kokatu ditugu 9 urteotako artikulu guztiak. Sail bakoitzaren barruan egileen izenez antolatu ditugu lanak. Jakin-en orrialdeetan argitaratutakoetatik aurkibide hauetan jaso gabe gelditu diren lerro bakarrak, zenbaki honetan sailekoak, dossier-sarreratxoak eta zenbaki bakoitzeko aurkibideak dira; gainerako guztia fitxaturik dago.

## **Idazleen arabera**

ABRISKETA, Jose Antonio

**Giza genetika.** 57 zk., 1990. 063-077 or.

AGIRRE, Esteban

